

NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2013ko ekainaren 12a

65. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, Nafarroako Administrazio Publikoetan funtzionarizazio prozesu berri bat abian jartzeari buruzko Foru Legea aldatzen duena. Socialistas de Navarra, Bildu-Nafarroa, Aralar-Nafarroa Bai eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeek eta atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkeztu dute (2. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Fiskalizazio-txostena, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren finantzek 2012ko ekainaren 30ean zuten egoerari buruzkoa, Kontuen Ganberak egina (3. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Nafarroako Administrazio Publikoetan funtzionarizazio prozesu berri bat abian jartzeari buruzko Foru Legea aldatzen duena.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko ekainaren 10ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Socialistas de Navarra, Bildu-Nafarroa, Aralar-Nafarroa Bai eta Izquierda-Ezkerra parlamentutaldeen eta atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkeztu dute Nafarroako Administrazio Publikoetan funtzionarizazio prozesu berri bat abian jartzeari buruzko Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena, eta eskatu dute presako eta irakurketa bakarreko prozeduraz izapidetu dadin.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 110., 111., 148. eta 158. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona ERABAKIA:

1. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Administrazio Publikoetan funtzionarizazio prozesu berri bat abian jartzeari buruzko Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena.

2. Foru lege proposamena presako prozeduraz eta irakurketa bakarrean izapidetzea.

3. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako, eta Nafarroako Gobernuari adieraztea bere iritzia emateko epea 2013ko ekainaren 14an amaituko dela.

4. Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, zeinak bukatuko baita eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren aurreko egunaren eguerdiko hamabietan. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

Iruñean, 2013ko ekainare 10ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**Foru Lege proposamena,
Nafarroako Administrazio Publikoetan funtzionarizazio prozesu berri bat abian jartzeari buruzko Foru Legea aldatzen duena**

ZIOEN AZALPENA

Nafarroako Parlamentuak, berriki, Nafarroako Administrazio Publikoetan funtzionarizazio prozesu berri bat abian jartzeari buruzko Foru Legea onetsi zuen.

Araua behar bezala betetzea eragotziko lukeen edozein oztopo saihesteko, Foru Lege proposamen hau aurkezten da.

Artikulu bakarra. Aldatu egiten da Nafarroako Administrazio Publikoetan funtzionarizazio prozesu berri bat abian jartzeari buruzko Foru Legearen 8. artikuluko 2. puntua. Hona testu berria:

“2. Halaber zehaztuko da integrazioa bera zein egunetan gauzatu izaten den. Justifikaturiko kausaren bat tarteko denean izan ezik, dagokion administrazio langile guztientzat berbera izanen da egun hori, eta 2013ko abenduaren 31 baino lehenagokoa.”

Azken xedapena. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean hartuko du indarra.

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Fiskalizazio-txostena, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren finantzak 2012ko ekainaren 30ean zuten egoerari buruzkoa, Kontuen Ganberak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko urriaren 15ean eginiko bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusirik Kontuen Ganberak emandako fiskalizazio-txostena, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren finantzak 2012ko ekainaren 30ean zuten egoeri buruzkoa, ERABAKI DA:

1. Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Erabakia Nafarroako Parlamentuaren Aldizkari Ofizialean argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2012ko urriaren 15ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**Fiskalizazio-txostena,
Nafarroako Foru Komunitateko
Administrazioaren finantzak
2012ko ekainaren 30ean
zuten egoerari buruzkoa,
Kontuen Ganberak egina**

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (4. or.).
- II. Helburua (5. or.).
- III. Norainokoa eta mugak (5. or.).
 - III.1. Norainokoa (5. or.).
 - III.2. Mugak (8. or.).
- IV. Nafarroako Gobernuaren 2012ko ekitaldirako aurrekontuari buruzko iruzkinak (8. or.).
- V. Ondorioak eta aholkuak (13. or.).
 - V.1. Aurrekontuaren 2012ko ekainaren 30eko betetze-mailari buruzko ondorioa (13. or.).

V.2. 2012ko ekainaren 30eko Finantza Egoera (15. or.).

V.3. Foru Sektore Publikoaren zorpetzea (19. or.).

VI. Nafarroako Gobernuaren aurrekontuaren 2012ko ekainaren 30eko betetze-mailaren laburpen-koadroak (24. or.).

VI.1. koadroa. Diru-sarrerak kapituluz kapitulu (24. or.).

VI.2. koadroa. Gastuak kapituluz kapitulu (25. or.).

VI.3. koadroa. Gastuak, departamentuz departamentu (26. or.).

VI.4. koadroa. Aurrekontuaren aldaketak kapituluz kapitulu (27. or.).

VI.5. koadroa. Aurrekontuaren aldaketak departamentuz departamentu (28. or.).

VI.6. koadroa. Hainbat urtetarako gastuak kapituluz kapitulu (29. or.).

VI.7. koadroa. Hainbat urtetarako gastuak, departamentuz departamentu (30. or.).

VII. 2012ko ekainaren 30eko egoeraren azterketa xehea (31. or.).

VII.1. Aurrekontuaren 2012ko ekainaren 30eko betetze-maila orokorra (31. or.).

VII.2. Aurrekontuko gastuen 2012ko ekainaren 30eko betetze-maila sailkapen ekonomikoaren arabera (34. or.).

VII.3. Aurrekontuko gastuen 2012ko ekainaren 30eko betetze-maila departamentuen arabera (41. or.).

VII.4. ⁹Aurrekontuaren 2012ko ekainaren 30eko betetze-maila (47. or.).

VII.5. Nafarroako Gobernuaren aurrekontuaren betetze-mailaren eta Estatuko Administrazio Orokorraren 2012ko ekainaren

30eko betetze-mailaren alderaketa (55. or.).

VII.6. Foru Sektore Publikoaren zorpetzea 2012ko ekainaren 30ean – Nafarroako Ogasun Publikoaren Foru Legea (57. or.).

1. eranskina. Nafarroako Gobernuaren aurrekontuaren 31ko ekainaren 1eko betetze-mailaren laburpena (61. or.).

A. Gastu-aurrekontuaren betetzea, kapitulu ekonomikoen arabera, 2012ko abuztuaren 31n (61. or.).

B. Gastu-aurrekontuaren betetzea, departamentuen arabera, 2012ko abuztuaren 31n (61. or.).

C. Diru-sarreraren 2012ko ekainaren 31ko betetze-maila (63. or.).

D. Aurrekontu ez-finantzarioaren emaitza 2012ko abuztuaren 31n (64. or.).

2. eranskina. Enpresa publikoen sektorea 2012 (66. or.).

Nafarroako Gobernuko Lehenengo Lehendakariorde eta Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko Kontseilariak behin-behineko txostenaz egindako gogoetak (68. or.).

Kontuen Ganberak Nafarroako Gobernuko Lehenengo Lehendakariorde eta Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko Kontseilariak behin-behineko txostenaz egindako gogoeti emandako erantzuna (68. or.).

I. SARRERA

2012ko ekainaren 18an, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, Nafarroa Bai, Bildu-Nafarroa eta Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeen eskatuta, Kontuen Ganberari "aurrekontuaren 2012ko ekainaren 30eko betetze-mailari buruzko auditoria"-txosten bat emateko urgentziaz eskatzea erabaki zuen.

Erabaki horretan egiteko lan horren edukia edo norainokoa zehazten da, eskaera egiterakoan esaten baita "zehazki adierazteko:

a) Nafarroako Ogasunak bigarren hiruhilabetea bukatzean dituen diru-sarrera fiskalak eta ez-

fiskalak, zerga-figura bakoitzaren aurrekontua zenbateraino bete den zehazki adieraziz.

b) Gobernuaren departamendu bakoitzean izan diren gastuak eta aurrekontuaren betetze-maila.

c) Nafarroako Foru Komunitatearen zorpetze publikoaren zenbatekoa eta kontabilitate-egoera, betebeharrak, hala nola itzaleko bidesariak eta enpresa eta fundazio publikoen zorrak, ongi bereizitako ataletan aipatuz".

Eskaera horri erantzuteko, Kontuen Ganberaren 2012rako Urteko Programaren barruan sartu da lan hori.

Foru Ogasunaren ahalik eta ikuspegirik osoena emateko, erakunde horrek 2012ko ekainaren 30ean zuen finantza-egoera ere aztertu da.

Landa-lana auditoriako bi teknikarik eta auditor batek osatutako talde batek egin zuen, 2012ko ekainaren 23tik irailaren 10era bitartean. Era berean, Kontuen Ganberaren zerbitzu juridikoen, informatikoen eta administratiboen laguntza izan dugu.

Txostenak zazpi atal ditu, sarrera hau barne. Bigarren atalean lanaren helburuak adierazten dira; hirugarrenean lanaren norainokoa eta horretarako izan diren mugak. Laugarrenean Nafarroako Gobernuaren 2012ko ekitaldirako aurrekontuari buruzko iruzkin batzuk ematen dira. Lan honetatik atera diren ondorio orokorrak bosgarren atalean adierazten dira. Seigarren atalean aurrekontuaren 2012ko ekainaren 30eko betetze-maila adierazten duten koadro nagusien laburpen bat eskaintzen da. Eta, azkenik, zazpigarren atalean, lan honetatik atera diren ondorio nagusiak adierazten dira.

Txosten honekin batera, beronen lagungarri gisa, 2012ko abuztuari dagokion aurrekontuaren⁽¹⁾ itxieraren laburpen-koadro batzuk eta iruzkin batzuk eta Enpresa Publikoen Sektorearen osakeraren koadro bat eskaintzen dituzten bi eranskin eskaintzen dira.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Nafarroako Gobernuko, haren erakunde autonomoetako, haren sozietate eta fundazio publikoetako langileei, lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik. Erakunde horietako kontabilitateko, dirubilketako, kontroleko eta finantza-zuzendaritzako lantalde guztietako langileei batez ere.

(1) Txosten honek hartzen duen aldiaz kanpo dago.

II. HELBURUA

Lan honen helburua, aplikatzekoa den araudia-
ren arabera eta aipatu den Parlamentuaren eskae-
ra kontuan hartuta, Nafarroako Gobernuaren
2012ko ekainaren 30eko aurrekontu-betetzearen
maila eta une horretan zuen egoera ekonomiko
eta finantzarioa eta zorpetze-maila ikuskatzea da.

Auditoriako Nazioarteko Arauen arabera, aurre-
kontuaren epe barruko egoerari buruzko informa-
zioaz⁽²⁾ egiten diren lanek ez dute finantza-audito-
riaren izaerarik, berrikusketa mugatu baten izaera
baizik; horregatik, hain zuzen, ezin eman daiteke
bitarteko egoera horien adierazgarritasunari
buruzko auditoriazko iritzirik.

Epe barruko finantza-informazioaren berri-
keta mugatuak bitarteko finantzen egoera-orrietan
akats nabarmenik ez dagoelako segurtasun muga-
tu bar izateko planifikatzen eta egiten dira. Berri-
kusketa horien helmena auditoria baten baino
askoz mugatuagoa izaten da.

Horregatik, bada, irismen mugatuko proposa-
men honen helburua, gai hauei buruzko iritzi bat
eskatzea da:

- Ea Nafarroako Gobernuak 2012ko ekainaren
30erako aurkeztutako aurrekontuaren itxierak ez
duen data horretako gastuen eta diru-sarreraren
aurrekontuaren likidazioaren irudi zuzena okertzen
duen akats nabarmenik, aplikatzekoa den finantzei
buruzko informazio publikoari buruzko lege-esparru-
ari eta, bereziki, hartan jasotzen diren kontabili-
tateko printzipio eta irizpideei jarraituz betiere.

- Zein den Foru Ogasunaren 2012ko ekainaren
30eko finantza-egoera.

- Zenbatekoa den Foru Sektore Publikoak data
horretan duen zorpetze publikoa.

III. NORAINOKOA ETA MUGAK

III.1. NORAINOKOA

Parlamentuaren eskaera kontuan hartuta, eta
epe barneko informazioaren gain egiten den berri-
kusketa mugatu bat dela kontuan hartuta, hau izan
da gure lanaren norainokoa:

a) Aurrekontuen itxiera 2012ko ekainaren
30ean.

Lan hau Nafarroako Gobernuak 2012ko ekai-
naren 30ean egindako aurrekontuen itxieraren pro-

zeduraren eta hari dagozkion zenbatekoen arra-
zoizkotasuna aztertzen zentratu da; informazio
hau jasotzen du itxiera horrek:

- Diru-sarreraren aurrekontua: Aurrekontuaren
betetze-egoera metatua 2012ko ekainaren 30ean,
zerga-irudien arabera eta gainerako kapituluaren
arabera, eta 2011ko ekitaldi-zati berarekin aldera-
tzea.

- Gastuen aurrekontua: 2012ko ekainaren 30a
arte egindako aldaketak, departamentuz departa-
mentu.

- Gastuen aurrekontua: 2012ko ekainaren 30a
arte egindako aldaketak, kapitulu ekonomikoz
kapitulu ekonomiko.

- Gastuen aurrekontua: Aurrekontuaren bete-
tze-maila, ekainaren 30ean, eta 2011ko emaitzekin
alderatzea.

- Gastuen aurrekontua: Aurrekontuaren bete-
tze-maila, ekainaren 30ean, kapitulu ekonomikoz
kapitulu ekonomiko, eta 2011ko emaitzekin aldera-
tzea.

- Inbertsio errealak: Aurrekontuaren betetze-
maila, ekainaren 30ean, eta 2011ko emaitzekin
alderatzea.

- Hainbat urtetarako gastuak, departamentuz
departamentu.

- Hainbat urtetarako gastuak, kapitulu ekonomi-
koz kapitulu ekonomiko.

Ogasun Publikoaren Foru Legeak agintzen due-
nez, Nafarroako Gobernuak Nafarroako Parlamen-
tuari hiru hilabetez behin aurrekontuaren egoeraren
berri eman behar badio ere, gaur egun gardentasun
handiagoa izateko dauden eskakizunek eta aurre-
kontuaren betetze-maila kontrolatzeko konpromiso-
ek, aurrekontuaren informazioaren itxiera metatu
bat hilero egitea komeni dela planteatu dute.

Horretarako otsailaren 29ko 42/2012 Foru Agin-
dua, itxiera hori egiteko prozedura arautzen
duena, eman zen. Foru Agindu hori Kontabilitate
Zerbitzuak prestatu du, eragiketa nagusiak eta
hileroko itxiera bakoitzean adierazi behar diren
kontrasteak jasoko dituen protokolo bat prestatze-
ko eta, behin-behinekoz bada ere, prozesu horre-
tako itemak finkatzeko.

Itxiera horiek hilero argitaratzen dira Nafarroa-
ko Gobernuaren Web orrian⁽³⁾, eta hilabete horre-

(2) Epe barruko finantza-informazioa erakunde baten urte osoko kontabilitate-aldia baino epe laburrago bati buruzko finantza-
informazioa, osoa edo laburtua hartzen duen informazio multzoari deitzen zaio.

(3) Ikus: www.navarra.es/presupuestos/aurrekontu-betetzearen-hileroko-txostena.

tako eta 2011ko hilabete bereko aurrekontu-egoera alderatuz aurkezten dira, aurkeztu ere.

Egin den berrikuste honetan, itxiera horretan aplikatu den prozedura bereziki aztertzeaz gainera, informazio hori Gobernuaren kontabilitate-sistematik data horretan jasotako datuekin, Diru-bilketako Zerbitzuak bidalitako informazioarekin eta Departamentu eta Erakunde Autonomo guztiei data horretan zuten aurrekontu-egoeraz informazioa eskatuz bidali zitzaizen zirkularrari erantzunez bidalitako informazioarekin kontrastatu da.

Kontrastea egiteko beste prozedura hauek ere aplikatu dira:

- Aurrekontura aplikatzeko dauden zordunen kontuen jarraipena, 2011ko abenduaren 31tik 2012ko ekainaren 30era.
- 2011ko ekitalditik 2012ko aurrekontura aldatutako gastuen ondorioak kuantifikatu eta aldaketa horrek eraginen bat duen kontuek ekainaren 30a arte duten egoera aztertu.
- Lagin-hautaketa bat egin da 2012ko uztailean kontabilizatutako gastu eta diru-sarrerako eragiketa nagusien artean, zenbateko horien sortzapendataren egokitasuna egiaztatzeko.

b) Foru Ogasunaren 2012ko ekainaren 30eko egoera.

Foru Ogasunaren finantza-egoera ezagutzeko, ekainaren 30eko aurrekontuaren informazioa eta SAP kontabilitate-sistemak eskaintzen duen informazioa, biak hartu dira oinarritzat. Informazio horrekin, bai aurrekontuari bai finantzaketari dagozkion zenbait adierazleren bilakaera ezagutu da, batez ere.

Atal hau osatzeko, 2012ko ekainaren 30eko aurrekontu-defizitaren estimazio bat egiten da, nazioko kontabilitate-terminoetan, kontsolidazio-perimetroa eta egin beharreko doikuntzak eginda, ondoko c atalean adierazten den bezala.

c) Foru Sektore Publikoaren zorpetzea 2012ko ekainaren 30ean.

Parlamentuaren eskariaren arabera, Foru Sektore Publiko osoarentzat neurtu da magnitude hau, bai 13/2007 Foru Legeak, Nafarroako Foru Ogasunarenak zehaztutako terminoetan zein kontabilitate nazionalaren terminoetan.

Foru Sektore Publikoa honakoek osatzen dute, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko 13/2007 Foru Legearen arabera:

- Foru Komunitateko Administrazioak eta hari atxikitako erakunde autonomoek.
- Nafarroako Parlamentuak eta haren mendeko organoek; hau da, Kontuen Ganberak eta Arartekoak.

• Nafarroako Foru Komunitatearen eta haren erakunde publikoen sozietate publikoak dira, apirilaren 4ko Nafarroako Ondareari buruzko 14/2007 Foru Legearen arabera, Foru Komunitatearen Administrazioak edota haren erakunde publikoek, zuzenean edo zeharbidez, haien kapital sozialaren gehiengo absolutua dutenak; era berean, sozietate publikotzat hartzen dira Foru Komunitatearen Administrazioak edota haren erakunde publikoek sozietate horietako administrazio-, zuzendaritza edota zaintza-organoetako kideen erdia baino gehiago izendatzeko ahalmena dutenak; edota sozietateak jaulkitako partaidetzei dagozkien botoen gehiengoa aipatuek dutenak.

Sektore Publikoa Antolatze eta Berregituratzeko prozesuaren emaitza gisa, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoak (NEKP) –multzo horretako sozietate nagusia dela–, gehiengoa administrazioak duen beste 13 enpresek –lehendik zeuden 33 enpresak 13 enpresa berri bateratu izanaren ondorioz–, lehengo egoeran jarraitzen duten beste bost enpresak eta 2011n aldi baterako sartutako enpresa berri batek osatutako Enpresa Publikoen Sektorea eratzen da. Laburtuz, bada, honela dago osatuta:

EPSaren osaera	Zenbat
NEKP	1
Akziodun nagusia administrazio publikoa duten sozietate berregituratuak	13
Akziodun nagusia administrazio publikoa duten gainerako sozietateak	6
Guztira	20

- Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde publikoen Fundazio Publikoak; zazpi dira, gaur egun.

Kontabilitate nazionalako terminoetan, Foru Sektore Publikoaren muga edo kontsolidazio fiskaleko perimetroa zehaztea ezinbestekoa da Nafarroako Gobernuak 2012ko ekitaldirako hartutako defizit- eta zor publikoko egoerak egiaz betetzen diren egiaztatu ahal izateko; Espainiako Administrazio Publiko guztietan aurrekontuen egonkortasuna lortzeko baldintzak betetzen direla bermatzeko helburuarekin.

Horrela bada, Foru Sektore Publikoa Kontabilitate Sistema Nazionalaren arabera (KSN'95) Administrazio Publikoaren izaera duten erakunde/unitateek osatzen dute; hauek dira zehazki:

- Foru Komunitateko Administrazioak eta haren erakunde autonomoek.

- Nafarroako Parlamentuak eta haren mendeko erakundeak.

- Nafarroako Unibertsitate Publikoak.

- Gehienez merkataritza bidezko diru-sarrerez finantzatzen ez diren zerbitzuak eskaintzen edo ondasunak produzitzen dituzten Foru Komunitatearen sozietate publikoak.

Horrela bada, KSN'95-aren arabera Administrazio Publikotzat hartzen dira Enpresa Sektore Publikoan sartuta dauden 20 enpresetatik 11:

Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, SLU (NEKP)

Centro Navarro de Autoaprendizaje de Idiomas

Centro Europeo de Empresas e Innovación, SL.

Ciudad Agroalimentaria de Tudela, SL.

Gestión Ambiental de Navarra, SA.

Instituto Navarro de Tecnologías e Infraestructuras Agroalimentarias, S.A.

Navarra de Deporte y Ocio, .L.

Navarra de Servicios y Tecnologías, SA.

Sodena.

Tracasa.

Start Up .

- Badira Foru Komunitateko 13 fundazio, sektore publikoarekiko ekonomiazko mendekotasuna

dutenez, Administrazio Publikotzat hartzen direnak: zehazki publikoak diren 7 fundazioak gehi ekonomikoki Gobernuaren eta kontsolidazio-perimetroa osatzen duten gainerako erakunde publikoen mendekoak diren beste 6 fundazio. Honako hauek dira, zehazki:

a. Zehazki publikoak diren fundazioak:

Baluarte Fundazioa.

Miguel Servet Fundazioa.

Nafarroako Ondare Historikoa zaintzeko Nafarroako Fundazioa.

Nafarroako Bikaintasunerako Fundazioa.

Energia Berriztagarrien Prestakuntzarako Fundazioa.

Pertsona Helduen Tutoretzarako Fundazioa.

Ikus-entzunezko Arteen eta Zinematografiaren Nafarroako Institutu Fundazioa.

b. Mendekotasun ekonomikoa duten beste fundazio batzuk:

Nanoteknologiak Ikertzeko eta Garatzeko Fundazioa.

Itoiz-Canal de Navarra Fundazioa.

Nafarroako Ingurumen arloko Baliabideen Zentroen Fundazioa.

Cener-Ciemat Fundazioa.

Amado Alonso Fundazioa.

Pablo Sarasate Fundazioa.

Administrazio Publikoko sektorearen zor publikotzat, kontabilitate nazionalari eta gehiegizko defizitaren protokoloari dagokienez, ekitaldiaren bukaeran ordaintzeke dauden sektorearen ordaintzeko betebeharren balio nominala⁽⁴⁾ hartuko da, salbuespen hauek salbu, batez ere:

- Dagozkien finantza-aktiboak administrazio publikoen sektorea osatzen duten unitateen eskuetan dauden pasiboak.

- Merkataritza-eragiketak.

Zor horri sektore pribatuak elkarte publiko-pribatuen formularen bitartez finantzatu, eraiki eta kudeatutako azpiegiturengatik egotzitakoa gehituko zaio, Europako araudiak ezarritako baldintzak betetzen dituztenean –Nafarroako kasuan Nafarroako Kanalaren ureztapeneko obrak eta Pirinioetako autobideko obrak dira, zehazki horiek–.

(4) Betebeharretan, bonuetan, maileguetan eta gordailuetan oinarrituak, batez ere.

Ekainaren 30eko zorraren zenbatekoa Estatuko Administrazioaren Kontu-hartzaitza Nagusiaren eta Espainiako Bankuaren informaziotik eta informazio hori sozietate publikoei –NEKPren bidez– eta fundazio publikoei bidalitako zirkularrei emandako erantzunekin alderatuz atera da.

Metodologia orokor gisa, sektore publikoaren auditoriari dagokionez Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoen Koordinazio Batzordeak onetsiriko eta Kontuen Ganbera honek bere fiskalizazio-eskuliburuan garaturiko printzipioei eta arauari jarraituz egin da lan hau, eta azterlanaren helburuen eta inguruabarren arabera beharrezkotzat jo ditugun prozedura tekniko guztiak erabili dira.

III.2. MUGAK

Gure lan honek izan dituen mugak iturburu hauetatik heldu dira:

- Nafarroako Gobernuak aurkeztu duen tarteko informazioa aurrekontuaren betetze-mailan zentratzen da soil-soilik.

- Hilabetez-hilabete bilakaeraren azterketa 2011 eta 2012 urteetako lehenengo sei hilabeteak hartzen dituen aldira mugatuko da, eta ezingo da beste urte batzuen azterketarik egin, lehenago horrelako hileroko itxierarik egiten ez zelako.

- SAP kontabilitaterako eta aurrekontuetarako aplikazioaren eta beste hirugarren batzuen kontabilitate-sistema lagungarriaren artean loturarik ez da; muga horrek, Kontuen Ganbera honek orain arteko txostenetan behin eta berriro ohartarazi duenez, eragin handia du Nafarroako Zerga Ogasunak kudeatzen dituen zergen, tasen eta presioen kontabilitatearen eta aurrekontuaren jarraipena egiteko.

- Fakturen erregistro orokor bat ez izateak⁽⁵⁾ eta “aurrekontuari aplikatzeke dauden eragiketen zordunak” izeneko kontuak oso gutxi erabiltzeak⁽⁶⁾ ez digu uzten ekainaren 30a arte sorturiko gastu guztiak aurrekontuan behar bezala jasota daudela zalantzarik gabe egiaztatzen. Hala eta guztiz ere, departamentuei bidalitako zirkularren bitartez muga hori, partez bederen, gainditu ahal izan da.

- 2012ko ekainaren 30eko finantzaketa-premiak zehaztu ahal izateko mugak izan dira, alde batetik, kalkulu hori ekitaldiaren erdian egin beharra, eta bestetik, premia horiek definitzeko kontabilitate-irizpide argi eta uniformerik ez izatea eta aldi berean 2012rako Nafarroako BPGaren zenbatekoaren estimazioan desberdintasunak izatea.

IV. NAFARROAKO GOBERNUAREN 2012ko EKITALDIRAKO AURREKONTUARI BURUZKO IRUZKINAK

Nafarroako 2012rako aurrekontuak abenduaren 28ko 19/2011 Foru Legearen bidez onartzen dira. Hona haien ezaugarri garrantzitsuenak:

a) Aurrekontu hori prestatzeko oinarria izan ziren ildo makroekonomikoak –2011ko irailean aurkeztuak– eta giltzarriak hauek izan ziren:

- Nafarroako ekonomiak ehuneko 1,9ko hazkunde izango zuela.

- Enpleguak urteko batez beste ehuneko 0,8ko hazkunde izango zuela.

- Kontabilitate nazionaleko terminoetan, ehuneko 1,3eko defizita izango zela, Nafarroako BPGaren gain. Urte horretarako begizko jotako BPGa 19.768 milioikoa izango zela.

- Finantzaketaz kanpoko gehieneko gastua 3.711 milioikoa izango zela, 2011rako hasieran aurreikusitakoa baino ehuneko hiru txikiagoa. Muga hori kalkulu honetatik ateratzen da:

	(Euroak, milioitan)
Finantzaz besteko diru-sarrerak	3.407
Finantzaketaz kanpoko gastuaren muga (gehieneko gastua)	3.711
Aurrekontuen egonkortasun-helburua betetzeko finantzaketa-beharra (letik IIIra)	304
BPGaren % 1,3ko aurreikusitako defizita	257
Kontabilitate Nazionaleko doikuntzak	
Foru Sektore Publikoa	(87)
AHT lanak	134

(5) Nafarroako Gobernuak erregistro hori baliabide informatiko batez sortzeko erabakia hartu zuen 2012ko irailaren 12an.

(6) Oro har, O-NOZek baizik ez ditu erabiltzen sendagaietarako eta osasun alorreko materialerako.

- Osasuneko, hezkuntzako eta gizarte-babese-ko zerbitzuak mantentzea.

- Ekonomia suspertzeko eta enplegua berreskuratzeko apustua.

- Ekonomiaren egonkortasun faltako egoeraren aurrean zuhur jokatzea.

- Gastu fiskalak ez dira sartzen 2012ko aurrekontuetan.

b) Hauek dira aurrekontu honen oinarrian dauden zenbatekoak:

- Gastuetarako eta diru-sarrerarako hasierako 3.837,72 milioi euroko kredituak; 2011ko aurrekontu doituarekin alderatuta ehuneko 0,2ko gutxitzea hain zuzen.

- Gastu arruntek 3.168,94 milioi euro egiten dute, 2011n baino ehuneko 1,49 gutxiago; kapital-gastuek, berriz, 542,05 milioi euro egiten dute; hauek gehiago jaitsi dira, ehuneko 10,64, kapital-transferentzietan dagokienez batez ere.

- Zerga bidezko diru-sarreraren aurreikuspenak 3.198,45 milioi eurokoak dira, 2011n izan zirenak baino 1,85 gutxiago, hain zuzen.

- Diru-sarrera arruntek, batera harturik, 3.380,95 milioi euro egiten dute, 2011n izan zirenak baino ehuneko 3,62 gutxiago.

- Aurreikusita dagoen zorpetzea 408,25 milioi eurokoa da, 2011ko beharren ehuneko 41,46 gehiago.

- Laburtuz, bada, 2012ko aurrekontuak zenbateko hauek ditu:

	Euroak, milioitan	
	Diru-sarrerak	Gastuak
Arruntak	3.380,95	3.168,94
Aurrezkia		212,01
Kapitala	26,98	542,05
Kapital-defizita		(515,07)
Finantza-aktiboak	21,53	23,12
Finantza-aktiboen defizita		(1,59)
Finantza-pasiboak	408,25	103,60
Zorpetze garbia		304,65

Zorpetzeko aurreikuspen hauen banaketa era honetara da: 134 milioi abiadura handiko trenbide-rako obretarako, 103,2 milioi euro zorraren ordainketa-muga berriro finantzatzeko eta 107,82 milioi euro aurrekontua BPGaren ehuneko 1,3ko mugaren barruan orekatzeko.

2011ko abenduan berriro ezartzen da ondarearen gaineko zerga, eta hala diru-sarreraren aurrekontuaren aurreikuspenak 20 milioi euroz handi-

tzen dira. 2012ko otsailean Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko Zergaren tasa berriak aplikatzen dira, eta diru-sarreraren zenbatekoa 45 milioi euroz handitzen da.

2012ko apirilean, egoera ekonomikoa ikusirik, aurrekontuaren oinarriko zenbateko makroekonomikoak berrikusten dira⁽⁷⁾, eta balio hauek ematen dituzte, eguneraturik:

	2012	
	Aurrekontua (2011ko iraila)	Aurrekontua (2012ko apirila)
BPGa (zenbatekoa milioitan)	19.768	18.950
BPGaren aldaketa aurreko ekitaldian	% 1,9	% -1,2
Urteko batez besteko enplegua	% 0,8	% -2,4
Defizit-helburua/ BPG ¹	% -1,3	% -1,5

(7) 2012ko martxoaren 31n, Foru Komunitateko Administrazioaren finantzaketa-premiak 268 milioi eurokoak dira, urte horretarako aurreikusita zegoen BPGaren ehuneko 1,44.

(8) Aurrekontuen egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzko abenduaren 2/2012 Lege Organikoa indarrean jarri delarik, Autonomia Erkidegoei defizit handiagoa izateko eskubidea ematen zaie eta horretarako muga BPGaren ehuneko 1,3tik 1,5era aldatzen da.

Eguneratze horretan ez dago jasota Nafarroako Gobernuaren finantzaketaz kanpoko gastuaren gehieneko muga formalki aldatu zenik.

Egoera ekonomiko txarraren, diru-sarreraren bilketa murriztu izanaren –diru-sarrera fiskalak batez ere– eta defizitaren muga Kontabilitate Nazionala-

ren terminoetan BPGaren ehuneko 1,5eraino jaso izanaren ondorioz, Nafarroako Gobernuak ekonomia eta enplegua suspertzeko eta defizit-helburu hori betetzeko helburua duten zenbait neurri hartzen ditu 2012ko maiatzean. Neurri horien ondorioz eratzten diren kopuruak hauek dira:

	(Euroak, milioitan)
Diru-sarrerak 2012ko apirilean	(75,5)
Baimendutako defizita ehuneko 1,3tik 1,5era jasotzea	21,6
DEFIZITA 2012ko apirilean	(53,9)

Diru-sarrerak gutxitze hori zerga bidezko diru-sarrerak 69,76 milioi gutxiago direlako eta bestelako finantzaketaz kanpoko diru-sarrerak 5,74 milioi euro gutxiago direlako gertatzen da.

Defizitaren handitze hori beste aurreikuspen hauen bidez berdintzen da:

	(Euroak, milioitan)
Diru-sarreraren handitzea	+27
Osasunerako zentimoa	8
Tabakoa	2
2012ko osagarrizko aitormenen pizgarriak ("amnistia fiskala")	14
Sozietateen gaineko zerga	3
Gastuen gehitzea:	+33,5
Tokiko Azpiegituren Plana –lehentasuna duten lanak–	1
Enplegua sustatzeko plana	12,5
Ekonomia eta enplegua sustatzeko Plana	20
Gastuen murrizketa	(60,4)
Langileria-gastuak	(25)
Estatuaren finantzaketarik ez dagoelako gauzatzen ez diren gastuak (Mendekotasuna eta Enplegu Politika Aktiboak)	(20,2)
Estatu osorako aurreikusitako aurrezpen-neurriak (Hezkuntza eta Osasuna) (1)	(15,2)

(1) Nafarroako Parlamentuak errekurtsioa jarri du Auzitegi Konstituzionalean neurri horiek Nafarroan aplikatzearen kontra.

2012ko maiatzean Gobernuak plan bat onartu zuen orubeak eta lur-sailak saltzeko, era horretan finantza-baliabideak eskuratzeko; 10 milioi euroko diru-sarrerak egitea begiz jo zen.

2012ko ekainaren 20an, Nafarroako Gobernuak beste 132 milioi euroko defizit-gainerakin baten

berri ematen du, eta, horrenbestez, 132,45 milioi euroko aurrekontu-doiketa bat egitea erabakitzen du, zerga bidezko diru-sarrerak nabarmen urritu direlako justifikatuz. Doikuntza hori era honetan banatzen da:

	Doikuntzaren zenbatekoa (milioikotan)	Aurrekontu bateratuaren gaineko doikuntza (%)
Ondasun arruntak eta zerbitzuak	15,01	11,84
Transferentzia arruntak	47,28	15,46
Inbertsioak	25,32	23,68
Kapital-transferentziak	34,82	19,46
Suspertze-planaren parte bat ezabatzea	10	50
Guztira	132,45	

Oraingo honetan ere ez dago jasota Nafarroako Gobernuaren 2012rako gastuaren muga eguneratu denik.

Ekainaren 1eko Ekonomia eta Ogasuneko Kontseilariaren 304/2012 Foru Aginduaren bidez, Nafarroako 2012ko aurrekontuetatik, 132 milioi

euro ezin direla gastatu erabakitzen da. Txosten hau prestatzen ari den unean, eta kontabilitate-sistemak ematen duen informazioaren arabera, 85,7 milioi euro daude blokeatuta; zenbateko hori honela dago banatuta, kapituluz kapitulu eta departamentuz departamentu:

(Euroak, milioitan)		
Kapitulua	2012-SAP	Portzentajea
Transferentzia arruntak	33,48	39
Kapital-transferentziak	21,18	25
Ondasunak eta zerbitzuak	16,30	19
Inbertsio errealak	14,72	17
Guztira	85,68	100

Departamentua	2012-SAP	Portzentajea
Nekazaritzaren Gar., Ind., Enplegua eta Ingurumena	32,79	39
Ekonomia eta Ogasuna	12,58	15
Lehendakaritza, AAPP eta Barne Dep.	7,97	9
Sustapena eta Etxebizitza	8,04	9
Hezkuntza	11,76	14
Osasuna	0	0
Gizarte Politika	6,81	8
Kultura	3,62	4
Nafarroako Parlamentua	2,11	2
Guztira	85,68	100

Doikuntza hau, 2012ko maiatzeko aurrekontuaren itxiera eginik, zerga bidezko diru-bilketaren data horretara bitarteko bilakaeratik (diru-sarreraren aurrekontuko 1. eta 2. kapituluak) eta 2012 osoan izango dela begiz jotako bilakaeratik ateratzen da. Emaitzak ondoko koadro hauetan erakusten dira:

a) 2012ko urtarriletik maiatza bitarteko **dirubilketa likido metatua**, 2011n data berberetan izan zenarekin alderatuta:

(Euroak, milioitan)			
Dirubilketa likido metatua	2012	2011	2012/2011 aldea (%)
Urtarrila	4	35,7	-89
Otsaila	534,5	564	-5
Martxoa	576,3	694	-17
Apirila	874,6	992	-12
Maiatza	953,7	1.102	-13
Ekaina	1.296,7	1.302,4	-0,44
Uztaila	1.346,3	1.362,1	-1,16
Abuztua	1.721,7	1.828,9	-5,86

Hau da, 2012ko maiatza arte, dirubilketa likidoa ehuneko 13 urritu zen. Ekaineko datuak sartzen baditugu, ordea, dirubilketa hori ehuneko 0,44 bainik ez dela urritu ikusten da; abuztuko datuak sartuta, urritze-portzentajea ehuneko sei ingurukoa da.

Abuztuko datu horietan kontuan hartu behar da, ordea, hirugarren hiruhilabetekoan BEZaren eraginez izango den doikuntza, urrian izango dena.

b) **2012an izango den zerga bidezko dirubilketaren aurreikuspena** eta aurreko urteetan izan zirenekiko alderaketa.

Urtea	Aurrekontua	Dirubilketa likidoa	(Euroak, milioitan)
			DL/Aurrekontua portzentajea
2008	3.638	3.147	-13
2009	3.304	3.002	-9
2010	3.049	2.836	-7
2011	3.258	3.103	-5
2012 (aurreikuspena)	3.198	3.011	-6

Ekaineko datuak kontuan hartuta, data horretarako 2012rako aurreikusita zegoen guztiaren ehuneko 43 bildu da; 2011n ehuneko 42koa zen portzentaje hori. Abuztuko datuekin, portzentaje horiek ehuneko 57 eta ehuneko 59 dira, hurrenez hurren.

3.011 milioi euroko diru-sarreraren aurreikuspena mantendu egiten da 2012ko abuztuko dirubilketa likidoari dagozkion datuak ezagutu arte, Gobernuak emandako informazioaren arabera. Abuztuko datu horiek argitaratutakoan, urritzearen zenbatekoa ehuneko 6,5-7 bitartean kokatzen du kontseilariak.

Beste alde batetik, 2012ko abuztuan 2012ko bigarren hiruhilabetekoan Nafarroako BPGak izandako bilakaerari buruzko datuak argitaratzen dira; urte batetik bestera ehuneko 1,4 urritzen da, eta 2012ko urtearen bukaerarako BPGa ehuneko 1,5 urrituko dela begiz jotzen da. Estimazio berri honekin, bada, 2012ko bigarren hiruhilabetekoko BPGa 18.329 milioi eurotan kokatzen da.

Azkenik, ekainaren 13ko 20/2012 Errege Lege-dekretua, aurrekontuen egonkortasuna bermatzeko eta lehiakortasuna bultzatzeko neurri buruzkoa, onartu izana azpimarratu behar dugu. Arau hori argitaratzeak eragin hauek izango ditu, batez ere, 2012ko aurrekontuan.

- BEZ bidezko dirubilketa 10,6 milioi inguruz emendatuko da.

- Tabakoaren gaineko zergaren bidezko dirubilketa 0,5 milioi gehiagokoa izango da.

- Gastua urritu egingo da, enplegatu publikoen abenduko paga gehigarria "kentzen" delako: 70 milioi.

Erabiltzeko baliabide gehiago izango da: 81,1 milioi inguru.

Baina era horretan egiten diren estimazioak berrikusi beharra dago, arrazoi hauengatik:

- Paga gehigarria ez emateak⁽⁹⁾ Nafarroako Gobernuaren PFEZ bidezko diru-sarrerak urritzea ekarriko du, aldi berean; Gobernu Zentralak egindako estimazioen arabera, aurrezten den diruaren ehuneko 19 inguru urrituko da horregatik. Hau da, aurrezki garbia 57 milioi eurokoa izango da Nafarroako Gobernuarentzat.

- Paga gehigarria ez emate horrek Nafarroako Gobernuko enplegatu publikoen⁽¹⁰⁾ aldetik kontsumoa urritzea eragingo du, eta horrek, bere aldetik, BEZ dirubilketa eta zerga bereziengatikoa gutxitzea ekarriko du, batez ere.

- Egoera ekonomikoak ez du segurtatzen BEZ tasak jasota gaur egungo kontsumo-maila mantenduko denik eta horrenbestez zerga horren bidez diru gehiago bilduko denik. Horregatik, zenbaitek zalantzan jartzen du tasen igoera horrek egiaz zerga horren bidez diru gehiago biltzea ekarriko duenik.

(9) Nafarroako toki entitateetako eta Estatuko Administrazio Orokorrek Nafarroan dituen langile publikoen eragina kontuan hartu gabe.

(10) *Idem.* 9. oharra.

• Eragin negatiboa izango du Foru Komunitatearen BPGaren gainean, bi zentzutun:

a) Familien eta administrazio publikoen kontsumoa urrituz, BPGa ere urritu egingo delako.

b) Sektore publikoaren produkzioaren balioa soldatapeko langile publikoen lansarien guztirako baturaren arabera neurtzen da. Batura hori urritzen bada, BPGaren zenbatekoa ere neurri berean urrituko da.

BPGak izan lezakeen urritze horrek okerragotu lezake Nafarroako Gobernuaren defizitaren eta zor publikoaren arteko erlazioa, kontabilitate nazionalen terminoetan, bi magnitude horiek eskualdeko BPGaren gain neurtzen baitira.

Horrela, bada, Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioan eragina duten defizita betetze-ko exijentziak, kontabilitate nazionalaren terminoetan, hauek dira 2015 arte:

Ekitaldia	Ahalmena (+) / Finantzaketa beharra (-) (BPG portzentajea)
2012	- 1,5
2013	- 0,7
2014	- 0,1
2015	+ 0,2

Eta zor publikorako muga hauek jarri dira 2012 eta 2013rako:

Ekitaldia	Zorra guztira	BPG portzentajea
2012	2,745	14,77
2013	2.904	15,50

V. ONDORIOAK ETA AHOLKUAK

Egindako lanaren norainokoaren arabera, Nafarroako Gobernuaren 2012ko ekainaren 30eko aurrekontu-itxiera aztertu dugu; hori prestatzeko ardura eta horren edukiaren erantzukizuna Gobernuari dagozkio; horretan biltzen den informazioa Txosten honen VI. atalean dago laburbilduta.

Ondoren adierazten diren ondorioak, III. atalean adierazi diren mugak kontuan hartuz gainera, ekitaldi ekonomiko baten barruan denbora jakin bat, 2012ko lehenengo sei hilabetekoa, aztertze-aterak direla kontuan hartuz kokatu behar dira dagokien testuinguruan; era berean, ez dira kontuan hartzen 2012ko ekainaren 30az geroztik hartutako aurrekontua doitzeko neurrien ondorioz eta ezta gaur egungo egoera ekonomiko aldakorra ere. Horregatik, ekitaldi horren bukaeran egiaztatuko edo gezurtatuko dira ondorio horiek.

Egin den berrikusketa mugatu honen emaitza gisa, beraz, ondorio hauek ateratzen dira:

V.1. AURREKONTUAREN 2012ko EKAINAREN 30eko BETETZE-MAILARI BURUZKO ONDORIOA

Nafarroako Gobernuak 2012ko ekainaren 30erako aurkeztutako aurrekontuaren itxierak ez du data horretako gastuen eta diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioaren irudi zuzena okertzen duen akats nabarmenik, aplikatzekoa den finantzei buruzko informazio publikoari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, hartan jasotzen diren kontabilitateko printzipio eta irizpideei jarraituz betiere. 2012ko ekainaren 30eko betetze-mailan aurkeztzen diren gastuen eta diru-sarreraren multzoa bat dator, oro har, Nafarroako Gobernuaren data horretako kontabilitate-datuekin.

Nolanahi ere, egin den lanaren ondorio gisa, esan beharra dugu aurrekontuaren itxiera horretan eragina izan dutela puntuok:

• Aurrekontuaren betealdi honetan 2011ko 55,4 milioi euro sartu dira, kreditu faltaz edota kontusailak blokeatu zirelako zegoen ekitaldiko aurrekontuan sartu ezin zirelako. Zenbateko hori 2012ko ekaina arteko gastu osoaren ehuneko 3,1 da.

Beren izaera ekonomikoaren arabera, kapitulu hauetan jasotzen dira gastu horiek, milaka eurotan:

Kapitulua	Zenbatekoa
Langileak	1.259
Ondasun eta zerbitzuetako gastuak	28.329
Transferentzia arruntak	18.532
Inbertsio errealak	4.139
Kapital-transferentziak	3.119
Guztira	55.378

Departamentuz departamentu bereizirik, ehuneko 79 Osasunari dagokio, ehuneko 10 Sustapenari eta Etxebizitzari, eta ehuneko 8 Lehendakari-tzari eta Administrazio Publikoei.

- Departamentuei bidalitako zirkularrei emandako erantzunaren eta egindako lanaren arabera, sei hilabeteko epe horretan badira 27,52 milioi euroko gastuak, ekainaren 30eko betetze-mailan sartu ez direnak, aldeztu aurretiko tramitazio-fasean daudelako batez ere⁽¹¹⁾, hau da, formalitatearen

bat betetzeko, kreditua eskura izateko zain edo kontusailak blokeatuta daudelako, alegia. Ekainaren 30ean dauden finantzaketa-premien kalkuluan –kontabilitate nazionalaren terminoetan–, 4,1 milioi-ko doikuntza negatibo bat sartu da, osasun alorreko gastuen aurrekontuari aplikatzeko dauden eragiketengatik.

Sartzeko dauden gastu horiek –milioika eurotan–, kapitulu hauetatik datoz, batez ere:

Kapitulua	Zenbatekoa
Langileak	192
Ondasun eta zerbitzuetako gastuak	13.124
Transferentzia arruntak	6.692
Inbertsio errealak	5.953
Kapital-transferentziak	1.331
Finantza-pasiboak	227
Guztira	27.519

Departamentuka bereizita, Sustapenekoak –14,1 milioi–, Lehendakari-tza –7,1 milioi–, Ekonomia –3,5 milioi– eta Hezkuntza –1,5 milioi– dira gehien nabarmentzen direnak. Gasturik txikiak adierazi dituzten departamentuak Osasunekoak –0,2 milioi– eta Gizarte Politikakoa –0,1 milioi– izan dira.

- Zergei dagokienez, sei hilabete hauetako diru-sarreretan eragina izan dute 2012an lege-eremuan izandako aldaketek, hauek batez ere: BEZari dagokionez Estatuarekin dagoen hitzarmena

aldatzeak, ondarearen gaineko zerga berriro ezartzeak, PFEZ tasa berriek eta sozietateen gaineko zergaren ordainketa zatikatzeko sistema aldatzeak.

- Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariaren ekainaren 1eko 304/2012 Foru Aginduaren bitartez, Nafarroako 2012ko aurrekontuetatik, 132 milioi euro ezin direla gastatu erabakitzen da. Txosten hau prestatzen ari den unean, 85,7 milioi euro daude blokeatuta; zenbateko hori honela dago banatuta, kapituluak, milaka eurotan:

(11) 2012ko irailaren hasieran, aldeztu aurretiko faseko gastua 30,7 milioikoa da.

Kapitulua	Zenbatekoa
Ondasun eta zerbitzuetako gastuak	16.303
Transferentzia arruntak	33.482
Inbertsio errealak	14.716
Kapital-transferentziak	21.180
Guztira	85.681

Departamentuz departamentu, hauek dira blokeo horrek eragin handiena duenak: Landa Gara-pena –ehuneko 38–, Ekonomia eta Ogasuna –ehuneko 15–, Hezkuntza –ehuneko 13– eta Lehendakaritza eta Sustapena –ehuneko 9 bakoitzak–.

V.2. 2012ko EKAINAREN 30eko FINANTZA EGOERA

V.2.1. Aurrekontuen adierazleak

Ganbera honek normalean erabiltzen dituen aurrekontuen adierazleak 2011ko eta 2012ko lehenengo sei hilabeteetako epeetara aplikatuz egindako azterketak eman dituen emaitzak ondoko koadro honetan ematen dira (zenbatekoak milaka eurotan, biztanle bakoitzari dagozkion adierazleak salbu⁽¹²⁾, horiek eurotan adierazten baitira):

Adierazleak	2011ko lehen seihilekoa	2012ko lehen seihilekoa
Aitorturiko betebeharrak, guztira	1.763.614	1.795.302
Hasierako gastu-aurrekontuekiko aldaketa %	-5,78	1,18
Likidatutako eskubideak, guztira	1.700.286	1.969.075
Gastuen betetze-maila %	44,70	46,24
Diru-sarrerren betetze-maila %	43,41	50,71
Ordainketak (%)	95,73	98,29
Kobrantzak (%)	96,81	89,95
Gastu arruntak (1etik 4ra)	1.573.667	1.590.539
Funtzionamendu-gastuak (1, 2 eta 4)	1.542.129	1.532.951
Finantza-zama (3 eta 9)	49.538	75.588
Inbertsioetan egindako gastuak (6 eta 7)	161.333	175.944
Finantza-eragiketetan egindako gastuak (8 eta 9)	28.614	28.818
Diru-sarrera arruntak (1etik 5era)	1.357.685	1.521.512
Zerga bidezko diru-sarrerak (1etik 3ra)	1.327.270	1.487.399
Kapital bidezko diru-sarrerak (6 eta 7)	8.470	13.669
Finantza-eragiketen bidezko diru-sarrerak (8 eta 9)	334.131	433.895
Zerga bidezko diru-sarrerak / gastu arruntak %	% 84	% 94
Zerga-bilketa likidoa	1.302.432	1.296.722
Finantzaketaz kanpoko betebeharrak (1-7 kapituluak) A	1.735.000	1.766.483
Finantzaketaz kanpoko eskubideak (1-7 kapituluak) B	1.366.155	1.535.180
Finantzaketaz kanpoko aurrekontu-saldoa	-368.845	-231.303
Aurrezki gordina	-184.444	-11.439
Aurrezki garbia	-233.982	-87.027
Gastua biztanleko (eurotan)	2.747	2.789
Gastu arrunta biztanleko (eurotan)	2.451	2.471
Finantza-zama biztanleko (eurotan)	77	117
Diru-sarrera biztanleko (eurotan)	2.648	3.059
Zerga bidezko diru-sarrerak biztanleko (eurotan)	2.067	2.311

(12) Erreferentziako biztanle kopurua urte bakoitzeko urtarilaren 1ekoa: 642.051 biztanle 2011n eta 643.713 biztanle 2012an.

Datuon azterketatik puntuok nabarmendu nahi ditugu batez ere:

- Lehenengo sei hilabetekoan ekitaldiko gastuen aurrekontuaren ehuneko 46 inguru bete da, eta diru-sarreraren aurrekontuaren ehuneko 51; portzentaje horiek, zenbateko errealetan, 1.795 milioi euro eta 1.969 milioi euro esan nahi dute, hurrenez hurren.

- Egoera hori 2011ko hilabete berberetan zegoenarekin alderatuz gero, gastuak 32 milioi euro handiagoak dira, eta diru-sarrerak 269 milioi gehiagokoak, zorpetze handiagoa izan delako batez ere. 2012ko gastuen betetze-maila 2011koa baino ehuneko 1,54 handiagoa izan da; diru-sarrei dagokienez, berriz, portzentaje hori 7,3 puntu handiagoa izan da.

- Gastuaren izaerari dagokionez, ehuneko 46 transferentziatarako bideratu da, ehuneko 32 langileentzat, ehuneko 4 inbertsioetarako eta ehuneko 5 finantza-zamarako eta beste zenbait finantza-eragiketatarako. Dena batera hartuta, gastuaren ehuneko 88 gastu arrunta da.

- 2011ko lehenengo sei hilabetekoarekin alderatuz, finantza-gastuak –25 milioi–, ondasun eta zerbitzu arruntak –17 milioi– eta kapital-transferentziak –14 milioi– izan dira handitu diren gastuaren kapituluak. Langileena –11 milioi– eta transferentzia arruntena –16 milioi–, berriz, urritu egin dira.

Beraz, gastuaren murrizte handia ikusten da bai langileriarri dagokion kapituluak, bai transferentzia arruntei dagokienean, baina ez da aski ondasun arruntan eta zerbitzuen kapituluak, finantzenean eta kapital-transferentzienean izan den emendioa berdintzeko.

- Departamentuz departamentu bereiziz gero, 2012ko lehenengo sei hilabeteko gastuaren ehuneko 87 Osasun Departamentuan –ehuneko 27–, Ekonomiakoan –ehuneko 19–, Lehendakartzakoan –ehuneko 17–, Hezkuntzakoan –ehuneko 17– eta Gizarte Politikakoan –ehuneko 7– kontzentratzen da. Gehien aldatu direnak departamentu hauek dira:

Aitortutakoa	gastu +/- 2012 / 2011
Lehendakaritza, AAPP eta Barne Dep.	8.096
Ekonomia eta Ogasuna	27.736
Hezkuntza	-31.199
Osasuna	16.407
Sustapena eta Etxebizitza	19.189
Landa Garapena, Industria eta Enplegua	-3.545
Gizarte Politika	-229
Kultura	-1.025

2011ko hilabete berberekin alderatuz, nabarmentzekoa da Hezkuntzako Departamentuaren pisua bi puntuz urritu izana eta Osasuneko Departamentuarena puntu bat handitu izana.

- Diru-sarrei dagokienez, ehuneko 77 zerga bidezkoak dira, eta ehuneko 22 zorpetzetik heldu dira.

- 2011ko lehenengo sei hilabeteekin alderatuta, gehien aldatu diren diru-sarrera aitortuak zergetatik heldu direnak –182 milioi– eta finantza-pasiboak eskuratzetik heldu direnak –100 milioi– dira; urritze nabarmena dute tasek –21 milioi–. Aldaketarik handienak koadro honetan adierazten dira:

Kapitulua	diru-sarrera +/- 2012 / 2011
Zuzeneko zergak	125.669
Zeharkako zergak	55.889
Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	-21.431
Ondare bidezko diru-sarrerak	11.823
Finantza-pasiboak	99.606

Zergei dagokienez, aipatu beharra dago 2012ko ekitaldi honetan berriro ezarri dela Onda-rearen gaineko zerga, eta orain arte 26 milioiko eskubide aitortuak dituela. 2006tik 2009ra bitartean 185 milioi euro bildu ziren zerga honen bidez; horrek Nafarroako Gobernuak 2012ko ekainaren 30ean duen zorraren ehuneko 8 esan nahiko luke.

PFEZ eta Sozietateen zergei dagokien dirubilketaren emendioak ere zerga horietan legeaz egin diren aldaketei zor zaizkie, funtsean.

- Zerga bidezko dirubilketa likidoa 1.297 milioi eurokoa izan da, 2011ko hilabete berberetan izan zena baino 6 milioi euro gutxiagokoa, alegia; ehuneko 0,44 gutxiago, beraz. Zenbateko horretan nabarmentzekoa da Estatuarekiko Hitzarmenean egindako doikuntzengatik emendioa, baina kontuan hartu behar da doikuntza horiek behin-behinekoak direla, 2013an behin betiko likidazioa egin arte. 2012ko abuztuaren dirubilketa likidoa 2011ko aldi berekoa baino ehuneko 5,86 urriagoa izan da.

- 2012ko lehenengo sei hilabeteetan aurreikusita zegoen ia zorpetze osoa eskuratu da, 420 milioi euro, guztira.


- Aurrezki gordinak eta garbiak negatiboak dira oraindik ere, baina horien zenbatekoak 2012an nabarmen urritu direla ikusi da.

- Biztanle bakoitzeko gastua ehuneko 1,5 handitu da 2012an, biztanle bakoitzeko 20 euro, alegia. Gastu arruntak zertxobait mugatu egin direla ikusi da –ehuneko 1eko emendioa izan da–; emendio horren parte bat zorpetzearen finantzazamari zor zaio, biztanle bakoitzeko 77 euro izate-tik 117 euro izatera igo baita, ehuneko 52 gehiago, beraz.

- Biztanle bakoitzeko diru-sarrerak ehuneko 15,5 handitu dira, biztanle bakoitzeko 441 euro gehiago, alegia. Emendio hori zerga bidezko diru-sarreraren emendioari –244 euro– eta zorpetze handiagoari –154 euro– zor zaie batez ere.

- Finantza-kanpoko aurrekontuaren saldoa, alderatzen diren bi aldietan ere negatiboa izan arren, nabarmen hobetu da 2012an, 231 milioi defizita izan baita urte honetan, 2011n izan zen 369 milioi euroko defizitaren aldean. Magnitude hau da kontabilitate nazionalaren terminoetan finantzaketa-premiak kalkulatzeko.

Honela ikusten da, grafikoki:



Urte bateko zein besteko seihilabeteko horietan, bai diru-sarrera arruntak bai kapital bidezko diru-sarrerak –eskubide ez finantzariak, alegia–, ez dira aski izan gastu arruntak eta kapital-gastuak finantzatzeko. Horren ondorioz, kanpotiko finantzaketa bilatu behar izan da finantzaketa-premiak betetzeko. Nolanahi ere, 2012ko lehenengo seihilabetekoan magnitude horiek zertxobait hobetzen direla ikusten da, gastu arrunta zerbait mugatzen delako eta diru-sarrera arruntak handitzen direla-

ko, zergen jokaera hobetzen delako batez ere; alderdi hau, ordea, gehiago zor zaie legedian izandako aldaketei jarduera ekonomikoari berari baino.

Azpimarratzekoa da, orobat, 2012ko abuztuan finantzaketaz kanpoko saldo honek 125 milioi euroko defizita duela, ekaineko datua baino 106 milioi gutxiago, alegia. Laburtuz, bada, bilakaera hau izan du izan du magnitude honek, milaka eurotan:

Aurrekontuko saldo ez finantzarioa	Zenbatekoa	Indizea
2011ko 1. seihilekoa	-368.845	100
2012ko 1. seihilekoa	- 231.303	63
2012ko abuztua	-124.945	34

Beraz, gastua mugatzeko politikari eta diru-sarrera ez-finantzarioen jokaera on samar bati esker, aurrekontuen atal honetako balio negatiboak urritzen ari dira.

- Nafarroako Gobernuak etorkizunerako hitzartutako gastuak, Funtzionarioen Montepioaren betebeharrak aktuarialak eta itzalpeko bidesarrietatik heldu diren gastuak kontuan hartu gabe, 2.857 milioi eurokoak dira. Zenbateko horren ehuneko 91 Gobernuaren zorpetzearen ondoriozko finantzaketatik heldu dira.

V.2.2. 2012ko ekainaren 30eko finantzaketa-premien estimazioa, kontabilitate nazionalaren terminoetan.

Lehenik eta behin zehaztu beharra dago, finantzaketa-premiak eta zorra, kontabilitate nazionalaren terminoetan, erreferentzia gisa Foru Komunitateko BPGaren magnitude ekonomikoa hartuta adierazten direla.

Gaur egungo egoera ekonomikoan, magnitude honen estimazioak asko aldatzen dira –txosten hau idazten ari den arte Nafarroako BPGaren lau estimazio desberdin izan dira 2012. urterako–; horrek oso eragin handia du finantzaketa-premiak neurtzeko orduan –eta horrenbestez baita egin beharreko murrizpenak definitzerakoan ere– eta baita zor publikoaren gehieneko muga finkatzekoan ere.

Eta finantzaketa-premiak erabakitzerakoan, aurrekontuen informazioan ez dira beti-beti garbi eta zehazki agertzen egin behar diren doikuntzak egiteko arrazoiak eta irizpideak.

Horren guztiaren ondorioz, aipatu diren zirkunstantzia horiek guztiak kontuan hartuta balioetsi behar dira premia horiei buruz aldioro prestatzen diren eta urtekoak ez diren txostenak.

Nafarroako Administrazio Publikoko sektoreak 2012ko ekainean zituen finantzaketa-premiak, kontabilitate nazionalaren terminoetan (SEC'95), Nafarroako BPGaren ehuneko 1,9aren eta 2,1aren arteko bitarte batean koka daitezke.

Labur esateko, 2012ko ekainaren 30ean, Nafarroako Administrazio Publikoko Sektorearen finantzaketa-premiak 350 edo 380 milioi euro bitartekoak izango lirateke. 2012 urte osorako ezarritako helburua kopuru hori BPGaren ehuneko 1,5 izatea denez, 75 edo 105 milioi euro inguru desbideratu dira finantzaketa-premiak ekainera bitartean.

Gainerako autonomia-erkidegoen egoerarekin alderatuz, eta Ogasuneko eta Administrazio Publikoetako Ministerioak duela gutxi emandako informazioak kontuan hartuta, ez da ahaztu behar Nafarroak duen erregimen fiskal berezia eta horrek bere aurrekontuetan duen eragina. 2012ko ekainaren 30ean Nafarroako Gobernuak PFEZ aitortutako asko itzulita zeuzkan, eta oraindik zerga horren lehenengo partea ere kobratu gabe zeukan –uztailaren 2an kobratu zen–. Egoera horrek –ezin da aplikatu beste autonomia-erkidegoetara–, eragin handia izan du Nafarroako diru-sarrera ez-finantzarioetan, nabarmen urritu ditu, eta arras handitu ditu ekainaren 30ean zituen finantzaketa-premiak.

V.3. FORU SEKTORE PUBLIKOAREN ZORPETZEA

V.3.1. Ogasun Publikoaren Foru Legea

Lortu den kontabilitatezko informazio publiko eta pribatuaren arabera, Foru Sektore Publikoaren

2012ko ekainaren 30eko zor finantzarioa, Nafarroako Ogasun Publikoaren Foru Legearen arabera definiturik, ondoko koadroan definitzen dena da, milaka eurotan:

Finantza-zorra	2012ko ekainaren 30ean		
	Epe luzera	Epe laburrera	Guztira
Nafarroako Gobernua	2.277.670	42.000	2.319.670
Sozietate publikoak	247.428	158.487	405.915
Fundazio publikoak	0	0	0
Zorpetzea guztira	2.525.098	200.487	2.725.585

a) Nafarroako Gobernua

- Guztirako zenbateko horretatik, 1.564,85 milioi betebeharrerako zorrari edo "Nafarroaren zorrari" dagozkio, eta 754,82 milioi maileguei.

- 2012ko ekainaren 30a arte, 220 milioi euroko zorra jaulki da, aurrekontuan ekitaldi osorako izendatua; jaulkipen horietatik, 30 milioiko bat salbu, gainerako guztiak aurreko urteetako jaulkipenen "retap"⁽¹³⁾ eragiketen bidez egin dira. Urte horretako azaroaren bukaerarako 42 milioi euroko zenbateko baten amortizazioa egitea aurreikusita dago.

- Maileguei dagokienez, 2012ko ekainaren azken egunetan finantza-erakunde batekin bi mailegu hitzartu direla –bakoitza 100 milioikoa– azpimarratu behar dugu. 2012ko ekainera arte, 18 milioi euroko maileguak amortizatu dira; urte bukaerara bitartean beste 47 milioiko maileguen amortizazioa egitea aurreikusita dago.

- Ondoko koadroan Nafarroako Gobernuaren zor horren zenbait adierazle jasotzen dira, 2012ko ekitaldiaren erdian kalkulatzen direla kontuan harturik:

Nafarroako Gobernuaren zorraren adierazleak	2012-ekaina-30
NGren zor bizia (milioietan)	2.320
Zor bizia biztanleko (eurotan)	3.604
Zorra Nafarroako BPGaren %	12,66

Zorraren zenbateko horrek biztanle bakoitzeko 3.604 euroko zorra esan nahi du.

Nafarroaren 2012rako begiz jotako BPGa kontuan hartuta, ehuneko 12,66 esan nahi du.

Krisi ekonomikoaren hasiera arte –2009–, Nafarroako Gobernuaren zorra oso egonkorra izan zen; 640 milioi euro inguruan geratzen zen; data horretatik aurrera, nabarmen handitu da, eta 2012ko ekainera bitartean ia 3,6 bider handiagoa bilakatu baita.

b) Enpresa publikoak

- Zor diren 406 milioi euroetatik, SODENA –ehuneko 58–, CAT –ehuneko 13–, NDO –ehuneko 8–, NASUVINSA –ehuneko 6– eta NILSA –ehuneko 6– sozietateek kontzentratzen dute 2012ko ekainaren 30ean sozietate publiko guztien zorraren ehuneko 91. Horien artean SODENAREN zorra azpimarratu behar dugu, sektore honen zorraren ehuneko 50 baino gehiago baitu –236 milioi–, eta seihilabeteko honetan 101 milioi gehiagoko zorra egin baitu.

(13) Aurreko urteetan egindako jaulkipenak berriro irekiz edo haien "retap" eginez egiten den obligazio-jaulkipena; zenbatekoa handitu eta jaulkipenaren prezioa aldatu baizik ez da egiten.

Zehaztu beharra dago, hala ere, data horretan sozietate publiko guztien artean zuten eskudirua 177,6 milioi erokoa zela.

V.3.2. Zorpetzea Kontabilitate Nazionaleko terminoetan/SEC'95

Kontabilitate nazionaleko terminoetan, Administrazio Publikoko Sektorearen zorraren barruan sartzen da, bai Gobernuarena berarena eta kontsolidazio-perimetroa osatzen duten gainerako erakunde publikoena, bai lankidetzako publiko-privatuak ("itzaleko bidesaria") egindako inbertsioengatik inputatutakoa.

Zorra	2008	2009	2010	2011	2012ko lehen seihilekoa
Nafarroako Gobernua	786,8	999,0	1.490,2	1.878,7	2.280,7
Sozietate publikoak	1,6	1,3	1,4	226,4	326,4
Fundazio publikoak	9,6	8,8	8,5	7,5	7,4
Pirinioetako Autobidea	0	1,0	85,4	202,2	202,2
Nafarroako Ubideak ureztatutako eremua	69,5	75,4	106,5	127,4	127,4
Zorpetzea, guztira (SEC'95)	867,5	1.085,5	1.691,8	2.442,3	2.944,2
<i>Indizea</i>	<i>100</i>	<i>125</i>	<i>195</i>	<i>282</i>	<i>339</i>
<i>BPG %</i>	<i>4,69</i>	<i>5,97</i>	<i>9,10</i>	<i>13,04</i>	<i>16,06</i>

Hona azterketa horretatik zer nabarmentzen dugun:

- Aztertzen ari garen aldi honetan, guztirako zorra hiru bider handiagoa baino gehiago egin da.

- Nafarroako BPGarekin alderatuta, zor hori 2008an haren ehuneko 4,69 izatetik 2012an ehuneko 16,06 izatera igo da.

- Gobernuaren zor garbia 402 milioi euro emendatu da 2012ko lehenengo seihilabetekoan, urte osorako aurreikusita zegoen guztia, ia-ia.

- 2011n Estatuko Administrazioaren Kontu-hartzailetza Nagusiak ia enpresa publiko berregituratu guztiak eta haiei zegokien zor bizi guztia sartu zituen kontsolidazio-perimetroan, eta horrexegatik guztirako zorpetze-maila 200 milioi baino gehiagoz emendatu zen. 2012ko lehenengo seihilabetekoan zenbateko hori beste 101 milioiz emendatu da; milioi hauek SODENA enpresaren zorpetze-emendioari dagozkio.

- Fundazioen zorpetze finantzarioa erakunde publikoekiko mendekotasun ekonomikoa duten

Aurreko atalean kalkulaturako zorraren zenbatekoarekin dauden desberdintasun nagusiek jatorri hauek dituzte:

- Eremu subjektiboa: sektore publikoaren osaketa desberdina.

- Eremu objektiboa: kontabilitate nazionalan ez dira kontuan hartzen sektore publikoko gainerako erakunde merkataritzako zorrak eta haiek emandako pasiboak. Eta zor gisa egozten dira itzaleko bidesarian egindako inbertsioak.

Ondoko koadroan Foru Sektore Publikoak 2008tik 2012ko lehenengo seihilabetekora bitartean, SEC'95 terminoetan izan duen bilakaera erakusten da, miloika eurotan:

fundazioena da; iturburu hauek dituzte, zehazki, 2012. urterako: Cener-Ciemat Fundazioa -6,8 milioi-, Pablo Sarasate Fundazioa -0,4 milioi- eta Nafarroako Ingurumen arloko Baliabideen Zentroen Fundazioa -0,2 milioi-.

- Pirinioetako Autobidearengatik eta Eremu Ureztagarriarengatik zorraren egozpena lehenengo kopuru berberetan mantentzen da 2012ko ekainean, zor hori urte bakoitzeko abenduan erabakitzen baitu Estatuko Administrazioaren Kontu-hartzailetza Nagusiak.

Aipatu beharra dago, gainera, Estatuko Administrazioaren Kontu-hartzailetza Nagusiaren aginduz, 2012ko ekainaz gero, lehen aipaturako zorraren barruan sartzen dela Nafarroako Gobernuak eta Nafarroako Unibertsitate Publikoak Hezkuntza eta Zientziako Ministerioekin zientzia- eta teknologia-parkeak sustatzeko eta nazioarteko bikaintasun-campuserako hitzartutako zorra ere. Mailegu horien zenbatekoa 15,98 milioi eurokoa zen ekainaren 30ean.

Zorraren gehieneko mugari dagokionez, ez da zortzat hartzen Lastertasun Handiko Trenerako obrak finantzatzeko behar dena; 2011tik 2014ra bitarteko aldirako 352,1 milioiko zenbateko bat dago begiz jota; zor hori kanpoan uztea, Nafarroaren defizita kalkulatzeko ere kontuan hartu beharrekoa, gai honi buruz Estatuarekin sinatutako Hitzarmenaren ondorioa da, hitzarmen horren arabera, hain zuzen, inbertsio hori egiteko gastuak⁽¹⁴⁾ ADIF sozietate publikoari egoztekoak izan-

go baitira, eta ez Foru Komunitateari egoztekoak. Orain arte, obra hori ez da finantzatu zorpetze bereizi batez, Nafarroako Gobernuaren zorpetze orokorraren bitartez baizik.

2012an eguneratu zen Nafarroako Foru Komunitaterako Aurrekontu-Berrorekatzeari Buruzko Plan Ekonomiko-Finantzarioran (2012-2014), ondoko koadroan zehazten diren kopuruak finkatzen ziren Foru Komunitateak har dezakeen gehieneko zor gisa, milioika eurotan:

	2012	2013	2014
Zor berria	409,3	334,6	239,5
Zorra guztira	3.332,1	3.666,7	3.906,2
Zorra guztira (AHT gabe)	3.198,1	3.537,6	3.860,5

2012ko uztailean Nafarroaren 2012ko eta 2013ko ekitaldietarako gehieneko zorpetze-muga⁽¹⁵⁾ zenbateko hauetan erabaki zen:

Ekitaldia	Zenbatekoa	BPG portzentajea
2011-XII-31eko zorra	2.442,3	13,04
2012-XII-31eko zorra	2.944,2	16,06
2012ko zorpetzeko muga	2.745	14,77
2013ko zorpetzeko muga	2.904	15,50

2012ko urtearen bukaeran, zorraren amortizazio-egutegia –urtea osatzeko falta denerako 89 milioitan begiz jotako zorra– bete eta lankidetzara publiko-pribatuengatik inputatutako zorrari dagokionez izandako doikuntzak egin ondoren, estimazio eta exijentzia horien betetze-maila egiaztatu ahal izango da.

Laburtuz, bada, eta **azken ondorio gisa**, Nafarroako Gobernuak 2012ko ekainaren 30erako aurkeztutako aurrekontuaren itxierak ez du data horretako gastuen eta diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioaren irudi zuzena okertzen duen akats nabarmenik. Hala eta guztiz ere, zehaztu beharra dago betetze-maila hori aurreko ekitaldiko gastuen lerratzeak eta bi ekitaldietan kontusailak blokeatu izanak aldatu duela.

Blokeo horien teknikari dagokionez, Kontuen Ganbera honek blokeo horiek egiaz aplikatzeko duen zailtasun praktikoa azpimarratu nahi du, dagoeneko Nafarroako Gobernuak bere gain har-

turik dituen zerbitzuak eskaintzeko konpromisoak finantzatzeko kredituak direnean batez ere. Kasu horietan, eragiketa horien egiazko eragina sortutako gastuak kontabilizatzea geroagoko ekitaldietara edo periodoetara atzeratzera mugatzen da.

Era berean ikusi da, Osasun Departamentuan batez ere –Ganbera honek orain arteko zenbait txostenetan dagoeneko esana daukan bezala–, baina baita beste departamentu batzuetan ere, neurri txikiagoan bada ere, ekitaldiko aurrekontuak ez direla beti-beti egiten gastu-irizpide errealistak erabiliz, eta ez dela kontuan hartzen aurreko urte-tik lerratutako gastuak ere badirela eta horrek aldatu eta indargabetu dezakeela urteko aurrekontua.

Bi gaiok, beraz, aldi jakin bateko aurrekontuen betetze-maila aldatu ez ezik, hurrengo aurrekontuen hasierako estimazioen arrazoizkotasuna ere alda dezakete.

(14) Hala eta guztiz ere, Nafarroako Gobernuari dagozkio Hitzarmena luzatetik datozkeen finantza-kostuak.

(15) Onarpen honek Berrorekatzeko Plana berrikustea eskatuko du.

Ganbera honek aintzat hartzen du aurrekontuari buruzko informazioa hilabetero prestatu beharrak Gobernuko eta gainerako erakunde publikoetako kontabilitate-, kontrol- eta kudeaketa-zerbitzuei egiten dituzten eragiketen kontabilitatezko analisía eta tratamendua zorrotasun eta arintasun handiagoz egiteko eskatzen dien ahalegina. Informazio hori, bai bitarteko epeetakoa eta bai ekitaldiaren bukarakoa, hobetzeko, lehentasun handiko eginbeharizat jotzen da ondoko neurriok hartzea:

- *Gastuak hurrengo ekitaldietara lerratzeko eta kontusailen kreditua blokeatzeko eragiketen kontrol eta jarraipen zorrotza egin ahal izatea bermatuko duten kontaduriako prozedurak garatzea. Kontabilitatezko jarraipen horretarako ezinbestekoa da lehenik eta behin eragiketa horietarako aplikatu behar den administrazio-tramitazioa egiteko jarraibide zehatzak finkatzea.*

- *Eskubide aitortuen eta eskubide ezeztatuen zordunen kontabilitate-kontuak, abian dagoen ekitaldikoak eta ekitaldi itxietakoak bereiziz, eta zergak itzultzeagatiko hartzekodunenak ere osoz aplikatzea, aurrekontuaren hileroko egoerorriak eta urtearen itxierakoak kontabilitatezuzenean atera ahal izan daitezen, gaur egun egiten den bezala estimazioak egin beharrik ez izateko.*

- *Kontabilitatea kontabilitate publikoko plan berrira egokitzeko prozesuan, bere informazio-exijentziak kontuan hartu eta eragiketa nagusietan aplikatu behar diren irizpideak eta jarraibideak zehazten dituen Nafarroako Gobernuaren kontu-plan berezi bat onartzea.*

- *Hirugarrenen kontabilitate-sistema lagungarrien eta kontabilitate orokorraren arteko koordinazioa hobetzea, bien artean egiten diren eragiketen dokumentu eta kontabilitate bidezko lekukotasunak jasoz eta hirugarrenen kontabilitate-sistema lagungarria gaur egungo aurrekontuei buruzko informazio-eskakizunetara egokitzea eta eguneratzea komeni den aztertuz.*

- *Nafarroako Gobernu osoa faktura eta ziurtagirien erregistro orokor bat eramatera derrigortzea, era horretan faktura eta ziurtagiri horien kontrola, jarraipena, erregistratzea eta ordainketa-datak eguneratuta edukitzeko. Esan beharra dago, 2012ko irailean Nafarroako Gobernuak erregistro hori sortzeko erabakia hartu duela.*

- *Nafarroako Gobernu osoan "Aurrekontuari aplikatzeke dauden eragiketen zordunen" kontuak derrigor aplikatzea, sortu, eta edozein zirkunstantzia dela-eta, une horretako aldiari edo aurrekontuari egotzi ezin izan zaizkion gastu guztiak denbora guztian ongi identifikatuta eduki ahal izateko.*

Nafarroako finantza publikoak aurkitzen diren testuingurua ezaugarritzen zuten zalantzak iturburu hauetatik helduak dira, batez ere:

- Krisi ekonomiko sakona, jarduera ekonomikoaren atzerakada handi batekin, eta langabeziata guztiz handiekin.

- Zerga-bilketa urritzea.

- Aurrekontuek egonkortzeko helburua betetzeo, defizit-helburuak bete beharrak eragindako austeritate-neurriek behartzen duten politika.

- Etengabe aurrekontua doitzeko neurriak eta lege-aldaketak egiten jardutea.

- Finantzaketa-premia handiak izatea, premia horiek urrituz doazela ikusten bada ere.

- Zor handia.

Testuinguru horretan administrazio publikoek aurrekontuak prestatzeko duten teknikak ekonomikoaren planifikaziorako oinarritzko tresna izateko duen gaitasuna neurri handi batean galtzen ari da, eta asmo-adierazpen soila ari da bilakatzen, eta etengabe egokitu behar da egoera ekonomiko horretara eta aurrekontuen egonkortasun-exijentzi-etara.

Egoera horretan, beraz, aurrekontuak prestatzen eta betetzen zorrotz eta funts publikoak erabiltzerakoan garden jokatzek behar du bere herritarren oinarritzko premietara egokitzen den kudeaketa publiko baten premisarik garrantzitsuenak. Horretarako, aurrekontuetako magnitude nagusien estimazioa gardentasunik handienaz eta puntu hauek kontuan hartuz egin behar da:

- Magnitude makroekonomikoen ahalik eta estimaziorik zorrotzena eta aldi berean malguategitea.

- Diru-sarreraren estimazioa zehurtzia eta errealismozko irizpide zorrotzez egitea.

- Gobernuak har dezakeen gehieneko gastumuga zehatz, argi baina aldi berean malgutasunez egitea.

- Inbertsioei dagokienez, lehentasunak zehaztea, kostuaren eta bideragarritasunaren eta eragin sozio-ekonomikoaren artean oreka bilatuz.

- Magnitude horiek Gobernuaren Aurrekontu-Berrorekatzeari Buruzko Plan Ekonomiko-Finantzararioaren egokitzapenetan ongi egokitzea.

- Aurrekontuen betetze-mailaren etengabeko jarraipena egitea –bai gastuen zein diru-sarreraren aurrekontuari dagokienez–, eta horretan sumatzen diren desbideratzeak aztertuz eta, hala behar denean, erabakiak hartuz.

- Gaur egungo zorpetze-maila krisi ekonomiko baina lehen zorpetze-maila apala zegoelako hitzartu ahal izan da, eta Gobernuaren aurrekontuaren desoreka finantzatzeko balio izan du, krisiak bere diru-sarreretan eta, batez ere, gizarte osoan izan dituen eragin negatiboak partez behintzat arinduz. Une honetan, zorpetzeko dauden muga estuak kontuan hartuta, gastuen eta diru-sarreraren arteko oreka hori lortzeko beste iturburu batzuk erabili beharko dira, eta horrek nahitaez izango du eragina aurrekontuaren bi alderdietan.

Ganbera hau azkeneko txostenetan behin eta berriro esaten ari den bezala, Nafarroako aurrekontuak gaur egungo egoerara egokitzeko, sistematikoki berrikusi behar dira puntuok:

- Administrazio publikoaren beraren antolamendu-egitura, kudeaketa hobetzeko lehentasuna duten edo hobetu daitezkeen eremuak zein diren ezagutzeko.

- Bere gastu-politikak sakonetik berrikustea, politika horien helburu sozio-ekonomikoak, kostua edo eragina, eta gerora berriro etengabe ebaluatuz joatea, aurreikusitako helburuak betetzen ari diren egiaztatzeko.

- Indarrean dagoen sistema fiskala eta indarrean dauden zerga-onurak Foru Komunitatearen

egoera sozio-ekonomikora nola egokitzen diren aztertzea.

- Iruzur fiskalaren eta ezkutupeko ekonomiaren kontrako borrokarako baliabideak indartzea.

- Etorkizuna zalantzan duten enpresa publikoei dagokienez, horien bideragarritasuna aztertu beharko litzateke, alderdi ekonomikoari bezala alderdi sozialari ere begiratuz, parte diren alderdi guztien ahaleginak eta ekarpenak kuantifikatuz eta dauden beste alternatibak ere alderatuz.

Horren helburua, ahal den bezainbatean, aurreikusita dauden defizitak lortzeko helburu edo aitzakia bakarrarekin erabakitako murrizketa edo mozketak jokaerak saihestea behar luke izan. Beste alde batetik, zenbait gastutan kredituak blokeatzeko edota geroagoko ekitaldi batzuetarako atzeratzeak, horien finantzaketaren arazoa hurrengo aurrekontuetarako luzatzea besterik ez dute egingen.

Austeritate-neurriak baizik ez ezartzeak Foru Komunitatearen gizarte-kohesioa erasan lezake. Horregatik, bada, gaur egungo kudeaketa publikoaren helburua aurrekontuen egonkortasun-helburua betetzearen eta Nafarroako ekonomiak eta enpleguak behar duten hazkunde iraunkorraren bilatzearen arteko oreka lortzea izan behar du.

VI. NAFARROAKO GOBERNUAREN AURREKONTUAREN 2012ko EKAINAREN 30eko BETETZE-MAILAREN LABURPEN-KOADROAK

VI.1. koadroa. Diru-sarrerak kapituluz kapituluz

	2012 EKAINA				2011 EKAINA			BETETZE-MAILA %			ALDAKETA TASAK (%)		
	Hasierako aurrekontua	Aurrekontu bateratua	Aitorrutako eskubide garbiak	Dirubilketa garbia	Aurrekontu bateratua	Aitorrutako eskubide garbiak	Dirubilketa garbia	3/2	6/5	3/6	4/7		
												1	2
Zuzeneko zergak	1.434.617	1.434.617	613.464	436.027	1.409.288	487.795	473.715	42,8	34,6	25,8	-8,0		
PFEZ	1.118.307	1.118.307	518.706	422.225	1.102.642	486.945	473.342	46,4	44,2	6,5	-10,8		
Ez-egolliarrak	9.081	9.081	2.744	2.508	9.901	4.788	4.788	30,2	48,4	-42,7	-47,6		
Sozietateak	236.793	236.793	43.877	-8.686	244.388	-23.767	-23.767	18,5	-9,7	-284,6	-63,5		
Ondare	30.000	30.000	25.807	2.197	0	0	0	86,0	-	-	-		
Oinordetzak	40.436	40.436	22.330	17.782	52.357	19.599	19.122	55,2	37,4	13,9	-7,0		
Iraungiak	0	0	0	0	0	231	231	0,0	>999	-100,0	-100,0		
Zeharkako zergak	1.763.838	1.763.838	798.802	797.685	1.849.413	742.912	742.129	45,3	40,2	7,5	7,5		
Ekonomia-hitzarmenaren doitzea	103.807	103.807	205.846	205.846	141.108	30.148	30.148	198,3	21,4	> 999	582,8		
Balio erantsiaren gaineko zerga (BEZ)	1.076.670	1.076.670	337.433	337.433	1.143.891	438.441	438.441	31,3	38,3	-23,0	-23,0		
Zerga bereziak	477.084	477.084	209.148	208.061	443.726	220.753	220.753	43,8	49,7	-5,3	-5,7		
Aseguru-primak	20.367	20.367	10.698	10.698	20.160	10.326	10.153	52,5	51,2	3,6	5,4		
Ondare-eskuaidaketen eta E.JDen gaineko zerga	62.927	62.927	24.498	24.498	77.702	30.639	30.575	38,9	39,4	-20,0	-19,9		
Hidrokarburoen gaineko zerga	22.983	22.983	11.179	11.150	22.825	12.606	12.059	48,6	55,2	-11,3	-7,5		
Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	104.790	118.313	75.132	56.894	162.364	96.563	64.545	63,5	59,5	-22,2	-8,8		
Transferentzia arruntak	67.759	69.191	17.556	17.471	71.558	25.681	22.772	25,4	35,9	-31,6	-23,3		
Ondare bidezko diru-sarrerak	9.952	16.710	16.557	15.030	18.967	4.734	3.304	99,1	25,0	249,7	355,0		
Diru-sarrera arruntak, guztira	3.380.956	3.402.669	1.521.512	1.325.107	3.511.589	1.357.685	1.306.464	44,7	38,7	12,1	1,4		
Inbertsioen besterentzea	9.405	9.466	2.918	2.507	4.462	2.233	1.668	30,8	50,0	30,7	50,3		
Kapital-transf.	17.579	20.323	10.750	10.340	22.685	6.237	4.204	52,9	27,5	72,4	146,0		
Kapital-sarrerak guztira	26.984	29.789	13.669	12.847	27.147	8.470	5.872	45,9	31,2	61,4	118,8		
Finantzaz besteko diru-sarrerak	3.407.940	3.432.458	1.535.180	1.337.954	3.538.736	1.366.155	1.312.336	44,7	38,6	12,4	2,0		
Finantza-aktiboak	21.527	27.958	15.069	14.336	28.258	14.910	14.539	53,9	52,8	1,1	-1,4		
Finantza-pasiboak	408.250	422.536	418.827	418.827	349.800	319.220	319.220	99,1	91,3	31,2	31,2		
Finantza eragiketak, guztira	429.777	450.494	433.895	433.162	378.058	334.131	333.759	96,3	88,4	29,9	29,8		
Guztira	3.837.717	3.882.953	1.969.075	1.771.116	3.916.794	1.700.286	1.646.096	50,7	43,4	15,8	7,6		

VI.2 koadroa. Gastuak kapituluz kapitulu

	2012 EKAINA				2011 EKAINA				BETETZE-MAILA %			TASAK, ALDEA (%)			
	Kredituak, guztira	Konpromisoak	Aitorritako bete-beharrak	Egindako kobrantzak	Kredituak, guztira	Konpromisoak	Aitorritako bete-beharrak	Egindako ordain-ketak	3/1	4/3	7/5	8/7	1/5	3/7	4/8
Langjeria-gastuak	1.145.998	567.915	567.623	567.440	1.148.966	578.580	578.217	577.984	49,5	100,0	50,3	100,0	-0,3	-1,8	-1,8
Ondasun eta zerbitzuetan egindako gastu arruntak	523.202	352.818	243.327	225.242	532.488	352.053	225.932	190.332	46,5	92,6	42,4	84,2	-1,7	7,7	18,3
Gastu finantzarioak	90.336	89.886	57.588	57.587	61.039	57.220	31.538	37.220	63,7	100,0	51,7	118,0	48,0	82,6	54,7
Transferentzia arruntak	1.435.664	826.449	722.002	713.386	1.474.989	899.981	737.980	701.620	50,3	98,8	50,0	95,1	-2,7	-2,2	1,7
Eragiketa arruntak, guztira	3.195.200	1.837.068	1.590.539	1.563.655	3.217.482	1.887.834	1.573.667	1.507.156	49,8	98,3	48,9	95,8	-0,7	1,1	3,7
Inbertsio errealak	283.762	125.265	64.969	63.599	288.276	210.296	64.197	54.437	22,9	97,9	22,3	84,8	-1,6	1,2	16,8
Kapital-transferentziak	273.289	233.565	110.975	108.571	327.291	267.258	97.136	80.229	40,6	97,8	29,7	82,6	-	14,2	35,3
Kapital-eragiketak, guztira	557.052	358.830	175.944	172.170	615.566	477.554	161.333	134.665	31,6	97,9	26,2	83,5	-9,5	9,1	27,9
Finantza bestelako eragiketak, guztira	3.752.252	2.195.898	1.766.483	1.735.826	3.833.048	2.365.388	1.735.000	1.641.821	47,1	98,3	45,3	94,6	-2,1	1,8	5,7
Finantza-aktiboak	23.403	10.818	10.818	10.818	21.895	10.614	10.614	10.504	46,2	100,0	48,5	99,0	6,9	1,9	3,0
Finantza-pasiboak	107.298	107.259	18.000	18.000	91.239	109.231	18.000	36.000	16,8	100,0	19,7	200,0	17,6	0,0	-50,0
Finantza-eragiketak, guztira	130.701	118.077	28.818	28.818	113.133	119.845	28.614	46.504	22,0	100,0	25,3	162,5	15,5	0,7	-38,0
Guztira	3.882.953	2.313.975	1.795.302	1.764.644	3.946.181	2.485.233	1.763.614	1.688.325	46,2	98,3	44,7	95,7	-1,6	1,8	4,5

VI.3. koadroa. Gastuak, departamentuz departamentu

	2012 EKAINA				2011 EKAINA				BETETZE-MAILA (%)				TASAK, ALDEA (%)		
	1	2	3	4	5	6	7	8	3/1	4/3	7/5	8/7	1/5	3/7	4/8
	Kredituak, guztira	Konpro-misoak	Aitorutako bete-beharrak	Egindako kobrantzak	Kredituak, guztira	Konpro-misoak	Aitorutako bete-beharrak	Egindako ordainketak							
Lehend. Administrazio Publikoak eta Bame.	523.319	344.447	299.831	297.535	552.854	364.795	291.735	285.578	57,3	99,2	52,8	97,9	-5,3	2,8	4,2
Ekonomia eta Ogasuna	800.184	482.576	349.242	348.750	744.063	456.418	321.506	342.776	43,6	99,9	43,2	106,6	7,5	8,6	1,7
Hezkuntza	601.470	311.198	299.392	297.629	647.224	379.793	330.591	311.158	49,8	99,4	51,1	94,1	-7,1	-9,4	-4,3
Osasuna	919.220	516.110	481.120	469.671	972.572	528.905	464.713	440.741	52,3	97,6	47,8	94,8	-5,5	3,5	6,6
Sustapena eta Etxebizitza	324.515	156.813	118.770	113.659	231.974	150.131	99.581	86.191	36,6	95,7	42,9	86,6	39,9	19,3	31,9
Nekazaritzaren Gar., Ind., Enplegua eta Ingunumena	331.508	231.984	92.578	87.928	358.446	261.353	96.123	73.955	27,9	95,0	26,8	76,9	-7,5	-3,7	18,9
Gizarte Politika, Berdintasuna, Kirola eta Gazteria	305.157	223.458	121.690	117.381	345.833	279.603	121.919	116.731	39,9	96,5	35,3	95,7	11,8	-0,2	0,6
Kultura eta Turismoa Eta Erakunde	60.887	39.089	24.378	23.790	75.714	52.191	25.403	22.492	40,0	97,6	33,6	88,5	19,6	-4,0	5,8
Aireko Hairremanak	541	225	225	225	558	324	324	232	41,6	100,0	58,0	71,7	-3,0	-30,5	-3,1
Nafarroako Kontseilua	16.152	8.076	8.076	8.076	16.942	11.719	11.719	8.471	50,0	100,0	69,2	72,3	-4,7	-31,1	-4,7
Nafarroako Parlamentua															
Guztira	3.882.953	2.313.975	1.795.302	1.764.644	3.946.181	2.485.233	1.763.614	1.688.325	46,2	98,3	44,7	95,7	-1,6	1,8	4,5

VI.4. koadroa. Aurrekontuaren aldatetarako kapituluaren koadroa

	Hasierako kredituak	Ezohikoak eta Osagarriak	Gehikuntzak	Transferentziak	Gainerapenak.	Diru-sarriak eragindakoak	Bestelakoak	Kredituak, guztira
Langileria-gastuak	1.143.274	0	2.319	-9	0	414	0	1.145.998
Ondasun eta zerbitzuetan egindako gastu arruntak	518.295	0	2.986	1.165	0	756	0	523.202
Gastu finantzarioak	72.992	0	17.344	0	0	0	0	90.336
Transferentzia arruntak	1.434.382	0	4.521	-3.233	-6	0	0	1.435.664
Eragiketa arruntak, guztira	3.168.943	0	27.169	-2.077	-6	1.171	0	3.195.200
Inbertsio errealak	282.401	0	-288	-847	0	2.347	150	283.762
Kapital-transferentziak	259.656	0	4.705	2.924	6.154	0	-150	273.289
Kapital-eragiketak, guztira	542.057	0	4.417	2.077	6.154	2.347	0	557.052
Finantzaz bestelako eragiketak, guztira	3.711.000	0	31.586	0	6.148	3.518	0	3.752.252
Finantza-aktiboak	23.119	0	284	0	0	0	0	23.403
Finantza-pasiboak	103.598	0	3.700	0	0	0	0	107.298
Finantza eragiketak, guztira	126.717	0	3.984	0	0	0	0	130.701
Guztira	3.837.717	0	35.570	0	6.148	3.518	0	3.882.953

VI.5. koadroa. Aurrekontuaren aldaketak departamentuz departamentu

	Hasierako kredituak	Ezohikoak eta Osagarriak	Gehikuntzak	Transferentziak	Gainerapenak.	Diru-sarreak eragindakoak	Bestelakoak	Kredituak, guztira
Lehend. Administrazio Publikoak eta Barne.	514.092	0	3.056	-157	6.148	240	-59	523.319
Ekonomia eta Ogasun Departamentua	778.248	0	21.889	10	0	34	2	800.184
Hezkuntza	601.508	0	0	-63	0	46	-21	601.470
Osasuna	914.609	0	1.568	1	0	3.042	0	919.220
Sustapena eta Etxebizitza	322.497	0	1.832	3	0	19	163	324.515
Landa Garapena, Industria, Enplegua eta Ingurumena	324.335	0	7.225	43	0	3	-98	331.508
Gizarte Politika, Berdintasuna, Kirola eta Gazteria	305.036	0	0	-13	0	120	14	305.157
Kultura eta Turismoa eta Erakunde Arteko Harremanak	60.698	0	0	176	0	13	-1	60.887
Nafarroako Kontseilua	541	0	0	0	0	0	0	541
Nafarroako Parlamentua	16.152	0	0	0	0	0	0	16.152
Guztira	3.837.717	0	35.570	0	6.148	3.518	0	3.882.953

VI.7. koadroa. Hainbat urtetarako gastuak, departamentuz departamentu

	2013			2014			2015			GAINERAKOAK			GUZTIRA		
	Atxik.	Baimen	Eros.	Atxik.	Baimen	Eros.	Atxik.	Baimen	Eros.	Atxik.	Baimen	Eros.	Atxik.	Baimen	Eros.
Lehend. Administrazio Publikoak eta Barne.	8.155	4.274	2.412	4.156	849	16	1.958	831	0	446	394	0	14.716	6.349	2.428
Ekonomia eta Ogasun Departamentua	287.349	284.998	282.401	381.005	378.875	377.493	375.633	374.167	374.167	1.555.881	1.555.328	1.555.328	2.599.869	2.593.368	2.589.389
Hezkuntza	29.921	7.692	4.011	9.030	920	920	6.084	734	734	12.086	9.502	9.502	57.120	18.848	15.166
Osasuna	44.278	23.319	8.356	28.912	13.377	161	17.915	6.326	165	17.795	6.380	219	108.899	49.401	8.900
Sustapena eta Etxebizitza	123.373	65.026	41.614	87.020	37.696	21.543	67.027	18.573	14.905	704.507	0	0	981.927	121.295	78.062
Nekazaritzaren Gar., Ind., Enplegua eta Ingurumena	123.225	97.475	73.361	71.620	61.100	41.757	36.927	34.502	19.021	422.701	419.065	4.653	654.474	612.142	138.793
Gizarte Politika, Berdintasuna, Kirola eta Gazteria	68.512	16.844	16.245	21.747	6.709	6.409	9.897	1.273	1.238	10.041	0	0	110.198	24.826	23.892
Kultura eta Turismoa Eta Erakunde Arteko Harremanak	2.905	1.486	390	985	191	20	490	66	0	66	66	0	4.447	1.809	410
Nafarroako Kontseilua	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
Nafarroako Parlamentua	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
Guztira	687.719	501.114	428.789	604.475	499.717	448.320	515.932	436.472	410.230	2.723.524	1.990.735	1.569.702	4.531.649	3.428.038	2.857.041

VII. 2012ko EKAINAREN 30eko EGOERAREN AZTERKETA XEHEA

VII.1. AURREKONTUAREN 2012ko EKAINAREN 30eko BETETZE-MAILA OROKORRA

2012ko aurrekontua onartzen denean, 3.837,7 milioi euroko kredituak jasotzen ditu gastuetarako zein diru-sarreretarako. 2012ko ekainean, aurrekontu hori ehuneko 1,18an aldatu da, 45,2 milioi euro jaso da, alegia, eta ia 3.883 milioi euroko zenbateko bateratua du.

Aldaketa horiei buruz, esan behar dugu:


- Aldaketa horietako ehuneko 79 emenda daitezkeen kreditutakoak dira.
- Departamentuz departamentu bereizita, Ekonomia eta Ogasunekoak -22 milioiko emendioa-, Lehendakartzakoa -9 milioi- eta Landa Garapeneakoa - dira emendiorik handiena dutenak.
- Aurrekontua kapituluka hartuta, gastu finantzarioena -17 milioiko emendioa-, kapital-transferentzia -14 milioi- eta ondasun arruntena eta zerbitzuena -5 milioi- dira kredituaren emendiorik handiena dutenak.

2011n, ekainaren 30erako, ehuneko 1,7ko aldaketa jasana zuen urte horretarako hasierako aurrekontuak; 71,3 milioiko kreditu-emendio bat, alegia. Emendio hori finantza-pasiboetarako kredituek 61,2 milioiko emendioa izan zutelako justifikatzen zen batez ere.

2012ko ekainaren 30era bitartean erregistratutako gastuak 1.795 milioi eurokoak ziren guztira, 2011ko lehenengo seihilabetekoan baino ehuneko 1,8 gehiago, 31,7 milioi euro gehiago, hain zuzen. Gastu horietan ehuneko 46,24ko betetze-maila izan zen, aurreko ekitaldian baino 1,5 gehiago.

Gastu horietatik guztietatik 1.765 milioi ordaindu dira data horretara arte, hau da, aitortutako guztiaren ehuneko 98 baino gehiago. 2011n data berean 1.688 milioi zeuden ordainduta, hau da, aitortutakoaren ehuneko 96.


Gastuaren izaerari dagokionez, ondoko grafiko honetan ikus daitezkeen bezala, gastuaren ehuneko 88 arrunta da; 2011n ehuneko 89koa zen porzentaje hori.



Ekainaren 30era bitartean aitortutako diru-sarrera garbiak, guztira hartuta, 1.969 milioi euro izan ziren, 2011ko epe berean aitortutakoak baino ehuneko 16 gehiago; 269 milioiko emendioa, beraz. Diru-sarrera horien betetze-maila ehuneko 50,7koa izan da; 2011n ehuneko 43,4koa zen data berean.

Diru-sarrera horietatik 1.771 milioi euro bildu dira guztira, bildu beharraren ehuneko 90, beraz; 2011n 1.646 milioi bildu ziren data bererako, hau da, bildu beharraren ehuneko 97.

Diru-sarrera horien izaerari dagokionez, ondoko grafikoak erakusten duen bezala, ehuneko 77 arrunta da; 2011n ehuneko 80koa zen portzentaje hori.





Gastuak eta diru-sarrerak, bai arruntak bai kapital bidezkoak, elkarrekin lotzen baditugu, hau ikusten da, milaka aurotan hartuta:

	2011ko lehen seihilekoa	2012ko lehen seihilekoa
Gastu arruntak	1.573.667	1.590.539
Diru-sarrera arruntak	1.357.685	1.521.512
Defizit arrunta	-215.982	-69.027
Kapital-gastuak	161.333	175.944
Kapitaleko diru-sarrerak	8.470	13.669
Kapital-defizita	-152.863	-162.275

Hau da, bi seihilabeteko horietan gastu arrunten eta kapitalekoen finantzaketa-defizita ikusten da; gastu arrunten defizita, hala ere, ehuneko 68 urritu da.

Honela ikusten da, grafikoki:



Nafarroako Gobernuak 2012ko eta 2011ko lehenengo sei hilabeteetan gastatu zituen 100 eurotik helburuotarako erabili zen euro bakoitza eta honakoen bidez finantzatu zen:

Gastuen izaera	2011ko lehen seihilekoa	2012ko lehen seihilekoa	Finantza-iturria	2011ko lehen seihilekoa	2012ko lehen seihilekoa
Langileak	33	32	Zerga bidezko diru-sarrerak	78	76
Ondasunak eta zerbitzuak erostea	13	13	Transferentzien ondoriozko diru-sarrerak	2	1
Transferentzien ondoriozko gastuak	47	46	Ondare bidezko diru-sarrerak		1
Inbertsioak	4	4	Zorpetzea eta finantza-aktiboak	20	22
Finantza-zama eta -eragiketak	3	5			
	100 €	100 €		100 €	100 €

Aise ikus daitekeen bezala, nahiko egonkortasun handia dago aldi horretarako gastuen eta diru-sarreraren egiturari, baina finantza-zama eta zorpetzea emendatu egin direla ikusten da.

VII.2. AURREKONTUKO GASTUEN 2012ko EKAINAREN 30eko BETETZE-MAILA SAILKAPEN EKONOMIKOAREN ARABERA

Ondoko koadroan 2012ko ekainaren 30era arteko aurrekontu bateratua eta 2011ko data bereko datuekiko alderaketa adierazten dira (milaka eurotan):

Bateratua	2011ko lehen seihilekoa	2012ko lehen seihilekoa	Aldea, portzentajea	Aldea, guztira
Langileak	1.148.966	1.145.998	-0,26	-2.968
Ondasun eta zerbitzuetako gastuak	532.488	523.202	-1,74	-9.286
Finantzarioak	61.039	90.336	48,00	29.297
Transferentzia arruntak	1.474.989	1.435.664	-2,67	-39.325
Inbertsio errealak	288.276	283.762	-1,57	-4.514
Kapital-transferentziak	327.291	273.289	-16,50	-54.002
Finantza-aktiboak	21.895	23.403	6,89	1.508
Finantza-pasiboak	91.239	107.298	17,60	16.059
Guztira	3.946.183	3.882.953	% -1,60	-63.230

Zenbateko globaletan, emendioren bat duten kapituluak finantza-eragiketetan zentratzen dira batez ere, finantza-gastuak -29,3 milioi- eta finantza-pasiboak -16,1 milioi-; gehien urritzen direnak kapital-transferentzienak -54 milioi- eta transferentzia arruntak -39,3 milioi- dira.

Orobat azpimarratu behar da langileria-gastuetan, ondasun arruntetako gastuan eta inbertsioetan izandako urritzea.

Ondoko koadroan 2012ko ekainaren 30eko aitortutako gastuak, gastu horien betetze-maila (aurrekontu bateratuaren barruan) eta 2011ko data bereko datuekiko alderaketa adierazten dira, milaka eurotan.

Aitortutakoa	2011ko lehen seihilekoa	Betetako portzentajea	2012ko lehen seihilekoa	Betetako portzentajea	2012 /2011 aldea (%)	Aldea balio absolututan
Langileak	578.217	50,33	567.623	49,53	-1,83	-10.595
Ondasun eta zerbitzuetako gastuak	225.932	42,43	243.327	46,51	7,70	17.395
Finantzarioak	31.538	51,67	57.588	63,75	82,60	26.050
Transferentzia arruntak	737.980	50,03	722.002	50,29	-2,17	-15.978
Inbertsio errealak	64.197	22,27	64.969	22,90	1,20	772
Kapital-transferentziak	97.136	29,68	110.975	40,61	14,25	13.839
Finantza-aktiboak	10.614	48,48	10.818	46,23	1,93	205
Finantza-pasiboak	18.000	19,73	18.000	16,78	0,00	0
Guztira	1.763.614	44,69	1.795.302	46,24	1,80	31.688

Koadro honetan ikusten denez, 2012ko ekainean 2011ko data berean baino 31,7 milioi euro gehiago gastatu dira, eta gastuen betetze maila 1,5 puntu handiagoa izan da. Adierazle hori dagokionez, kapital-transferentzietan izan den betetze-maila altuagoa –ehuneko 29,68 izatetik ehuneko 40,61 izatera igo da– eta finantzena –ehuneko 51,67 izatetik ehuneko 63,75 izatera igoa– nabarmendu behar dira, orobat.

Kapituluz kapitulu, 2011koekin alderatuta gas-turik txikiena dutenak langileena⁽¹⁶⁾ eta transferentzia arruntena dira –10,6 eta 16 milioi, hurrenez hurren–; gora egiten dutenak finantza-gastuena –26 milioi–, ondasun arruntena –17,4 milioi– eta kapital-transferentziena –13,8 milioi– dira batez ere.

Egindako ordainketei dagokionez, ondoko koadroan adierazten da horien bilakaera, milaka eurotan:

Ordainketak	2011ko lehen seihilekoa	2012ko lehen seihilekoa	2012 /2011 aldea, portzentajea	Aldea balio absolututan
Langileak	577.984	567.440	-1,82	-10.544
Ondasun eta zerbitzuetako gastuak	190.332	225.242	18,34	34.909
Finantzarioak	37.220	57.587	54,72	20.367
Transferentzia	701.620	713.386	1,68	11.767
Inbertsio errealak	54.437	63.599	16,83	9.163
Kapital-transferentziak	80.229	108.571	35,33	28.342
Finantza-aktiboak	10.504	10.818	3,00	315
Finantza-pasiboak	36.000	18.000	-50,00	-18.000
Guztira	1.688.325	1.764.644	4,52	76.320

Hau da, 2012ko lehenengo seihilabetekoan 2011ko data beretan baino 76,3 milioi euro gehiago ordaindu dira, hau da, ehuneko 4,5 gehiago. Nabarmentzekoak dira ondasun arruntetan –35 milioi–, finantzazkoetan –20 milioi–, eta transferentzietan –40 milioi– izandako emendioak eta langileetan –10 milioi– eta finantza-pasiboetan –18 milioi– izandako urritzeak.

Ondoren, gastuen kapitulu nagusien betetze-maila aztertuko dugu:

- **Langile-gastuak**, 567,6 milioi, ehuneko 2 urritu dira 2012ko lehenengo seihilabetekoan. Gastu horien barruan gehien aldatu diren azpikontzeptuak hauek dira, milaka eurotan:

(16) 2012an enplegatu publikoei aplikatu zitzaizkien lansarien izozketaren ondorioz batez ere.

Izena	12/11ko lehen seihilekoa, aldea	Portzentajea
Lanpostu hutsak betetzeko kontratatutako langileen lansariak	-5.247	-23
Ordezko lanak egiteko kontratatu langileen lansariak	-4.148	-19
Produktibitate-osagarria	-2.812	-50
Aldi baterako kontratatu langileen lansariak	-2.017	-6
Gizarte Segurantzza	-1.986	-3
Langile finkoen lansariak	-747	0
Goi-karguen beste ordainsari batzuk	408	774
Sententziak eta beste kalte-ordain batzuk betetzeko ordainsariak	629	42
Funtzionarioen pentsio arruntak	1.462	4
Atxikitako langileen lansariak	1.633	3
Lanpostu partikularretarako kontratatutako langileen lansariak	1.884	12

Beraz, urritzerik handiena langile kontratatuen lansarietan ikusten da, kontratu-mota guztietan.

Alderantziz, ordea, gobernu-aldaketaren ondorioz izandako kargu-uzteengatik goi-mailako karguei emandako beste ordainsari batzuetan izandako emendioa –honetan 2011ko 2012ra lerratutako 1,3 milioi euroko gastua ere sartzen da– eta bestelako langile batzuk beren lanpostuetara sartzegatik ordainsariek izandakoa azpimarratu behar ditugu.

• **Ondasun arrunten gastuak** ehuneko 8ko emendioa izan du eta 243,3 milioi euroraino iritsi da. Zenbateko honetan 2011tik 2012ra lerratutako 28 milioi euro inguruko gastua ere sartzen da; gastu hauek batez ere: sendagaiak –13 milioi–, hitzarmenak –7,4 milioi– eta kontsumitzeko osasun alorreko materiala –1,7 milioi–.

Gastu horien barruan gehien aldatu diren azpi-kontzeptuak hauek dira, milaka eurotan:

Izena	12/11ko lehen seihilekoa, aldea	Portzentajea
Hirugarrenek egindako bestelako lanak	-2.441	-5
Zentroen mantenimendua	-1.582	-25
Publizitatea eta propaganda	-1.012	-58
Farmakoak	16.501	57
Kanonak	4.101	24
Osasun-laguntzako itunak	2.770	11
Elektrizitate-indarra, ura eta gasa	1.228	25
Kontsumitzeko osasun alorreko materiala	914	7

Horien artean, farmakoetan, kanonetan eta osasun-laguntzako itunetan izandako emendioa eta publizitate eta propagandako portzentajearen urritzea azpimarratu behar dira.

Farmakoei eta osasun-hitzarmenei dagokienera mugaturik, puntuok nabarmendu nahi ditugu:

a) Farmakoak

• 2011tik 2012ra kontzeptu honen arabera 12,9 milioi euroko gastuak lerratu dira; 2012ko hasierako aurrekontuan kontzeptu honetarako izendatutako zenbatekoaren ehuneko 27 alegia.

• 2012ko ekainaren 30ean betetze-maila hau du urte honetako aurrekontuak, kontzeptu honetan:

Farmakoak	2012ko aurrekontu bateratua	2012ko aurrekontutik kontsumitua %
Ospitalegunea	43.497.777	% 88,52
Tuterako Osasun Barrutiko Zuzendaritza	5.808.136	% 73,56
Lizarrako Osasun Barrutiko Zuzendaritza	966.683	% 89,12
Adimen osasuneko azpizuzendaritza	1.058.426	% 18,52

Hau da, Adimen Osasuneko Azpizuzendaritzak salbu, gainerako zentroek beren farmakoetarako aurrekontuen bi heren baino gehiago kontsumituak dituzte ekainaren 30erako.

b) Itunak:

- 2011tik 2012ra 7,4 milioi euroko gastuaren lerratzte bat ikusi da. Zenbatekorik handienak

Nafarroako Unibertsitate Klinikarekiko osasun-laguntzarako itunari –3,5 milioi– eta organo-garrai-orako itunari –1,7 milioi– dagozkionak dira. Lehenengo hori blokeatu egin zen, gainera, 2011n.

- 2012ko ekainaren 30ean, kontabilitate-egozpena egiteko irizpidea hau izan da aztertzen ari garen sehilabetekoetan:

Ituna	2011ko lehen seihilekoa	2012ko lehen seihilekoa	2012ko aurrekontutik kontsumitutakoaren portzentajea
Un.klin.arekiko osasun-laguntzarako ituna	2011 urtarrila-martxo	2011 iraila - 2012 otsaila	43,69
Organo-transplanteak	2011 urtarrila-martxo	2011 urria - 2012 maiatza	55,25
Nafarroako Unibertsitate Klinikako langileen osasun-arreta	2011 urtarrila-maiatza	2011 abendua - 2012 maiatza	50,71
Beste zentro batzuetako osasun-arreta	2011 urtarrila-maiatza	2011 urria - 2012 maiatza	78,68
Oxigenoterapia	2011 urtarrila-apirila	2011 azaroa - 2012 apirila	70,36
San Miguel klinikaren osasun-zerbitzua, itxaro-zerrendak murrizteko	2011 urtarrila-apirila	2011 abendua - 2012 maiatza	35,77
Ahoko eta hortzetako osasun-programa	2011ko lehen seihilekoa	2011 4. hiruhilekoa - 2012 lehen hiruhilekoa	76,32
Nafarroako Mendekotasunen Agentziarekiko programak, proiektuak eta koordinazioa	2011 urtarrila-maiatza	2011 abendua - 2012 maiatza	59,49
Osasun mentaleko zentroekiko itunak	2011 urtarrila - ekaina	2011 abendua - 2012 ekaina	49,24
Josefina Arregui osasun mentaleko zentroarekiko ituna	2011 urtarrila-maiatza	2011 abendua - 2012 apirila	47,82
Dialisia etxean egiteko ituna	2011 urtarrila-maiatza	2011 abendua - 2012 maiatza	54,19

Ikusten den bezala, desberdintasun handiak daude bi sehilabeteko horien artean denbora-tarteak egoteko. Denbora-epeen desegokitasun horiengatik eta lerratutako gastuaren ondorioz, itun hauek 2012rako kontsumituta daukate urte osorako aurrekontuen kredituaren zati handi bat.

Gure estimazioen arabera, 2012ko ekainaren 30ean aitortzeko dagoen gastuaren zenbatekoa 1,22 milioi eurokoa da.

- **Finantza-gastuetan** 25 milioi inguruko gastu-emendioa izan da; emendio horren zatirik handiena Nafarroaren zorraren interesetik –22 milioi– eta maileguen interesetatik –3 milioi– dator batez ere; 2012ko lehenengo sehilabeteko honetan, interes

horiek 47,6 eta 9,8 milioioak izan dira, hurrenez hurren.

Emendio horretan eragin handia izan du 2012ko zor guztia urtearen lehenengo sei hilabeteetan hitzartu izanak ere.

Esan beharra dago, orobat, diferentzia bat ikusi dela 2011ko sei hilabete horietako betetze-mailaren koadroetan, haietan 31,5 milioi euroko finantza-gastua agertzen baita, baina kontabilitatearen arabera 32,6 milioioa zen gastu hori.

- **Transferentzia arruntek** 722 milioi egiten dute, hau da 2011ko lehenengo sei hilabeteetan izan zena baino ehuneko 2 gutxiago –16 milioi–. Gastu horien barruan gehien aldatu diren azpikonzeptuak hauek dira, milaka eurotan:

Transferentziak	12/11 . seihilekoa, aldea	Portzentajea
Nafarroako Unibertsitate Publikoari	-14.108	-33
Enpresa publikoei	-4.174	-70
Irabazi asmorik gabeko erakundeei	-3.692	-15
Nafarroako Parlamentuari	-3.197	-35
Nafarroako toki korporazioei	-2.971	-2
Familiei eta partikularrei	-2.471	-2
Irakaskuntza ez-unibertsitarioko ikastetxeei	846	1
Ikasle partikularrei	1.039	34
Nafarroako toki korporazioei beste batzuei	1.774	6
Beste enpresa pribatu batzuei	2.629	21
Nekazaritzako eta abere-hazkuntzako enpresei	8.933	222

Aldaera horien justifikazioak hauek dira:

- Unibertsitateari eta Parlamentuari egindako transferentzien gutxitzea erakunde horietako langileak finantzatzeko hirugarren hiru hilabetekoaren ordainketa 2011n erregistratu zelako justifikatzen da.

- Enpresa publikoei egindako transferentziak gutxitzea enpresa horien berregituratzeagatik justifikatzen da.

- Irabazi-asmorik gabeko beste erakunde batzuei egindako transferentzien gutxitzea, Nafarroako

Enplegu Zerbitzuak enplegarritasuna bultzatzeko emandako diru-laguntzengatik justifikatzen da batez ere. 4 milioi urritu dira zehazki, aurrekontuetan jasotzeko beste kontabilitate-irizpide bat aplikatu delako.

- Toki korporazioentzako diru-laguntzak kontusail guztietan urritu dira, Funts orokorrean batez ere -25 milioi-.

- Beste familia eta partikular batzuentzako diru-laguntzetan, oro har 2,5 milioi urritu baldin badira ere, diferentzia hori zatika bereiziz gero, informazio hau eskaintzen digu bere kontusail nagusiei buruz:

Aurrekontuko kontusaila	2011ko lehen seihileko gastua	2012ko lehen seihileko gastua	Aldea balio absolututan	Aldea, portzentajea
Farmazia-prestazioak	78.552	83.952	5.400	7
Etxe-errentarientzako diru-laguntzak	1.911	3.700	1.789	94
Zerbitzuei atxikitako diru-laguntzak	3.977	5.057	1.080	27
Eszedentziengatik laguntzak	1.212	349	-863	-71
Hirugarren seme-alaba edo handik aurrerakoengatik laguntzei emandako diru-laguntzak	946	0	-946	-100
Irauteko baliabiderik ez duten familientzako dirulaguntzak	16.973	15.563	-1.410	-8
Mendekotasunari laguntzeko aitortu eta ordaindu gabeko diru-laguntzak ordaintzea	1.500	0	-1.500	-100
Zerbitzu pertsonalenzako laguntzak	17.682	11.658	-6.024	-34

Horri buruz ondokoa adierazi beharra dugu:

a) Lehenengo bi partidetan 2011tik 2012rako gastu-lerratze bat izan da:

Farmazia-prestazioetan, 2012ko lehenengo seihilabetekoan 2011ko azaroko fakturazioa agertzen da: 11,1 milioi euro. 2011ko egiazko gastua 144,59 milioi eurokoa izan zen, beraz; 2012ko aurrekontuan 143,1 milioi euroko kreditua agertzen da; kreditu horretatik ehuneko 59 kontsumitu da 2012ko ekainera arte. Ekitaldiaren gainerakora-

ko kontuan hartu beharko da farmazian koordinaketa ezarri izanak eta zenbait farmakoren finantzaketa publikoa kendu izanak -2012ko uztailaren 1ean ezarri ziren neurri hauek- gastu honetan izango duten eragina.

Etxebizitza-errentamenduei dagokienez, 5,2 milioi euroko lerratze bat ikusi da 2011tik 2012ra, eta 2012ko lehenengo hiruhilabetekoan aurrekontuaren ehuneko 74 bete da. 2012ko ekainaren 30ean, 4,2 milioi euroko gastu bat geratzen da

inputatzeko; data horretatik aurrera, kontusail honetako aurrekontua 1,8 milioi euroz emendatu da, aurrekontuaren zenbait aldaketa eginez, baina 1,6 milioiko kreditu-defizit bat ikusten da iraila arte.

b) Zerbitzuari atxikitako diru-laguntzen kontusaila handitu egin da, 2011n urtea oso aurreratu arte ezin izan baitzen era honetako laguntza gehiagorik erabaki, kreditua ahitu egin zelako eta horretarako aurrekontuaren aldaketa onartu behar izan zelako.

c) Eszedentziengatik eta hirugarren edo ondorengo seme-alabengatik diru-laguntzen betetze-maila apala, 2012ko laguntza horietarako deia urte horretako ekainean onartu zelako esplikatzeko da. Urte horretara arte dei irekia izaten zen.

d) Biziraupenerako baliabiderik ez zuten nafar familientzako laguntzetarako kontusailari dagokionez, 2012ko ekainaren 30en ehuneko 60ko betetze-maila zuen, eta hau azpimarratu behar dugu:

Kontzeptua	Gastu erreala 2011 (a)	2012ko hasierako aurrekontua (b)	2012ko aurrekontu bateratua (c)	b - a	c - a
Irauteko baliabiderik ez duten familientzako diru-laguntzak	35.870	17.000	26.000	-18.780	-9.780

Hau da, txosten hau erredaktatzen ari denean, 10 milioi inguruko defizit bat ikusten da 2012rako. Bai maiatzean bai ekainean, aurrekontuaren aldaketak eginez, 7 eta 12 milioiko emendioak egin ziren kontusail honetan.

Honi dagokionez, zehaztu beharra dago urtarilaren 23ko Gizarteratzeko Errentari buruzko 1/2012 Foru Lege berria indarrean sartu izanak baldintza estuagoak ezarri dituela diru-laguntza hau jaso ahal izateko.

e) Zerbitzu pertsonalen bidezko arretarako laguntzei dagokienez, 2012ko aurrekontuetan gastu honetan 2011koarekin alderatuz gutxi gorabehera ehuneko 10eko urritze bat egitea aurreikusita bazegoen ere, 2012an zehar ezarri ziren neurriek (diru-laguntzak gutxitzea, eguneko laguntza-zerbitzua diru-laguntzarekin ezin adostu izana, eta bi diru-laguntza motetarako –laguntzaile kontratatua eta familiako laguntzailea– diru-laguntzak berdintzea) esplikatzeko dute 2012ko lehenengo seihilebetekoan izan den gastuaren murriztea.

- Unibertsitatez kanpoko irakaskuntza zentroetako gastuaren emendioa Bigarren Hezkuntzako irakaskuntzarako 0,34 milioi, batxilergorako 0,36 milioi eta lanbide-hezkuntzarako 0,16 milioitan banatzen da.

- Ikasle partikularrentzako laguntzetan eta beketan egindako gastua milioi batez handitzen da; horietatik 0,6 milioi "Nafarroa bekak" dira.

- Beste toki-korporazio batzuetarako gastuak 1,7 milioi euroko emendioa izan du, udalekin 0-3

urteko haurrentzako zentroetarako hitzartutako diru-laguntzengatik.

- Beste enpresa pribatu batzuentzat eta nekazaritzako eta abere-hazkuntzako diru-laguntzen emendioak 2011tik 2012rako izandako gastu-lerrazteengatik izan dira: 1,6 eta 6 milioi euroko gastuak, hurrenez hurren. Audenasari merkataritza-politikarako emandako diru-laguntzan 1,6 milioi euroko lerratzea izan da; honi buruz esan beharra dago diru-laguntza hori blokeatu egin zela 2011n.

- **Inbertsioak** ia ez dira batere aldatu, eta gastu-maila berdin samarra izan dute bi seihilebetekoetan: 65 milioi inguru.

Aldaerarik handienak eraikinetan egindako inbertsioetan –14,7 milioi gutxiago– eta errepideetan, bideetan eta zubietan –10,6 milioi gehiago– izan dira.

Honi dagokionez, kontuan hartu behar dira irailaren 27ko 24/2011 Foru Legearen Kontratuei buruzko Foru Legea aldatzen duen atalaren ondorioak. Horrela, prestazioak emateko edo betetzeko epea luzatzeko baimena ematen da, aurrekontuen egonkortasuna bermatzeko helburua betetzeko, kontratuak aldatzeko ekimen horiek interes publikotzat kalifikatuz.

Abiada Handiko Trenaren obrei dagokienez, 2012ko ekainaren 30era arte 3,4 milioi euroko inbertsioak bete dira, urte osorako aurreikusitako guztiaren ehuneko 2,5, ondoko koadroan, milaka eurotan adierazten den bezala:

Kontzeptua	2012rako aurrekontua	2012ko lehen seihilekoan betetako zenbatekoa
Eraikitze lanak:	116.000	3.247
Proiektua eta obra-zuzendaritza	10.000	135
Desjabetzeak	8.000	-
Guztira	134.000	3.382

2011ko lehenengo seihilabetekoan, azpiegitura honetan egindako gastuak 0,3 milioikoak izan ziren.

2012ko ekainaren 30era arte, azpiegitura honetan egindako gastua hau izan da:

AHT lanak	Zenbatekoa
2008	321
2009	2.892
2010	6.612
2011	1.472
2012-ekaina	3.382
Guztira	14.679

14,67 milioi euroko gastu horrek inbertsio horretarako aurreikusitako gastu osoaren ehuneko 2 egiten du.

• **Kapital-transferentziengatiko gastuak** ia 111 milioi eurokoak izan dira 2012ko lehenengo sei-

hilabetekoan, 2011ko epe berekoak baino 14 milioi euro gehiago. Gastu horien barruan gehien aldatu diren azpikontzeptuak hauek dira, milaka eurotan:

Kapital-transferentziak	12/11ko lehen seihilekoa, aldea	Portzentajea
Beste enpresa pribatu batzuei	-1.595	-16
Foru administrazioko erakundeei	-1.521	-100
Familiei eta partikularrei	-1.198	-2
TTEEetarako kapital-transferentzietako funtsa	10.305	381
Merkataritza- eta industria-enpresei	2.865	26
Enpresa publikoei	2.723	562
Nekazaritzako eta abere-hazkuntzako enpresei	1.570	18

Urritze horien arrazoiak hauek dira:

Enpresa pribatuetarakoak, I+G+B proiektuetarako laguntzak gutxitu direlako.

Administrazioko erakundeetarako kapital-transferentzietan 2011n Nafarroako Planaren barruan Iruñeko Zitudelarako diru-laguntza bat agertzen zelako.

Familientzako eta pertsona partikularrentzako transferentzietakoa, energia berriztagarrietarako -0,37 milioi euro- eta energia aurreratzeko eta eraginkortzeko ekimenetarako diru-laguntzak -2,2 milioi euro- urritu direlako.

Emendioak arrazoi hauengatik justifikatzen dira batez ere:

TTEEetarako hornikuntzarako eta saneamenturako funtsa -5,9 milioi-, hondakin solidoen bilketa eta tratamendua -1,5 milioi- eta inbertsio-plan berezia -1 milioi-. 2011tik 2012ra 3,1 milioi euroko gastuaren lerratze bat ere bada.

Merkataritza eta industriako enpresetan, inbertsio berriak egiteko diru-laguntzak handitu direlako; nekazaritzako enpresetan, ureztapenak modernizatzeko diru-laguntzengatik.

• **Finantza-pasiboen gastuak** 19 milioi egin dute bi seihilabeteko hauetan, gastu horiek maileguen amortizazioari dagozkio. 2012ko aurrekontu bateratuan estimazio hauek ageri dira urte osorako, milaka eurotan:

9. kapitulua	2012ko aurrekontu bateratua
Zor publikoaren amortizazioa	42.000
Maileguen eta aurrerakinen amortizazioa	65.259
Beste itzulketa batzuk	39
Guztira	107.298

Azkenik, ondoko koadro honetan 2012ko ekainaren 30erako **etorkizuneko ekitaldietarako hitzartutako gastuak** adierazten dira, milaka eurotan.

Kapituluen arabera	2013	2014	2015	Gainerakoa	Guztira	Portzentajea
Langileak	16	16	0	0	32	0
Ondasun eta zerbitzuetako gastuak	15.020	6.666	1.372	0	23.058	0,81
Finantzarioak	89.196	81.632	67.779	143.188	381.794	13,36
Transferentzia arruntak	13.214	2.064	930	519	16.728	0,59
Inbertsio errealak	49.078	20.957	14.910	0	84.946	2,97
Kapital-transferentziak	69.054	40.452	18.011	2.314	129.832	4,54
Finantza-aktiboak	0	0	0	0	0	0
Finantza-pasiboak	193.211	296.532	307.228	1.423.681	2.220.652	77,73
Guztira	428.789	448.320	410.230	1.569.702	2.857.041	100
Portzentajea	15	16	14	55	100	

Koadro honetan ikusten denez, etorkizuneko ekitaldietarako hitzartutako gastu osoaren ehuneko 91 finantza-zaman kontzentratzen da (zorraren interesak gehi amortizazioak).

Zehaztu beharra dago, hala ere, datu horietan ez direla sartzen Funtzionarioen Montepiotik edo itzaleko bidesarrietatik heldu diren betebeharrak aktuariak.

2012ko abuztuaren 31n, etorkizuneko ekitaldietarako hitzartutako gastuaren zenbatekoa 2.936 milioi eurokoa zen.

VII.3. AURREKONTUKO GASTUEN 2012ko EKAINAREN 30eko BETETZE-MAILA DEPARTAMENTUEN ARABERA

Ondoko koadroan 2012ko ekainaren 30era arteko departamentuz departamentuz aurrekontu bateratua eta 2011ko data berekoarekiko alderaketa adierazten da (milaka eurotan):


Bateratua	2011ko 1. sei hilabetekoa	2012ko 1. sei hilabetekoa	2011/2012 aldea (%)	Aldea, guztira
Lehendakaritza, AAPP eta Barne Dep.	552.854	523.319	-5,34	-29.535
Ekonomia eta Ogasuna	744.063	800.184	7,54	56.121
Hezkuntza	647.224	601.470	-7,07	-45.754
Osasuna	972.572	919.220	-5,49	-53.352
Sustapena eta Etxebizitza	231.974	324.515	39,89	92.541
Landa Garapena, Industria eta Enplegua	358.446	331.508	-7,52	-26.938
Gizarte Politika	345.833	305.157	-11,76	-40.676
Kultura	75.714	60.887	-19,58	-14.827
Nafarroako Kontseilua	558	541	-3,05	-17
Nafarroako Parlamentua	16.942	16.152	-4,66	-790
Guztira	3.946.180	3.882.953	-1,60	-63.227

Zenbateko absolututan, Osasunean, Hezkuntzan eta Gizarte Politikan izan dira aurrekontu bateratuen urritzerik handienak: 53,4, 45,8 eta 40,7 milioi euro, hurrenez hurren. Kreditu-emendiorik handiena dutenak, berriz, Sustapena eta Ekonomia dira, 92,5 eta 56,1 milioi euroekin, hurrenez hurren.

Ondoko koadroan departamentu bakoitzak egindako gastua, aurrekontu bateratutik betetakoaren maila eta 2011ko data bereko datuekiko alde-raketa adierazten dira, milaka eurotan:

	2011ko lehen seihilekoa	Betetako portzentajea	2012ko lehen seihilekoa	Betetako portzentajea	12/11 aldea, portzentajea	Aldea balio absolututan
	291.735	52,77	299.831	57,29	2,78	8.096
rtamentua	321.506	43,21	349.242	43,65	8,63	27.736
	330.591	51,08	299.392	49,78	-9,44	-31.199
	464.713	47,78	481.120	52,34	3,53	16.407
	99.581	42,93	118.770	36,60	19,27	19.189
ua	96.123	26,82	92.578	27,93	-3,69	-3.545
	121.919	35,25	121.690	39,88	-0,19	-229
	25.403	33,55	24.378	40,04	-4,03	-1.025
	324	58,06	225	41,59	-30,56	-99
	11.719	69,17	8.076	50,00	-31,09	-3.643
	1.763.614	% 44,69	1.795.302	46,24	1,80	31.688

Honela ikusten da, grafikoki:



Ikusten denez, zenbateko absolututan gastua gehien urritu den departamentua Hezkuntzako da, 31 milioi gutxiago, ehuneko 9,4 gutxiago. Alderantziz, emendiorik handiena duten departamentuak Ekonomia eta Ogasunekoak $-27,7$ milioi-, Sustapenekoak -19 milioi- eta Osasunekoak $-16,4$ milioi- izan dira.

Betetze-mailari dagokionez, egonkortasuna ikusten da, oro har; bolumenagatik, hala ere, Osasuneko departamentuaren emendioa eta Sustapenekoaren urritzea azpimarratu nahi ditugu.

Portzentajetan, ondoko koadro honetan adierazten dira departamentuen gastuak:

Departamentua	2011ko lehen seihilekoa %	2012ko lehen seihilekoa (%)
Lehendakaritza, AAPP eta Barne Dep.	17	17
Ekonomia eta Ogasuna	18	19
Hezkuntza	19	17
Osasuna	26	27
Sustapena eta Etxebizitza	6	7
Landa Garapena, Industria eta Enplegua	5	5
Gizarte Politika	7	7
Kultura	1	1
Nafarroako Kontseilua		
Nafarroako Parlamentua	1	
Guztira	100	100

Hau da, gastu guztiak kontuan hartuta, Ekonomia, Osasun eta Sustapeneko departamentuek hartu dute pisu erlatibo handiagoa; Hezkuntzakoak, berriz, galdu egin du.

Gastuak izaeraren eta departamentuaren araberaz aztertzen badira, hau ikusten da:

• **Langileria-gastuak:**

Departamentua	2011ko 1. seihilabetekoa	2012ko 1. seihilabetekoa	2012/2011 aldea	Aldea, portzentajea
Lehendakaritza, AAPP eta Barne Dep.	98.027	100.057	2.030	2
Ekonomia eta Ogasun Departamentua	11.180	11.303	123	1
Hezkuntza	180.350	175.001	-5.349	-3
Osasuna	242.765	236.658	-6.107	-3
Sustapena eta Etxebizitza	5.668	5.276	-392	-7
Nekazaritzaren Gar., Ind., Enplegua eta Ingurumena	17.449	16.843	-606	-3
Gizarte Politika, Berdintasuna, Kirola eta Gazte	15.724	15.368	-356	-2
Kultura, Turismoa eta Erakunde arteko Harremanak	7.054	7.116	62	1
Guztira	578.217	567.622	-10.595	-2

Aldaketarik handienak izan dituzten departamentuak hauek dira:

Lehendakaritza: funtzionarioen pentsio arruntetara bideratutako gastua ehuneko 4 handitu delako; 1,5 milioi euro gehiago esan nahi du.

Osasunean izan den urritzea aldi baterako langileak kontratatzen, kontratazio-modu guztietan,

$-6,1$ milioi euro- eta produktibitate-osagarrietan gastu txikiagoa egin delako esplikatzeko da. Alderantziz, ordea, langile finkoen eta atxikien ordainsariak handitu egin dira $-3,7$ milioi-.

Hezkuntzan, langile finkoen ordainsariak $-3,7$ milioi- eta aldi baterako kontratatutakoen lansariak $-2,2$ milioi-, biak urritu dira.

• **Ondasun eta zerbitzuetako gastuak:**

Departamentua	2011ko 1. seihilabetekoa	2012ko 1. seihilabetekoa	12/11 aldaa	Aldea, portzentajea
Lehendakaritza, AAPP eta Barne Dep.	15.324	13.852	-1.472	-10
Ekonomia eta Ogasun Departamentua	4.637	3.816	-821	-18
Hezkuntza	19.451	16.327	-3.124	-16
Osasuna	115.340	139.055	23.715	21
Sustapena eta Etxebizitza	19.317	22.628	3.311	17
Nekazaritzaren Gar., Ind., Enplegua eta Ingurumena	7.206	5.758	-1.448	-20
Gizarte Politika, Berdintasuna, Kirola eta Gazteria	38.585	37.696	-889	-2
Kultura, Turismoa eta Erakunde arteko Harremanak	6.072	4.195	-1.877	-31
Guztira	225.932	243.327	17.395	8

Hezkuntzaren urritzea ikastetxeen mantentzearen $-1,5$ milioi-, janaritan $-0,9$ milioi- eta garbiketa-zerbitzuetan $-0,4$ milioi- gastu txikiagoa izan delako esplikatzeko da batez ere.

Osasuneko departamenduan izan den emendia farmakoetan eta osasun-arratarako hitzarmenetan izan den gastu handiagoak $-16,5$ milioi eta $2,7$ milioi, hurrenez hurren- esplikatzeko dute.

• **Transferentzia arruntak:**

Departamentua	2011ko 1. seihilabetekoa	2012ko 1. seihilabetekoa	12/11 aldea	Aldea (%)
Lehendakaritza, AAPP eta Barne Dep.	161.667	158.221	-3.446	-2
Ekonomia eta Ogasun Departamentua	255.234	256.767	1.533	1
Hezkuntza	115.779	105.053	-10.726	-9
Osasuna	86.660	91.037	4.377	5
Sustapena eta Etxebizitza	6.060	8.121	2.061	34
Nekazaritzaren Gar., Ind., Enplegua eta	32.702	27.519	-5.183	-16
Gizarte Politika, Berdintasuna, Kirola eta	61.666	59.218	-2.448	-4
Kultura, Turismoa eta Erakunde arteko	6.769	8.134	1.365	20
Nafarroako Kontseilua	317	225	-92	-29
Nafarroako Parlamentua	11.126	7.707	-3.419	-31
Guztira	737.980	722.002	-15.978	% -2

Osasun departamenduaren emendia 2011tik 2012ra izandako lerratzearen ondorioz farmazia-prestazioetan izandako gastu handiagoagatik esplikatzeko da.

Hezkuntza, urritze hori 2011n eta 2012an Unibertsitate Publikoari egindako transferentziari dagokionez aplikatu behar den kontabilitate-irizpidea desberdina izan delako esplikatzeko da batez ere; 2011n, izan ere, bertako langileen lansarieta-

rako hirugarren hiru hilekoko transferentzia sartuta baitzegoen.

Ondoko koadroan, Osasun Departamentuaren 2. eta 4. kapituluari dagokienez, 2011ko gastu erreala -2012 ra lerratua gehituz kontabilizatuta -2012 ko aurrekontuarekin alderatzen da; txosten hau idazten den datan, zehazki aurrekontuaren kapitulu hauetarako, urte osorako 50 milioi euro inguruko defizita begiz jotzen da, bitartean har daitzkeen gainerako neurriak kontuan hartu gabe:

Kapitulua	2011 betetako (a)	2011 inputatu gabea (b)	Gastu erreal a = a + b	2012rako aurrekontu a (d)	2012ko aurrekontu bateratua (e)	c - d	c - e
Ondasun eta zerbitzuetan egindako gastua	241.378	28.208	269.586	226.693	233.072	42.893	36.514
Transferentzia arruntak	163.902	11.213	175.115	162.083	162.253	13.032	12.862
Osasun Departamentuaren defizita 2012ko ekainean						55.925	49.376

2012ko ekainera arte, Osasun Departamentuaren aurrekontuan 6,4 milioi euroko emendioa egin da, aurrekontuaren aldaketak eginez. Emendio hori farmakoetara -2,7 milioi- eta hitzarmenetara -2 milioi- bideratzen da batez ere.

2012ko ekainaren 30etik irailaren 15era bitartean, Osasun Departamentuaren aurrekontuan 22,6

milioi euroko emendioa egin da. Emendioa izan duten kontusail garrantzitsuenak farmakoei dagokiena -17,8 milioi- protesiei dagokiena -2,5 milioi- eta produktu kimikoei eta laborategiko produktuei dagokiena -1,8 milioi- dira berriro.

• Departamentuen **inbertsioengatiko gastuak** ondoko koadro honetan adierazten dira:

Inbertsioak	2011ko 1. sei hilabetekoa	Betetako portzentajea	2012ko 1. sei hilabetekoa	Betetako portzentajea	12/11 aldea, portzentajea	Aldea balio absolututan
Lehendakaritza, AAPP eta Barne Dep.	3.389	21,55	4.354	48,52	28,48	965
Ekonomia eta Ogasuna	578	6,16	983	11,09	70,11	405
Hezkuntza	12.041	41,22	2.277	22,00	-81,09	-9.764
Osasuna	19.870	26,80	14.167	33,29	-28,70	-5.703
Sustapena eta Etxebizitza Landa Garapena, Industria eta Enplegua	1.470	8,15	1.770	13,90	20,46	301
Gizarte Politika	5.675	13,64	7.042	52,85	24,10	1.368
Kultura	675	18,53	1.088	37,00	61,26	413
Nafarroako Kontseilua	0	0,00	0	0,00	0,00	0
Nafarroako Parlamentua	0	0,00	0	0,00	0,00	0
Guztira	64.197	% 22,27	64.969	% 22,90	1,20	772

Zenbateko globaletan, Hezkuntzako eta Osasuneko Departamentuek 9,8 eta 5,7 milioi euroko urritzeak egin dituzte, hurrenez hurren, beren inbertsioetan; Sustapenekoak izan du emendiorik handiena: 12,8 milioi euro.

• Betetze-maila ia berdina izan da aztertzen ditugun bi aldietan. Departamentuz departamen-

du, inbertsio-tamainari dagokionez, Hezkuntzako da konparaziozko betetze-mailarik apalena duena -ehuneko 41etik 22ra-; handiena, berriz, Osasun Departamentuak -ehuneko 27tik 33ra-.

Ondoko koadroan, departamentuen **kapital-transferentziengatiko gastuak** adierazten dira, milaka eurotan:

Departamentua	2011ko 1. seihilabetekoa	2012ko 1. seihilabetekoa	12/11 aldea	Aldea (%)
Lehendakaritza, AAPP eta Barne Dep.	2.849	13.312	10.463	367
Nekazaritzaren Gar., Ind., Enplegua eta Ingurumena	38.197	40.687	2.490	7
Gizarte Politika, Berdintasuna, Kirola eta Gazteria	269	2.365	2.096	780
Sustapena eta Etxebizitza	48.036	49.458	1.422	3
Osasuna	79	204	126	160
Ekonomia eta Ogasun Departamentua	23	2	-21	-93
Kultura, Turismoa eta Erakunde arteko Harremanak	4.112	3.844	-268	-7
Hezkuntza	2.971	735	-2.236	-75
Nafarroako Parlamentua	594	369	-225	-38
Nafarroako Kontseilua	7	0	-7	-100
Guztira	97.136	110.975	13.839	% 14

Aldaketarik handienak alor hauetan gertatu dira:

- Lehendakaritza, Tokiko Erakundeentzako Kapital Funtsak izan duen emendioagatik; horretan 2011tik 2012rako lerratzea ere sartua dago.

- Landa Garapenean, enpresa publikoei egindako transferentziengatik -2.9 milioiko emendia-, merkataritzako eta industriako enpresei egindako engatik -1,8 milioi euro, inbertsio berrietarako gehienbat- eta nekazaritzako enpresei egindako engatik -1,5 milioi, ureztapenak hobetzeko batez ere-.

- Gizarte Politikan, 1,6 milioi euroko emendia ikusten da tokiko erakundeei egindako beste transferentzia batzuetan (gazteentzako eta kirole-

tarako instalazioetarako batez ere) eta 0,5ekoa irabazi asmorik gabeko erakundeentzat (zaharren etxeetarako, gaztetxeetarako...).

- Sustapenean, familiei eta partikularrei krisiari aurre egiteko neurrietarako eta bioklimatismorako egindako transferentzia handiagoak izan dira batez ere emendioaren arrazoia.

- Hezkuntzan izan den urritzea tokiko erakundeei ikastetxeetan obrak egiteko egindako beste transferentzia batzuetan izan da batez ere -2,7 milioi-.

Azkenik, ondoko koadro honetan 2012ko ekainaren 30erako **etorkizuneko ekitaldietarako hitzartutako gastuak** adierazten dira, milaka eurotan:

Departamentuz departamentu	2013	2014	2015	Gainerakoa	Guztira	Portzentajea
Lehendakaritza, AAPP eta Barne Dep.	2.412	16	0	0	2.428	0,08
Ekonomia eta Ogasun Departamentua	282.401	377.493	374.167	1.555.328	2.589.389	90,64
Hezkuntza	4.011	920	734	9.502	15.166	0,53
Osasuna	8.356	161	165	219	8.900	0,31
Sustapena eta Etxebizitza	41.614	21.543	14.905	0	78.062	2,73
Landa Garapena, Industria eta Enplegua	73.361	41.757	19.021	4.653	138.793	4,87
Gizarte Politika	16.245	6.409	1.238	0	23.892	0,84
Kultura	390	20	0	0	410	
Guztira	428.789	448.320	410.230	1.569.702	2.857.041	100
Portzentajea	15	16	14	55	100	

Laburtuz, bada, Ekonomia eta Ogasuneko Departamentuak hartzen du etorkizuneko ekitaldietarako hitzartutako gastuaren ehuneko 91; portzentaje hori zorpetzearen finantza-zamak eragina da.

VII.4. AURREKONTUAREN 2012ko EKAINA-
REN 30eko BETETZE-MAILA

Ondoko koadroan 2012ko ekainaren 30era arteko diru-sarreraren aurrekontu bateratua eta 2011ko data berekoarekiko alderaketa adierazten da (milaka eurotan):

Bateratua	2011ko 1. seihilabetekoa	2012ko 1. seihilabetekoa	Aldea, portzentajea	Aldea, guztira
Zuzeneko zergak	1.409.288	1.434.617	1,80	25.329
Zeharkako zergak	1.849.413	1.763.838	-4,63	-85.575
Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrerara batzuk	162.364	118.313	-27,13	-44.051
Transferentzia arruntak	71.558	69.191	-3,31	-2.367
Ondare bidezko diru-sarrerak	18.967	16.710	-11,90	-2.257
Inbertsioen besterentzea	4.462	9.466	112,15	5.004
Kapital-transferentziak	22.685	20.323	-10,41	-2.362
Finantza-aktiboak	28.258	27.958	-1,06	-300
Finantza-pasiboak	349.800	422.536	20,79	72.736
Guztira	3.916.794	3.882.953	-0,86	-33.841

Zenbateko globaletan, 2012rako diru-sarreraren aurrekontua, aurreko urtekoa baino 33,8 milioi euro gutxiagokoa da, ia ehuneko 1 txikiagoa.

Kapituluz kapitulu bereizita, finantza-pasiboe-tan, zor berria eskuratu beharrak eraginda, eta zuzeneko zergetan ikusten da emendiorik handie-na.

Aipatzekoa da, orobat, zeharkako zergei dago-kienez aurreikusita dagoen urritzea, BEZari eta tasa eta prezio publikoei dagokienez batez ere.

Ondoko koadroan 2012ko ekainaren 30eko aitortutako diru-sarrerak, diru-sarrera horien bete-tze-maila (aurrekontu bateratuaren barruan) eta 2011ko data bereko datuekiko alderaketa adieraz-ten dira, milaka eurotan:

Aitortutakoa	2011ko 1. seihilabetekoa	Betetako portzentajea	2012ko 1. seihilabetekoa	Betetako portzentajea	12/11 aldea, portzentajea	Aldea balio absolututan
Zuzeneko zergak	487.795	34,61	613.464	42,76	25,76	125.669
Zeharkako zergak	742.912	40,17	798.802	45,29	7,52	55.889
Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrerara batzuk	96.563	59,47	75.132	63,50	-22,19	-21.431
Transferentzia arruntak	25.681	35,89	17.556	25,37	-31,64	-8.125
Ondare bidezko diru-sarrerak	4.734	24,96	16.557	99,09	249,73	11.823
Inbertsioen besterentzea	2.233	50,04	2.918	30,83	30,70	686
Kapital-transferentziak	6.237	27,50	10.750	52,90	72,35	4.513
Finantza-aktiboak	14.910	52,77	15.069	53,90	1,06	158
Finantza-pasiboak	319.220	91,26	418.827	99,12	31,20	99.606
Guztira	1.700.286	% 43,41	1.969.075	50,71	15,81	268.789

Hau da, 2012ko lehenengo seihilabetekoaren bukaeran, aurreko urteko epe berean baino 269 milioi euroko diru-sarrerera gehiago aitortu dira, ia ehuneko 16 gehiago.

Emendio hori aurrekontuaren betetze-maila handiago batekin lotuta dago; 2011n aurrekontuaren ehuneko 43,4 zegoen beteta data horretarako; 2012an, berriz, ehuneko 50,7raino iristen da portzentaje hori. Honi dagokionez, bereziki azpimarratzekoak dira ondare bidezko diru-sarrereren eta finantza-pasiboaren betetze-mailak, ia ehuneko 10era iristen baitira.

Kapituluz kapitulu aztertuta, nabarmentzekoa da zergei dagokiena, bai zuzenekoei bai zeharka-

koei, eta baita finantza-pasiboi dagokiena ere. Alderantziz, berriz, tasak eta transferentzia arruntak.

Zuzeneko zergei dagokienez, 2011ko abenduan ondarearen gaineko zerga berriro ezartzea erabakitzen dela azpimarratu behar da; 30 milioikoak ziren hasierako aurreikuspenak; 2012ko otsailean, orobat, PFEZ tasa berriak aplikatzen hasten dira, diru-sarreretan urteko 45 milioiko emendioa izango delako aurreikuspenarekin.

Bildutako zenbatekoei dagokienez, ondoko koadroan adierazten da horien bilakaera:

Dirubilketa garbia	2011ko 1. seihilabetekoa	2012ko 1. seihilabetekoa	Aldea, portzentajea	Aldea, guztira
Zuzeneko zergak	473.715	436.027	-7,96	-37.688
Zeharkako zergak	742.129	797.685	7,49	55.557
Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrerera batzuk	64.545	58.894	-8,76	-5.651
Transferentzia arruntak	22.772	17.471	-23,28	-5.301
Ondare bidezko diru-sarrerak	3.304	15.030	354,98	11.727
Inbertsioen besterentzea	1.668	2.507	50,28	839
Kapital-transferentziak	4.204	10.340	145,96	6.136
Finantza-aktiboak	14.539	14.336	-1,40	-204
Finantza-pasiboak	319.220	418.827	31,20	99.606
Guztira	1.646.096	1.771.116	% 7,59	125.021

Hau da, 2012ko lehenengo seihilabetekoan 2011ko data beretan baino 125 milioi euro gehiago bildu dira. Dirubilketaren emendiorik handienak zeharkako zergetan eta finantza-pasiboetan ikusten dira; beste muturrean, berriz, zuzeneko zergetan izan den urritzea nabarmentzen da.

Ondoren zuzeneko eta zeharkako zergen bilakaera aztertuko dugu. Bilakaera hori aitortutako diru-sarrereren adierazleari dagokionean aztertuko dugu:

Aitortutako garbia	2011ko 1. seihilabetekoa	2012ko 1. seihilabetekoa	Aldea, portzentajea	Aldea, guztira
PFEZ	486.945	518.706	6,52	31.761
Ez-egoiliarak	4.788	2.744	-42,69	-2.044
Sozietateak	-23.767	43.877	285,00	67.644
Ondarea	0	25.807	100,00	25.807
Oinordetzak	19.599	22.330	13,93	2.731
Iraungiak	231	0	-100,00	-231
Zuzeneko zergak, guztira	487.796	613.464	25,76	125.669
Hitzarmenaren doitzea	30.148	205.846	582,78	175.698
BEZ zuzeneko kudeaketa	438.441	337.433	-23,04	-101.008
Zerga bereziak	220.753	209.148	-5,26	-11.605
Aseguru-primak	10.326	10.698	3,60	372
Ondare-eskualdaketen eta EJDen gaineko zerga	30.639	24.498	-20,04	-6.141
Hidrokarburoak	12.606	11.179	-11,32	-1.427
Zeharkako zergak, guztira	742.912	798.802	7,52	55.889
Zeharkako zergak, guztira	1.230.707	1.412.266	14,75	181.559

Ikusten denez, zuzeneko zergek ehuneko 25,8ko emendioa izan dute eta zeharkako zergak, berriz, ehuneko 7,5 urritu dira. Oro har hartuta, aitortutako zergek ehuneko 14,8ko emendioa izan dute, 181,5 milioi euroko hazkundera, beraz.

Zerga-irudirik garrantzitsuenei begiratuz, alderdiok azpimarratu nahi ditugu:

- PFEZari dagokionez, ehuneko 6,5eko emendio aitortua izan da, ia 32 milioi eurokoa, beraz. Emendio horren arrazoia 2012ko otsailaz geroztik aplikatzeko zerga-tasak jaso izana izan daiteke.

- Sozietateen gaineko zerga 2011n zena baino egoera hobean dago, urte horretan balio negati-

boa baitzuen eta balio positiboa izatera igaro da 2012an, zerga honen kudeaketan ordainketa zati-katuko sistema kudeatzeko hartu diren neurrien eraginez, seguru asko.

- Berrir sartu da ondarearen gaineko zerga; orain arte 26 milioi euroko kopurua aitortu da zerga honen eraginez.


- Estatuarekiko hitzarmenaren doikuntza asko jaso da, eta 2011n 30 milioiokoa izatetik 2012an 206 milioiokoa izatera aldatu da. Emendio hau BEZ kalkulatzeko indarrean zegoen metodologia 2012ko apirilaz gero aldatu izana da, batez ere; era honetan banatzen da xeheki urte honetan, milaka eurotan:

Hitzarmenaren doitzea	2012ko lehen seihilekoa
2011ko behin betiko likidazioa	-97.302
1. hiruhilabetekoa. BEZ eta zerga bereziak	36.038
2. hiruhilabetekoa. BEZ eta zerga bereziak	267.110
Guztira	205.846

- BEZ zuzeneko kudeaketan, aldaketa horren ondorioz, urritze handia sumatzen da aitortutako eskubideetan: 101 milioi euroko urritzea; horren arrazoia ondoko paragrafoetan komentatuko da.

- Zerga bereziak eta ondare-eskualdaketak eta egintza juridiko dokumentatuak 11,6 eta 6 urritu dira, hurrenez hurren.

Grafikoki erakutsita, honela laburbiltzen dira komentario horiek guztiak:



Aipatutako zerga horiek xehekiago zehaztu beharra dago, BEZaren kalkulua egiteko Estatuarekiko Hitzarmen Ekonomikoan 2012ko apirilaren 1etik aurrera sortzen den egoera berria hartu behar da kontuan.

BEZ 2010-2014 bost urteko aldirako doitzea egiteko Estatuaren eta Nafarroaren arteko Hitzarmen Ekonomikoaren aldaketa hori, bere egoitza Nafarroan duen beribilgintzako enpresa batek bere merkataritza-jardueragatik Zerga Agentziak egindako BEZaren likidazioari buruz egindako jardueren ondorioz egin zen.

Jarduera horien ondorioz, enpresa horrek egiten dituen esportazioak Nafarroatik zuzenean egiten dira apirilaz gero, eta ez lehen, esportazio horiek Europako Batasunean zegoen mendeko sozietate baten bitartez egiten zirenean bezala. Horrela, esportazio horiek BEZtik salbuetsita daudenez, Nafarroako Gobernuak galdu egiten du BEZari dagokion tasa hori; horrela bada, Zerga Agentziaren irizpideak aplikatuz gero, BEZ zuzeneko kudeaketaren guztirako dirubilketak Nafarro-

ako kontuetan eragin negatiboa izango zukeela –360 milioi gutxiago 2012an– estimatzen zen.

Hitzarmen horretan egin den aldaketarekin, galera horren zati bat, hiru hilabetez behingo doikuntzen bitartez, Estatuak ordainduko duela bermatzen da.

Eta berean, doikuntza horiengatik aparteko beste konpentsazio berezi bat erabakita dago; lehengo metodologia aplikatuz izango litzatekeen BEZ dirubilketa osoa eta metodologia berria aplikatuz biltzen dena alderatuz kalkulatu da. Alderaketa horrek erakutsiko balu jokamolde horren ondorioz urteko aurrekontuetan Nafarroarentzat 25 milioi gutxiagokoa dela, alde hori Nafarroak konpentsatu beharko lioke Estatuari; zenbateko hori aipatutako 25 milioi horiek baino handiagoa baldin bada, diferentzia hori Estatuak konpentsatuko lioke Nafarroako Gobernuari.

Hitzarmenaren aldaketa horren ondorioz, ondoko koadroan erakusten da zein izan den BEZari dagozkion behin-behineko doikuntzen bilakaera⁽¹⁷⁾ 2011ko lehenengo seihilabetekoan eta 2012koan, milaka eurotan:


BEZaren Hiruhilabeteko doikuntza	2011	2012
Lehenengo hiruhilabetekoa	69.421	61.223
Bigarren hiruhilabetekoa	71.421	248.337
Kompentsazio berezia	-	29.317
Guztira	140.842	338.876

Azkenik, bada, BEZ zuzeneko kudeaketa urritu egin da, eta behin-behinekoz Hitzarmenaren arabera doikuntzetatik heldu dena handitu egin da, ondoko koadroan ikusten den bezala (milaka eurotan):

BEZ aitortua	2011ko lehen seihilekoa	2012ko lehen seihilekoa
Zuzeneko kudeaketa	438.441	337.433
Hitzarmenaren arabera doikuntza	30.148	222.205
Guztira	468.589	559.638

(17) Ez da ahaztu behar doikuntza hauek "behin-behinekoak" direla; 2013ko lehenengo hiruhilabetekoan ezagutuko da benetan doikuntza hauek izango duten eragina.

Honela ageri da grafikoki:



Ondoko koadro honetan zerga-irudi nagusi-en⁽¹⁸⁾ arabera dirubilketa likidoa⁽¹⁹⁾ aztertzen dugu, Dirubilketako Zerbitzuaren txosten baten arabera, dirubilketako kudeaketaren adierazle gisa:

Dirubilketa likidoa	2011ko 1. seihilabetekoa	2012ko 1. seihilabetekoa	Aldea, portzentajea	Aldea, guztira
PFEZa	478.367	428.826	-10,36	-49.541
Sozietateak	-21.249	-6.129	71,16	15.120
BEZa	543.049	611.644	12,63	68.595
Zerga bereziak	222.544	192.503	-13,50	-30.041
Ondare-eskualdaketen eta EJDen gainerako zerga	32.316	25.163	-22,13	-7.153
Beste zerga batzuk	47.405	44.715	-5,67	-2.690
Zergak, guztira	1.302.432	1.296.722	-0,44	-5.710

(18) BEZ zergak eta Zerga Bereziek Estatuarekiko Hitzarmenaren lehenengo hiruhilabeteko doikuntzak eginik dauzkate.

(19) Abian dagoen ekitaldian eta ekitaldi itxietan eskudirutan egindako kobrantzak gehi formalizazioak eta konpentsazioak ken eskudirutan eta konpentsaziotan egindako itzulketak hartzen dira dirubilketa likidotzat.

Ikusten den bezala, dirubilketa likido globala antzeko zenbatekotan mantentzen da aztertzen ari garen bi seihilabetekoetan, 2012an beherakadatxo arin bat izan bada ere. Zergak banaka hartuta, PFEZaren eta Zerga berezien beherakada eta

BEZaren eta Sozietateen gaineko zergaren gorakadak nabarmentzen dira, azken honetan dirubilketa likidoa oraindik ere negatiboa den arren.

PFEZ eta Sozietateen gaineko zerga xehekiago aztertzen badira, hau ikusten da:

Dirubilketa likidoa	2011ko lehen seihilekoa	2012ko lehen seihilekoa
PFEZ	478.367	428.826
Lanarengatiko atxikipenak	547.158	545.596
Kapitalarengatiko atxikipenak	57.761	55.122
Zatiketak	20.977	19.849
Kuota diferentziala	-147.529	-191.740
SOZIETATEAK	-21.249	-6.129
Kapitalarengatiko atxikipenak	25.205	24.270
Konturako ordainketak	7.171	10.217
Kuota diferentziala	-53.625	-40.616

Hau da, PFEZen lanarengatiko atxikipenak ia ez dira batere aldatzen; kapitalarengatikoak, berriz, ehuneko 5 urritzen dira. Kuota diferentzial negatiboa ia ehuneko 30 hazten da 2012an.

Sozietateen gaineko zergari dagokionez, ehuneko 4 urritzen dira kapital-atxikipenak, konturako

ordainketak ugaldu egiten dira eta kuota diferentzial negatiboa gutxitu egiten da.

Ondoko koadroan adierazten da zergengatiko dirubilketa osoaren eta likidoaren aldaketa –biak ere kutxa-irizpidez neurtuta–, milaka eurotan:

Zergak	Dirubilketa osoa +/- 2012/201 sarrerak	Dirubilketa likidoa +/- 2012/201 sarrerak
PFEZ	-3.421	-49.541
Sozietateak	-1.188	15.120
BEZ	111.881	68.595
Zerga bereziak	-23.687	-30.041
Ondare-eskualdaketak eta EJD	-6.910	-7.153
Beste zerga batzuk	-1.375	-2.690
Zergak, guztira	75.300	-5.710

(20) 2012ko abuztuan dirubilketa likido metatua 2011ko aldi berekoa baino ehuneko 5,86 urriagoa izan da. Hala eta guztiz ere, urria arte itxaron beharko da Hitzarmenaren doikuntzaren ondorioak, BEZari buruz batez ere, ezagutzeko.

(21) Kuota diferentziala, ondoriozko kuotari lanarengatiko, jarduera profesionalengatiko atxikipenez kontura egindako beste edozein ordainketa edo ekitaldian zehar kontura egindako beste edozein ordainketa kenduta ateratzen den kuota da.

22) Dirubilketa osotzat dirutan eta gastuen konpentsazioz eta formalizazioz egindako kobrantzen batura hartzen da.

Oro har hartuta, dirubilketa osoa 75,3 milioiz handitu da ekainera arte, BEZaren eraginez batez ere; beherakadarik handiena zerga berezietan izan da.

Dirubilketa likidoa, aldiz, 5,7 milioi euro gutxitu da. Urritzerik handiena PFEZ eta Zerga bereziek


dute; Sozietateen gaineko zergari eta BEZari dagokionez dirubilketa hobetu egin da.

Azkenik, zerga nagusien itzulketak –dirutan zein konpentsaziotan– aipatu nahi ditugu (milaka eurotan):

Itzulketak	2011ko lehen seihilekoa	2012ko lehen seihilekoa	Aldea, portzentajea	Aldea, guztira
PFEZ	159.889	206.009	28,85	46.120
Sozietateak	70.500	54.192	-23,13	-16.308
BEZ zuzeneko kudeaketa	236.920	266.031	12,29	29.111
Estatuaren doikuntzak	79.104	95.879	21,21	16.775
Gainerako zergak	1.153	6.466	460,80	5.313
Guztira	547.566	628.577	% 14,79	81.011

Itzulketak ehuneko 15 ugaltu dira; horrek 81 milioi euro esan nahi du. Zergak banaka harturik, PFEZ eta BEZ zuzeneko kudeaketa nabarmen-tzen dira; 46 eta 29 milioi egiten dute hurrenez hurren; sozietateen gaineko zergari dagokionez, berriz, 16 milioi euro gutxitu dira itzulketak.

Honela ikusten da, grafikoki:



Gainerako diru-sarrerei dagokienez, 2011ko lehenengo seihilabetekoarekin alderatuta izan diren aldaketa nagusiak aipatu nahi ditugu:

- Tasen, prezio publikoen eta beste diru-sarrera batzuen kapituluak, 2012ko lehenengo seihilabetekoan 75 milioi euroko eskubideak izan ziren, hau da, 2011n baino 21,4 milioi euro gutxiago; horretan kontusail edo aldaera hauek nabarmentzen dira:

a) Jokoarengatik tasa bidezko diru-sarrerak 13 milioi urritu dira, ehuneko 23 alegia.

	2011ko 1. seihilabetekoa	2012ko 1. seihilabetekoa	Aldea, gutxira	Aldea (%)
Premiamendu-errekarguak	11.182	8.217	-2.965	-26,5
Isunak	12.022	5.326	-6.696	-55,7
Atzeratu gabeko zorren berandutzeagatik interesak	4.955	3.149	-1.806	-36,4

- Transferentzia arruntak: 17,5 milioi euroko eskubideak, 2011n baino ehuneko 31,6 gutxiago, Estatuko Administrazio Orokorretik Mendekotasunaren arreta -2,77 milioi gutxiago- eta Enpleguaren sustapena eta beste plan batzuk -5 milioi gutxiago- jasotako transferentziez diru-sarrera gutxiago izan delako, batez ere.

- Ondare bidezko diru-sarreraren 5. kapituluak, 16,5 milioirekin, 11,8 milioiko emendioa izan du, 2011koarekin alderatuta ehuneko 248ko emendioa hain zuzen; horietan azpimarratzekoak dira sortutako kupoiengatik diru-sarrerak -10,55 milioi-; 2011n, berriz, abenduan erregistratu ziren sortzape guztiak, guztira 2,9 milioi egiten zutela. Orobat ikusten da kontu korranteetako saldoen errentagarritasuna handitu egin dela; 1,13 milioi egiten dute, 2011n baino ehuneko 138 gehiago, alegia.

- Inbertsio errealeen besterentzeari dagokionez, 0,68 milioi handitu dira aitortutako diru-sarrerak -ehuneko 30,7 gehiago-, lursail eta hirigintzako sailletako parte-hartze gehiago saldu direlako eta lursail-truke gehiago egin direlako.

- Kapital-transferentziengatik diru-sarrerak 10,75 milioi eurokoak izan dira, 2011n baino ehuneko 72,35 gehiago; emendio hori kanpotik heldu da batez ere: FEDER sarrerak -2,3 milioi euro- eta ureztatzeko sail berriak -1,9 milioi euro-.

- Finantza-aktiboetan, 0,15 milioi euroko aldatatxo bat baizik ez da izan, Montepioaren kudeaketan izandako urritzeagatik eta betebeharr finkatuengatik itzulketak ugaltu direlako -0,5 milioi euro- heldu dena batez ere.

b) Adineko pertsonentzako zentrozen erabiltzaileen ekarpena 2011n 4,4 milioi izatetik 2012an milioi bat izatera aldatu da.

c) Itzulketetan, aipatzekoak dira Estatuarentzako ekarpenaren behin betiko likidazioaren urritzea (8,1 milioi, 24,3 milioi zirenak) eta diru-laguntzen itzulketengatik 4,5 milioiko emendioa.

d) Dirubilletaren kudeaketatik heldu diren diru-sarrerei dagokienez, ondoko koadroan sarrera horien bilakaera erakusten da; urritzeak dira denak, milaka eurotan adierazita:

- Finantza-pasiboetan ia 100 milioi euroko emendioa izan da, eta 418,83 milioi euroko zenbateko bat izatera iritsi da. Emendio horren arrazoiak hauek izan dira, batez ere:

a) Zor gutxiago jaulki delako -34,5 milioi-; 2012ko lehenengo seihilabetekoan 220 milioiko jaulkipen nominala izan zen guztira.

b) Hitzartutako maileguak 65,8 milioi eurokoak izatetik 200 milioikoak izatera igo direlako.

Aurrekontuetako diru-sarrerak kontabilitatean tratatzeko moduari dagokionez, eta sarrera horiek hilerok biltzeari dagokionez, puntuok zehaztea komeni da:

1. Diru-sarreraren aurrekontuaren hilabetez hilabete betetzeari dagozkion koadroetan (ikus txosten honen V. atala), hasierako aurrekontuari eta aurrekontu bateraturi dagozkion zutabeez gainera, eskubide aitortu garbien eta dirubilketa garbiaren zutabeak ere sartu dira.

2. Kontabilitate Zerbitzua: SAP kontabilitate-sistemak eta Hirugarrenen Kontabilitate Laguntzaileko Sistemak (CAT) eskaintzen duten informazioan oinarrituta prestatzen du aurrekontuaren betetze-mailari buruzko txostena, zerga-bilketarako batez ere:

- Aitortutako eskubide garbiak zergen itzulketak kendu ondoren ondorioztatzen dira SAP kontabilitatetik. Itzulketei dagokienez, eskumena duen organoak zein unetan onartzen dituen kontuan hartu gabe kentzen dira eskubideetatik.

- Zergez bestelako diru-sarreraren bilketa ere SAP kontabilitatetik ondorioztatzen da, informazio hori dagokion aurrekontuen betetzezik zuzenean ondorioztatuz.

- Zerga bidezko diru-sarreraren bilketa Dirubilketa Zerbitzuak hileroko prestatzen duen txostenetik abiatuta ondorioztatzen da CATetik, eta datuak transformatzeko prozesu bat eskatzen du, aurrekontuaren betetze-maila abian den ekitaldiaren zein ekitaldi itxien aurrekontuko kontzeptu gisa kalkulatzeko datuak ateratzeko.

3. Dirubilketa Zerbitzua: zergen eta tasen dirubilketaren hileroko txostena prestatzen du:

- Informazio hau CATetik ateratzen du, dirutan egindako kobrantzetan eta konpentsazioetan oinarrituta.

- CATen bidez ezagutzen dira, orobat, diruzaintzak egiten dituen zergen itzulketak-sortak.

- Bi atal horietako zenbatekoen kenketa eginez, kobrantza garbiak ateratzen dira.

- Dirubilketa osotzat dirutan eta gastuen konpentsazioz eta formalizazioz egindako kobrantzen batura hartzen da; eta dirubilketa likidotzat, dirubilketa osoa ken dirutan eta konpentsazioz egindako itzulketak.

- Dirubilketaren informazio hau diru-sarreraren kontzeptuaren eta dirubilketa hori egiten den unearen arabera sailkatzen da; kaxa-irizpidea aplikatzen da, beraz.

- Aurrekontuarekin lotzeko, estimazio bat egiten da bai aurrekontuko kontzeptuetarako bai diru-sarreraren horiek dagozkion ekitaldirako. Eta hala:

a) Kobrantzak zuzenean aplikatzen zaizkio zerga bakoitzari, ordainketa-gutunaren arabera, eta, hasieran, abian den ekitaldikotzat hartzen dira.

b) Kudeaketa arrunteko kobrantzak, atzerapeneakoak eta premiamendukoak zergen eta aurrekontuko gainerako kontzeptuen arabera proportzionalki banatzen dira, eta estimazio bat egiten da zein dagokion abian den ekitaldiari eta zein ekitaldi itxiei, irizpide normalizatu batzuen arabera.

4. Aurrekontuen kontabilitatetik ateratzen diren aitortutako eskubide garbiak (aitortutako eskubide guztiak ken itzulketak) aldi bakoitzeko dirubilketa

garbiarekin (kobrantzak ken itzulketak) alderatuta, gerta daiteke, itzulketak egin beharreko zergei dagokienez, dirubilketa hori aitortutako eskubide garbiak baino gehiago izatea. Halakorik gertatzen denean, aurrekontu korronteko dirubilketa garbiaren zenbatekoa aldi horretako eskubide aitortu garbien zenbatekoa dela irizten du kontabilitateak, eta bien arteko aldea aurreko ekitaldietako kobrantza garbitzat hartzen da.

5. Gerta daiteke, era berean, beren izaeraz bi kontabilitate-sistematan erregistratzen diren eragiketak ere izatea, eta horrek asko zaildu lezake eragiketa horien kontrola eta jarraipena egitea.

2012ko ekainean egin zen egiaztapenean desberdintasun bat ikusten da aurrekontu-betetzearen dirubilketa garbiaren –kontabilitatearen arabera hartuta– eta dirubilketa zerbitzuaren artean: ia 29 milioi garbi gehiago honetan hartan baino. Diferentzia hori arrazoi hauengatik da, oinarrian:

- Ganberaren baliabideetatik heldu diren zeharkako zergen itzulketak, 1,35 milioi eurokoak, aitortutako eskubide garbietan jasota daudelarik, aurrekontuaren betetze-mailari buruzko koadroetako dirubilketa garbian islatzen ez direnak.

- BEZ eta zerga berezi batzuen bidezko dirubilketa garbia ez da adosten ekitaldi horretako betetze-mailari buruzko koadroetarako horien aitortutako eskubideekin. Horren ondorioz, 28,6 milioi euro ekitaldi itxietara lerratzen dira.

Laburtuz, bada, aurrekontuari buruz Nafarroako Gobernuak aurkezten duen zerga bidezko diru-sarrerari buruz hileroko eta ekitaldi itxiari buruzko informazioak bai aurrekontuetako diru-sarreraren kontzeptuei bai abian den ekitaldiari edo ekitaldi itxiei esleitzerakoan estimaziozko esleipenak egitea eskatzen du.

VII.5. NAFARROAKO GOBERNUAREN AURREKONTUAREN BETETZE-MAILAREN ETA ESTATUKO ADMINISTRAZIO OROKORRAREN 2012ko EKAINAREN 30eko BETETZE-MAILAREN ALDERAKETA

Nafarroako Gobernuaren gastuen 2012ko lehenengo sei hilabetekotik 2011ko lehenengo sei hilabetekora bitarteko aldearen portzentajearen eta Estatuko Administrazio Orokorrarenaren⁽²³⁾ (EAO) arteko alderaketatik, hau ikusten dugu:

(23) Iturria: IGAE "Estatuaren aurrekontuaren betetze-maila" 2012 ekaina.

Aitortutakoa	12/11 Aldea, portzentajea Nafarroan	12/11 Aldea, portzentajea EAO
Langileak	-1,83	0,2
Ondasun eta zerbitzuetako gastuak	7,70	-15,3
Finantzarioak	82,60	31,9
Transferentzia arruntak	-2,17	24,9
Inbertsio errealak	1,20	-21,5
Kapital-transferentziak	14,25	-32,6
Finantza-aktiboak	1,93	-69,1
Finantza-pasiboak	0,00	-13,2
Aldaketa, guztira	1,80	6,8

Estatuko aurrekontuaren betetze-maila ehuneko 41,1 zen data horretan; Nafarroakoa, berriz, ehuneko 46,24 zen. Horregatik, hain zuzen, gastuaren murrizketa handiagoa izan da Nafarroan Estatuan baino, 2012ko lehenengo sei hilabeteko honetan.

Nafarroako Gobernuaren diru-sarreraren 2012ko lehenengo sei hilabetekotik 2011ko lehenengo sei hilabetekora bitarteko aldearen portzentajearen eta Estatuko Administrazio Orokorrenaren (EAO) arteko alderaketatik, hau ikusten dugu:

Aitortutakoa	12/11 aldea (%) Nafarroan	12/11 aldea (%) EAO
Zuzeneko zergak eta Kotizazio sozialak	25,76	10,2
Zeharkako zergak	7,52	-7,8
Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	-22,19	91,4
Transferentzia arruntak	-31,64	68,3
Ondare bidezko diru-sarrerak	249,73	3,9
Inbertsioen besterentzea	30,70	-4,3
Kapital transf.	72,35	-27,1
Finantza-aktiboak	1,06	57,7
Finantza-pasiboak	31,20	7,2
Aldaketa, guztira	% 15,81	% 11,6

Hau da, EAOan diru-sarrerek ehuneko 11,6ko emendioa izan dute, Nafarroako Gobernuan baino lau puntu gutxiago, alegia.

Zerga-irudi nagusiei dagokienez, koadro honetan adierazten da alderaketa hori:

Aitortutakoa	12/11 aldea (%) Nafarroan	12/11 aldea (%) EAO
PFEZ	6,52	20,7
Sozietateak	285	-8,3
Ondarea	100	-54,1
Oinordetzak	13,93	-22,3
BEZ	19,43	-7,8
Zerga bereziak	-5,26	-12,1
Ondare-eskualdaketen eta EJDen gaineko zerga	-20,04	-28,8

EAOan PFEZek emaitza hobeak izan dituela azpimarratu behar dugu; gainerako zergetan emaitza hobeak izan dira Nafarroan, BEZ eta Sozietateen gaineko zergetan batez ere.

VII.6. FORU SEKTORE PUBLIKOAREN ZOR-
PETZEA 2012ko EKAINAREN 30ean – NAFA-
RROAKO OGASUN PUBLIKOAREN FORU
LEGEA

Lortu den kontabilitatezko informazio publiko eta pribatuaren arabera, Foru Sektorre Publikoaren 2012ko ekainaren 30eko zor finantzarioa, Nafarroako Ogasun Publikoaren Foru Legearen arabera definiturik, ondoko koadroan definitzen dena da, milaka eurotan:

Finantza-zorra	2012ko ekainaren 30ean		
	Epe luzera	Epe laburrera	Guztira
Nafarroako gobernua	2.277.670	42.000	2.319.670
Sozietate publikoak	247.428	158.487	405.915
Fundazio publikoak	0	0	0
Zorra guztira	2.525.098	200.487	2.725.585

Koadro hau xeheki aztertzen bada, hau ikusten da:

a) Nafarroako Gobernua

- Guztirako zenbateko horretatik, 1.564,85 milioi betebeharrerako zorrari edo "Nafarroaren zorrari" dagozkio, eta 754,82 milioi maileguei.

- Nafarroaren zor hau jaulkialdi hauek osatzen dute:

Jaulkipenaren data	Muga-eguna	Zenbateko nominala	Interes mota nominala
1998/05/14	2013/05/14	90.151.815,55	5,45
2000/11/16	2015/11/16	42.000.000,00	5,85
2002/11/20	2012/11/20	42.000.000,00	4,7
2004/11/04	2014/11/04	65.000.000,00	3,95
2005/04/28	2015/04/28	138.200.000,00	3,6
2006/11/23	2021/11/23	83.000.000,00	4
2008/10/31	2018/10/31	60.000.000,00	4,875
2009/09/30	2019/09/30	50.000.000,00	4,2
2010/02/17	2017/02/17	200.000.000,00	3,875
2010/02/17	2020/02/17	184.000.000,00	4,3
2011/02/24	2016/02/24	154.000.000,00	5,529
2011/03/04	2016/03/04	35.000.000,00	5,25
2011/06/09	2018/06/09	120.000.000,00	5,8
2011/09/29	2014/09/29	81.500.000,00	4,75
2012/02/08	2014/11/04	50.000.000,00	3,95
2012/02/08	2015/11/16	40.000.000,00	5,85
2012/02/08	2016/02/24	50.000.000,00	5,529
2012/02/08	2017/02/17	50.000.000,00	3,875
2012/02/10	2015/02/10	30.000.000,00	3,65
Guztira		1.564.851.815,55	

Aipatutako zor horren batez besteko tipoa ehuneko 4 inguruan dago.

220ko ekainean, 220 milioi euroko zorra jaulki da, aurrekontuan ekitaldi osorako izendatua; jaulkipen horietatik, milioiko bat salbu, gainerako guztiak aurreko urteetako jaulkipenen “retap”⁽²⁴⁾ eragiketen bidez egin dira.

Urte horretako azaroaren bukaerarako 42 milioi euroko zenbateko baten amortizazioa egitea aurreikusita dago.

- Kreditua ematen duen sektoreari begiratuz gero, Nafarroako Gobernuak hitzartutako maileguen saldo garbia iturburu hauetatik dator, milaka eurotan:

Kreditu-emailearen sektorea	2012ko ekainaren 30ean kitatzeko dagoen saldoa
Finantza Erakundeak	415.900
Europako Inbertsioen Bankua	300.000
Gizarte Segurantza	9.783
Sektore Publikoaren gainerakoa	14.080
AUDENASako akzioak erosteagatiko zorra	15.055
Maileguak Guztira	754.818

Horien artean, 2012ko ekainaren azken egunean finantza-erakunde batekin hitzartutako bi mailegurengatik –bakoitza 100 milioikoa– izan den 200 milioiko emendioa azpimarratu behar dugu.

Europako Inbertsioen Bankuaren maileguak ordainketa bakar banaz amortizatuko dira 2024an –90 milioi– eta 2025ean –110 milioi–; Audenasako akzioak erostekoa eta Gizarte Segurantzakoa, 2014an eta 2015ean hurrenez hurren. Finantza-

erakundeekin hitzartutako gainerako maileguen amortizazio-epeak 2013-2014 bitartean bukatzen dira.

2012ko ekainera arte, 18 milioi euroko maileguak amortizatu dira; urte bukaerara bitartean beste 47 milioiko maileguen amortizazioa egitea aurreikusita dago.

- Ondoko koadroan Nafarroako Gobernuaren zor horren adierazle multzo bat erakusten da:

Nafarroako Gobernuaren zorraren adierazleak	2012-ekaina-30
NGren zor bizia (milioitan)	2.320
Zor bizia biztanleko (eurotan)	3.604
Zorra Nafarroako BPGaren %	12,66


Zorraren zenbateko horrek biztanle bakoitzeko 3.604 euroko zorra esan nahi du.

Nafarroaren 2012rako begiz jotako BPGa kon-tuan hartuta, ehuneko 12,66 esan nahi du.

- Ondoko koadroan eta grafikoan, Nafarroako Gobernuaren zorrak 2000 urtetik 2012ko lehenengo seihilabetekoa arte izan duen bilakaera adierazten da, milaka eurotan:

(24) Aurreko urteetan egindako jaulkipenak berriro irekiz edo haien “retap” eginez egiten den obligazio-jaulkipena; zenbatekoa handitu eta jaulkipenaren prezioa aldatu baizik ez da egiten.

Ekitaldia	Zenbatekoa
2000	646.818
2001	641.479
2002	641.408
2003	641.408
2004	641.408
2005	641.375
2006	640.504
2007	610.453
2008	610.352
2009	660.352
2010	984.352
2011	1.344.852
2012 - Ekaina	2.319.670



Hau da, krisi ekonomikoaren hasiera arte –2009–, Nafarroako Gobernuaren zorra oso egonkorra izan zen, eta 640 milioi euro inguruan geratu zen; data horretatik aurrera, nabarmen handitu da, eta ekainera bitartean ia 3,6 bider handiagoa bilakatu da.

Azkenik, ondoko koadro honetan Nafarroako Gobernuaren zorraz Standard&Poor's (S&P) rating-agentziak emandako kalifikazioak aldi horretan izan duen bilakaera adierazten da:

Nafarroako Gobernuaren zorra (S&P)	Kalifikazioa
2009 urtarrila	AAA
2010 otsaila	AAA-
2010 apirila	AA+
2011 urria	AA+
2012 otsaila	AA-
2012 maiatza	A
2012 ekaina	A

Kalifikazioaren beherakada horren arrazoa krisi ekonomikoaren eta finantza publikoen egoeraren bilakaera da; hala ere, agentzia horrek Nafarroaren aldeko alderditzat jotzen ditu Nafarroak duen autonomia fiskal handia, aurrekontuak doitzeko duen autonomia, Nafarroako ekonomiaren lehiakortasuna eta esportaziora bideratua izatea.

2012ko ekainean, Nafarroak eta Euskal Autonomia Erkidegoak autonomia-erkidego guztietan kalifikaziorik hoberenak lortzen dituzte. Data horietan,

Espainiako Erreinuaren kalifikazioa BB+ zen, Nafarroari emana baino bi maila apalagoa, hain zuzen.

b) Sozietate publikoak

Atal honetan enpresa hauen zor finantzarioa sartzten da, talde bereko beste erakunde batzuekin dituzten epe luzerako zorrak kontuan hartu gabe.

2012ko ekainaren 30ean, zor finantzario hori era honetan banatzen da enpresen artean, milaka eurotan:

Sozietate publikoa	2012ko ekainaren 30eko zor finantzarioa
Nasuvinsa	24.309
Nafarroako Garraio eta Logistikako Agentzia S.A.	8.125
Nilsa	23.635
Natural Climate Systems, SA (Miyabi)	3.833
Potasas de Subiza, SA	1.803
Salinas de Navarra, SA	4.932
Burnizko azpitaldea	12.852
<i>Sozietateen Sektorearen azpiguztirakoa</i>	<i>79.489</i>
Ciudad Agroalimentaria de Tudela, SL. (CAT)	54.356
Navarra de Deporte y Ocio, SL (NDO)	32.391
Navarra de Servicios y Tecnologías, SA.	255
Centro Europeo de Empresas e Innovación, SL.	1.423
Tracasa	1.517
Sodena	236.484
<i>Administrazio Sektorea-Sozietaten azpiguztirakoa</i>	<i>326.426</i>
Enpresa publikoak guztira	405.915

Hau da, SODENA –ehuneko 58–, CAT –ehuneko 13–, NDO –ehuneko 8–, NASUVINSA –ehuneko 6– eta NILSA –ehuneko 6– sozietateetan kontzentratzen da sozietate publikoek 2012ko ekainaren 30ean zuten zor guztiaren ehuneko 91. Horien artean SODENAREN zorra azpimarratu nahi dugu, sektore honen zorraren ehuneko 50 baino gehiago baitu, eta seihilabeteko honetan 101 milioi gehiagoko zorra egin baitu.

Zehaztu beharra dago, hala ere, data horretan sozietate publiko guztien artean zuten eskudirua 177,6 milioi erokoa zela.

Beste alde batetik, esan beharra dago enpresa publikoen 2011ko urteko kontuez egin diren kanpo-

ko hiru auditoria-txostenetan badela paragrafo bat hiru enpresek –Potasas de Subiza, subgrupo Burnizko eta Natural Climate Systems– aurrera jarraitzeko duten ahalmenari buruzko zalantza nabarmena azpimarratuz, eta beste batean –SODENA– 20 milioi euroko abaletan eta maileguetan, garantiarik ez dutelako, arriskua aipatzen da.

Lan hau egiteko ardura izan duen Ignacio Cabeza del Salvador auditore jaunak hala proposatuta eman da txosten hau, indarreko araudiak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2012ko urriak 11

Lehendakaria: Helio Robleda Cabezas

1. ERANSKINA. NAFARROAKO GOBERNUAREN AURREKONTUAREN 31KO EKAINAREN 1EKO BETETZE-MAILAREN LABURPENA

Txosten hau prestatzen ari den datan, txosten honen irismenaz kanpo, Nafarroako Gobernuak 2012ko abuztuaren 31ko aurrekontuaren itxiera argitaratu du bere web orrian. Ondoren aurrekontuaren itxiera horren laburpen bat eskaintzen da, txosten honen osagarri gisa.

A. Gastu-aurrekontuaren betetzea, kapitulu ekonomikoen arabera, 2012ko abuztuaren 31n

Ondoko koadroan 2012ko abuztuaren 31ko aitortutako gastuak, kapitulu ekonomikoen arabera, gastu horien betetze-maila (aurrekontu bateratuaren barruan) eta 2011ko data bereko datuekiko alderaketa adierazten dira, milaka eurotan:

Aitortua	2011ko abuztua	Betetakoa (%)	2012ko abuztua	Betetakoa (%)	12/11 aldea (%)	Aldea balio absolututan
Langileak	756.739	65,85	738.200	64,39	-2,45	-18.539
Ondasun eta zerbitzuetako gastuak	309.012	57,92	324.695	59,40	5,08	15.683
Finantzarioak	33.358	54,65	57.862	62,36	73,46	24.504
Transferentzia arruntak	836.104	56,68	829.339	58,48	-0,81	-6.765
Inbertsio errealak	97.259	33,67	81.096	29,15	-16,62	-16.163
Kapital-transferentziak	118.934	36,37	126.202	46,08	6,11	7.268
Finantza-aktiboak	14.399	65,76	13.375	57,07	-7,11	-1.024
Finantza-pasiboak	18.000	19,73	18.000	16,78	0,00	0
Guztira	2.183.805	55,32	2.188.769	56,31	0,23	4.964

Hau da, 2012ko abuzturako, aurreko urteko epe berean baino 4,96 milioi euroko gastu gehiago aitortu dira, ia ehuneko 0,23 gehiago. 2012ko ekainarekin alderatuta, emendio hori geldia egon da, zeren 2012ko lehenengo sehilabeteko horretan 31,7 milioiko emendioa izan baitzen –2011ko lehenengo sehilabetekoan baino ehuneko 1,80 gehiago–.

Betetze-maila ia puntu bat handiagoa izan da 2012ko abuztuaren 2011ko hilabete berean baino.

Kapitulu ekonomiko bereizita eta zenbateko absolututan hartuta, txostenaren gorputzean aipatu den joera bera mantentzen da:

- Langile-gastua 2011n izan zenaren aldean gutxitzen jarraitzen da: 2012ko ekainean 10,6 milioi urritu ziren; 2012ko abuztuaren barruan, berriz, urritze hori 18,5 milioikoa izan da.

- Ondasun eta zerbitzu arruntetan egiten den gastuak handitzen jarraitzen du –2011ko data beretan baino 15,6 eta 24,5 milioi gehiago–, baina betetze-maila ere handiagoa dute 2012an.

- Transferentzia arruntetan izan den urritzea ez da ehuneko batera iristen, 2011ko abuztuarekin alderatuta. Hala eta guztiz ere, 2012ko ekaineko datuekin alderatuta, ehuneko 15 handitu da gastu hori; hau da, 107 milioi gehiago.

- 2012ko ekainean inbertsioak 0,8 milioi handitu baziren ere, urte horretako abuztuaren gastu horiek 16,1 milioi gutxiago izan dira, urritze nabarmen batez. Hori dena 2011ko data beretako datuekin alderatuz.

- Kapital-transferentziei dagokienez, mugatu egin da emendioa, ekainean 13,8 milioiko emendioa izan baitzen, eta uztailan 7,2 milioikoa izan baita.

B. Gastu-aurrekontuaren betetzea, departamentuen arabera, 2012ko abuztuaren 31n

Ondoko koadroan 2012ko abuztuaren 31ko aitortutako gastuak, departamentuen arabera, gastu horien betetze-maila (aurrekontu bateratuaren barruan) eta 2011ko data bereko datuekiko alderaketa adierazten dira, milaka eurotan:

Aitortua	2011ko abuztua	Betetako portzentajea	2012ko abuztua	Betetako portzentajea	12/11 Aldea (%)	Aldea balio absolututan
Lehendakaritza, AAPP eta Barne Dep.	335.196	60,57	344.736	65,78	2,85	9.540
Ekonomia eta Ogasun Departamentua	333.203	44,76	357.020	45,16	7,15	23.817
Hezkuntza	422.357	65,24	391.427	65,49	-7,32	-30.930
Osasuna	619.282	63,64	619.188	66,11	-0,02	-94
Sustapena eta Etxebizitza	122.521	52,82	142.980	43,73	16,70	20.459
Landa Garapena, Industria eta Enplegua	129.412	36,10	122.898	37,46	-5,03	-6.514
Gizarte Politika, Berdintasuna, Kirola eta Gazteria	174.334	50,41	167.325	54,83	-4,02	-7.009
Kultura eta Turismoa Eta Erakunde Arteko Harremanak	34.452	45,49	30.787	50,60	-10,64	-3.665
Nafarroako Kontseilua	342	61,29	293	54,16	-14,33	-49
Nafarroako Parlamentua	12.706	75,00	12.114	75,00	-4,66	-592
Guztira	2.183.805	55,31	2.188.768	56,30	0,23	4.963

Betetze-maila globala ia puntu bat handiagoa da 2012ko abuztuan.

Zenbateko absolututan gastua gehien urritu den departamentua Hezkuntzako da, 30,9 milioi gutxiago (2012ko ekainean urritze hori 31,2 milioi-koa zen).

2012ko ekainean Ekonomia eta Ogasuneko, Sustapeneko eta Osasuneko departamentuek gastu handiagoa zuten aurreko urtean baino.

Abuztuan, lehenengo bi departamentuek joera bera dute, baina zenbateko txikiagoekin (3,9 eta -1,2 milioi). Beste alde batetik, Osasuneko departamentuak, ekainean 2011ko datuekin alderatuta 16,4 milioi gehiagoko gastua egin zuenak, abuztuan 2011ko hilabete bereko gastua berdindu egin zuen ia.

Departamentuek inbertsiotan egindako gastuak ondoko koadro honetan adierazten dira:

Inbertsioak	2011ko abuztua	Betetako portzentajea	2012ko abuztua	Betetako portzentajea	11/12 Aldea (%)	11-01 aldea Balio absolutuak
Lehend. Administrazio Publikoak eta Barne.	5.278	33,55	4.941	54,54	-6,38	-337
Ekonomia eta Ogasun Departamentua	1525	16,19	1.614	18,21	5,84	89
Hezkuntza	19.589	66,60	3.561	34,40	-81,82	-16.028
Osasuna	30.327	40,75	18.519	50,25	-38,94	-11.808
Sustapena eta Etxebizitza	28.470	29,49	41.097	22,33	44,35	12.627
Landa Garapena, Industria eta Enplegua	3.055	16,88	2.628	20,64	-13,98	-427
Gizarte Politika, Berdintasuna, Kirola eta Gazteria	7.972	19,16	7.296	54,69	-8,48	-676
Kultura eta Turismoa Eta Erakunde Arteko Harremanak	1044	28,67	1.440	48,96	37,93	396
Nafarroako Kontseilua	0		0			
Nafarroako Parlamentua	0		0			
Guztira	97.260	33,67	81.096	29,15	-16,61	-16.164

Departamentuka bereizirik eta zenbateko globaletan, Sustapenekoak izan duen emendioa nabarmentzen da, betetze-maila 7,1 puntu txikiagoa izan badu ere; eta nabarmentzekoak dira orobat Osasuneko eta Hezkuntzako departamentuen

urritzeak: 16 eta 11,8 milioi euro hurrenez hurren. Zehaztu beharra dago, hala ere, Osasuneko departamentuak 9,5 puntuz emendatu duela betetze-maila; Hezkuntzakoak, aldiz, 33 puntuz urritu duela.

C. Diru-sarrerren 2012ko ekainaren 31ko bete-tze-maila

Ondoko koadroan 2012ko abuztuaren 31ko aitortutako diru-sarrerak, departamentuen arabera, gastu horien betetze-maila (aurrekontu bateratua-ren barruan) eta 2011ko data bereko datuekiko alderaketa adierazten dira, milaka eurotan:

Aitortua	2011ko abuztua	Betetako portzentajea	2012ko abuztua	Betetako portzentajea	12/11 Aldea (%)	Aldea balio absolututan
Zuzeneko zergak	753.274	53,45	900.096	62,74	19,49	146.822
Zeharkako zergak	1.005.685	54,38	978.142	55,46	-2,74	-27.543
Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	116.997	71,90	99.172	81,49	-15,24	-17.825
Transferentzia arruntak	37.177	51,09	22.761	32,73	-38,78	-14.416
Ondare bidezko diru-sarrerak	4.983	26,16	17.769	106,34	256,59	12.786
Inbertsioen besterentzea	2.418	54,11	2.960	30,99	22,42	542
Kapital-transferentziak	8.230	36,28	11.549	56,83	40,33	3.319
Finantza-aktiboak	16.351	57,86	15.452	55,20	-5,50	-899
Finantza-pasiboak	319.220	84,05	418.827	99,12	31,20	99.607
Guztira	2.264.335	% 57,35	2.466.728	% 63,46	% 8,94	202.393

2012ko abuztu bukaeran, aurreko urteko epe berean baino 202,4 milioi euroko diru-sarrera gehiago aitortu dira, ia ehuneko 8,9 gehiago. 2012ko ekainean emendio hori 268,8 milioioika izan zen.

Nolanahi ere, 2012ko abuztuko betetze-maila 2011n izan zena baino 6 puntu handiagoa da, zuzeneko zergei dagokienez batez ere.

2012ko ekainean bezala, zuzeneko zergen, finantza-pasiboaren bidezko emendio globalak eta

tasetan izandako urritzea nabarmentzen dira. Uztailan ez bezala, ordea, zeharkako zergen bidez heldu diren diru-sarrerak urritu egin dira.

Finantza-pasiboetan izan den emendioaren arrazoiak kanpotiko finantzaketa eskuratu behar izana izan da. Betetze-maila 15 puntu handiagoa izan da 2012an.

Ondoko koadroan zergengatik aitortutako eskubideen bilakaera erakusten da, milaka eurotan:

Zerga bidezko aitortutako diru-sarrera	2011ko abuztua	2012ko abuztua	Aldea, portzentajea	Aldea, guztira
PFEZ	713.106	739.936	3,76	26.830
Ez-egoiliarak	5.617	3.379	-39,84	-2.238
Sozietateak	10.230	94.707	825,78	84.477
Ondarea		33.414		33.414
Oinordetzak	24.032	28.659	19,25	4.627
Iraungiak	291		-100,00	-291
Zuzeneko zergak, guztira	753.274	900.096	19,49	146.822
Hitzarmenaren arabeko doikuntza	30.148	205.846	582,78	175.698
BEZ zuzeneko kudeaketa	607.235	434.271	-28,48	-172.964
Zerga bereziak	297.903	276.137	-7,31	-21.766
Aseguru-primak	12.250	12.488	1,94	238
Ondare-eskualdaketen eta EJDen gaineko zerga	39.644	32.811	-17,24	-6.833
Hidrokarburoak	18.505	16.588	-10,36	-1.917
Zeharkako zergak, guztira	1.005.685	978.141	-2,74	-27.544
Zergak, guztira	1.758.959	1.878.237	6,78	119.278

Zuzeneko zergek ehuneko 19,49ko emendioa izan dute; zeharkako zergak, berriz, ehuneko 2,74 urritu dira. Oro har hartuta, aitortutako zergek ehuneko 6,78ko emendioa izan dute, 119 milioi euroko hazkundea, beraz; 2012ko ekainean ehuneko 14,7 eta 181 milioi izan ziren zenbateko horiek, hurrenez hurren.

Zerga-irudirik garrantzitsuenei begiratuz, alderdiok azpimarratu nahi ditugu:

- PFEZari dagokionez, ehuneko 3,76ko emendio aitortua izan da, 26,8 milioi euroko emendioa, beraz.

- Sozietateen gaineko zergen bidezko diru-sarrerak egoera hobean daude 2011n baino, 84,5 milioiko emendioa izan baitute, eta diru-sarrera aitortuak bederatzita bider handitu dira.

- Ondarearen gaineko zergen bidezko diru-sarrerak 33,4 milioi eurokoak izan dira; 2012ko ekainean 26 milioikoak izan ziren.

- Estatuarekiko hitzarmenaren doikuntzak, hiru hilabetez behin egiten denez, 2012ko ekaineko zenbateko berberak ditu, eta emendio nabarmena izan du 2011ko datuekin alderatuz. Gai hori dagokionez, txosten honetako VII.4 atalean esandakoa gogoratu nahi dugu.

- BEZ zuzeneko kudeaketak urritzeko joera izanez jarraitzen du; 173 milioiko urritzea izan du. Gai honi buruz ere txosten honetako VII.4 atalean esandakoa gogoratu nahi dugu.

- Zerga bereziak eta ondare-eskualdaketak eta egintza juridiko dokumentatuak 7,3 eta 17,2 urritu dira, hurrenez hurren.

Azkenik, ondoko koadro honetan zerga-irudi nagusien⁽²⁵⁾ arabera dirubilketa likidoa⁽²⁶⁾ aztertzen dugu, Dirubilketako Zerbitzuaren txostenaren arabera, milaka eurotan:

Dirubilketa likidoa	2011ko abuztua	2012ko abuztua	Aldea, portzentajea	Aldea, guztira
PFEZ	674.850.321	674.888.665	0,01	38.344
Sozietateak	105.128.109	91.752.497	-12,72	-13.375.612
BEZ	646.204.556	579.064.370	-10,39	-67.140.186
Zerga bereziak	300.052.681	267.265.003	-10,93	-32.787.678
Ondare-eskualdaketak eta EJD	40.862.588	33.135.083	-18,91	-7.727.505
Beste zerga batzuk	61.855.589	75.643.105	22,29	13.787.516
Zergak, guztira	1.828.953.844	1.721.748.723	-5,86	-107.205.121

Ikusten den bezala, dirubilketa likido globala ehuneko 5,8 urritu da. Zergak banan-banan hartuta, dirubilketa urritu egin da denetan, PFEZean –ez da aldatu– eta beste zerga batzuetan salbu –handitu egiten baita, Ondarearen gaineko zerga-erengatiko diru-sarrerengatik batez ere–.

Hala eta guztiz ere, txosten barruan adierazi den bezala, BEZ kalkulatzeko metodologia berriak eragin nabarmena du dirubilketa likidoaren kalkuluetan. Horregatik, bada, urrian, hirugarren hiru hilabetekoari dagozkion behin-behineko doikuntzak ezagutzen direnean, zehazkiago ezagutu ahal

izango da dirubilketa horren bilakaera; eta, normala den bezala, ekitaldia bukatu eta behin-betiko doikuntza egiten denean, zehazkiago aztertu ahal izango da bilakaera hori.

D. Aurrekontu ez-finantzarioaren emaitza 2012ko abuztuaren 31n

Ondoko koadro honetan 2012ko abuztuaren 31ko aurrekontu-emaitza edo saldo ez-finantzarioa (aurrekontuetako diru-sarrera ez finantzarioak ken aurrekontuetako gastu ez-finantzarioak) eta aurreko ekitaldiko data bereko datuekiko alderaketa eskaintzen da, milaka eurotan:

(25) BEZ zergak eta Zerga Bereziak Estatuarekiko Hitzarmenaren doikuntzak eginik dauzkate.

(26) Abian dagoen ekitaldian eta ekitaldi itxietan eskudirutan egindako kobrantzak gehi formalizazioak eta konpentsazioak ken eskudirutan eta konpentsaziotan egindako itzulketak hartzen dira dirubilketa likidotzat.

	2011ko abuztua	2012ko abuztua	Aldea, portzentajea	Aldea, guztira
SALDO EZ-FINANTZARIOA	-222.642	-124.945	44	97.697

Beraz, 2011ko hilabete bereko datuekin alderatuta, Nafarroako Gobernuaren saldo ez-finantzarioa ehuneko 44 hobetu da; hala eta guztiz ere, ordea, 125 milioiko defizita du.

Orobat azpimarratu nahi dugu 2012ko ekaineko datuarekin alderatuta –231 milioiko defizita–, abuztuko saldo ez-finantzarioa 106 milioi urritu dela.

2. ERANSKINA. ENPRESA PUBLIKOEN SEKTOREA 2012

A. 1. Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.L.U. (CPEN).

B. CPENek partaidetza zuzena eta gehiengoa duen sozietate publikoak (berregituratuak):

Ondoriozko Enpresa Publikoa	Sozietate hartzailea/berria	Hartutako sozietateak	Jarduera ekonomikoa
2. Navarra de Suelo y Vivienda, SA (NASUVINSA)	Viviendas de Navarra, SA (VINSA)	Navarra de Suelo Residencial, SA (NASURSA) Navarra de Suelo Residencial, SA (NASURSA)	Lurzorua eta Etxebizitza
3. Agenc. Navarra del Transporte y Logística, SA (ANL)	Garraioaren Hiria, Iruña SA (CTPSA)	Agenc. Navarra del Transporte y Logística, SA (ANL)	Garraioa eta Logistika
4. Ciudad Agroalimentaria de Tudela, SL. (CAT)	Gaur egun duen egoera ez da aldatu		Nekazaritza-elikagaiak
5. Instituto Navarro de Tecnologías e Infraestructuras Agroalimentarias, SA (INTIA)	Riegos del Canal de Navarra, SA (RICAN)	Tuterako nekazaritza-elikagaien hiria, SA (ICAN) Instit. Téc. y de Gestión Agrícola, SA (ITGA) Instit. Téc. y de Gestión Ganadero, SA (ITGG) Riegos de Navarra, SA	Nekazaritza-elikagaiak
6. Gestión Ambiental de Navarra, SA (GAN)	Gestión Ambiental, Viveros y Repoblaciones de Navarra, SA (VIVEROS)	Navarra de Med. Amb. Indus. SA (NAMAINSA) Echauri Forestal, SL	Ingurumena
7. Navarra de Infraestructuras Locales, SA (NILSA)	Gaur egun duen egoera ez da aldatu		Tokian tokiko azpiegiturak
8. Empresa Navarra de Espacios Culturales, SA (ENEC)	Baluarteko Palacio de Congresos y Auditorio de Navarra, SA (BALUARTE)	Iruñeko Planetarioa, SA	Kultur eremuak
9. Navarra Deporte y Ocio, SL (NDO)	Circuito Los Arcos, SL	Sociedad de Promoción de Inversiones e Infraestructuras de Navarra, SA (SPRIN) Territorio Roncalia, SL	Azpiegitura tematikoak, aisiakoak eta kirolekoak
10. Centro Navarro de Aprendizaje de Idiomas, SA (CNAI)	Gaur egun duen egoera ez da aldatu		Hezkuntza eta dohainak
11. Navarra de Servicios y Tecnologías, SA (NASERTIC)	Navarra de Servicios, SA (NASERSA)	Producción Informática de Navarra, SL (PIN) Obras Púb. y Telecom. de Nav., SA (OPNATEL)	Adm. Publikoetarako zerbitzuak eta teknologia
12. Centro Europeo de Empresas e Innovación, SL (CEIN)	Centro Europeo de Empresas e Innovación de Navarra, SL (Sozietate berria)	Centro Europeo de Empresas e Innovación de Navarra (CEIN) Agencia Navarra de Innovación y Tecnología SA (ANAIN) Navarra de Verificaciones Legales, SA (NAVELSA)	Berrikuntza eta enpresagintza
13. Trabajos Catastrales, SA (TRACASA)	Trabajos Catastrales, SA (TRACASA)	Gestión de Deudas, SA (GEDESA)	Ogasuna eta Ondarea
14. Sociedad de Desarrollo de Navarra, SL (SODENA)	Sociedad de Desarrollo de Navarra, SL (Sozietate berria)	Soc. de Desarrollo de Navarra, SA (SODENA) Navarra de Finan. y Control, SA (NAFINCO) Navarra de Gestión para la Admón., SA (NGA) Fondo Jóvenes Empresarios Navarros, SA	Ekonomiaren sustapena eta finantzaketa

-hartzea baitu.

gabeak

Enpresak	Partaidetzaren portzentajea	Jarduera nagusia
15. Start Up Capital Navarra, SA	59,36	Enpresak sustatzea eta bultzatzea
16. Salinas de Navarra, SA	76	Gatza eta haren eratorriak produzitzea, lantzea eta merkaturatzea
17. Potasas de Subiza, SA	100	Ongarri mineralak eta potasio- eta sodio-gatzetatik eratorriak
18. Natural Climate Systems, SA	66	Higiezinak sustatzea energia-efizientziari dagozkion irizpideen arabera
19. Burnizko azpitaldea (1)	100	Ibilgailuen eta trenen karrozeria
20. Tuckland Footwear, SL (2)	100	Oinetakoak fabrikatzea eta merkaturatzea

1. Aldi batez, 2011z gero, sozietate publikoa da, Sodenak erosketa-aukera batean egindako eragiketaren ondorioz. Hiru enpresek osatzen dute azpitalde hau: Burnizko, SA (azpitaldearen buru), Suministros y Servicios Unificados de Carrocería, SL eta Suncove, SA. Enpresa horietan guztietan kapitalaren ehuneko 100 Sodenak du.

2. 2011ko martxoan hasi da iraungitzeko prozesua.

NAFARROAKO GOBERNUKO LEHENENGO LEHENDAKARIOEDE ETA EKONOMIA, OGASUN, INDUSTRIA ETA ENPLEGUKO KONTSEILARIAK BEHIN-BEHINEKO TXOSTENAZ EGINDAKO GOGOETAK

Nafarroako Foru Komunitatearen finantzen 2012ko ekainaren 30eko egoeraz egindako behin-behineko fiskalizazio-txostenari dagokionez, txosten horretan jasotzen diren ondorioen artean, urte honetako lehenengo sei hilabeteetako aurrekontuaren betetze-mailan gutxienez 2011ko ekitalditik lerratutako 55,4 milioi euro jasotzen direla esaten da. Ganberak dioena eta kopuru hori zalantzan jartzeko asmorik gabe bada ere, bi gauza behintzat aipatu behar dira, txostenaren helburua ukitzen ez badute ere, txostenean agerian jartzen den egoeraren garrantzia behar bezala neurtzeko garrantzi handia dutenak. Hona:

Alde batetik, gastuaren "lerratze" horrek Foru Komunitateko Administrazioak bere betebeharrei behar den garaian eta behar den moduan aurre egiteko duen ahalmenean izan duen eragina. Ogasuneko Ministerioari hiru hilabetez behin bidaltzen zaion informazioaren arabera, osasun-gaietako hornitzaileei ordainketak egiteko batez besteko epea –alor horretakoa baita lerratutako gastuaren ia ehuneko 80–, 37,15 egunekoa zen, 2011ko laugarren hiruhilabetekoan, faktura bidaltzen zen egunetik hasita. Bada, 2012ko lehenengo hiruhilabetekoan epe hori 45,43 eguneraino luzatu zen, baina urte horretako bigarren hiruhilabetekoan 37,92 eguneraino laburtu zen berriro. Bi ondorio atera daitezke horretatik: lehenik eta behin, gastuaren lerratze horrek oso eragin txikia izan du, ordainketa egiteko batez besteko epea 8 egun baino zertxobait gehiago baizik ez baita luzatu normaltzat jo daitekeen egoera batean izango litzatekeenaren aldean; bigarrenik, bigarren hiruhilabetekoan egoera normalera itzuli dela berriro, hornitzaileei ordainketak egiteko batez besteko epea aurreko urteko azkeneko hiruhilabetean ziren epeen maila bertsura itzuli denez.

Beste alde batetik, esan beharra dago Nafarroa izan dela, Euskal Autonomia Erkidegoarekin batera, emandako zerbitzuengatik hornitzaileei ordaintzeko aparteko finantzaketa bat behar izan ez duen autonomia-erkidego bakarra; horrek garbi uzten du Nafarroako aurrekontuak gaitasun handia duela hartutako betebeharrak betetzeko, gainerako autonomia-erkidegoek batez beste duten gaitasuna baino askoz handiagoa.

Bi gogoeta hauek argi eta garbi jaso beharko lirakeke txostenean, nik uste, Ganbara horrek agerian jarri dituen gertaerak interpretatzeko testuinguru egokia eskaintzeko, nahiz inolako asmorik ez izan Ganbera horrek dioena auzitan jartzeko; baina datu horien garrantzi kuantitatiboa gutxitzea ez da hartu behar egiaz egindako gastua, kontabilitatean nola jaso behar den kontuan hartu gabe ere, kontrolatzeko kontabilitate-mekanismo bat ez edukitzearen garrantzia aintzat ez hartzeko, ekitaldi honetan bertan, Ganbera horrek aholkatzen duen bezala, fakturen erregistroa abian jarritzuzenduko baita, gainera, akats hori.

Iruñean, 2012ko urriak 10

Kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

KONTUEN GANBERAK NAFARROAKO GOBERNUKO LEHENENGO LEHENDAKARIOEDE ETA EKONOMIA, OGASUN, INDUSTRIA ETA ENPLEGUKO KONTSEILARIAK BEHIN-BEHINEKO TXOSTENAZ EGINDAKO GOGOETEI EMANDAKO ERANTZUNA

Nafarroako Gobernuoko Lehenengo Lehendakarioede eta Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko Kontseilariak behin-behineko txostenaz egindako gogoetak jaso eta aztertu, eta txosten honen edukia ezertan ez dutela aldatzen ikusirik, txostena behin betikotzat jotzen da.

Iruñean, 2012ko urriak 11

Lehendakaria: Helio Robleda Cabezas